innobasque
berrikuntzaren euskal agentzia
agencia vasca de la innovación

# 2. txostena
# 2012




Cadena SER-en diseinua

# "Innobasque exchange"

2013eko martxoaren 22an

"Berriztatzeko era berriak, kolaboratzeko era berriak"




**BIKINCLOUD: iraultza egiten du ziklismoaz gozatzeko moduan**

**ATOUCH INTERACTIVE TABLE: azken belaunaldiko ukimen-mahaia**

**BIOBAI: Gamifikaziozko ekimena hirietan**

**DOOCUMENTS: dokumentu adimendunaren formatu berria**




**UDALTRUKE: ondasunak trukatzeko plataforma**

**KIT: informazio kudeaketaren ukimen sistema**

**SEGURTASUN ELEKTRIKOKO BG SISTEMAK: kableak eta tutueriak zigilatzeko konponbidea**

**BYVOX: itzulpeneko lanabes-kaxa**






8 bazkide haien proiektu berritzaileentzako lankidetzaren bila daude

Zeure proiektua aurkeztu nahi baduzu, bidali mezu bat hona: mruiz@innobasque.com

innobasque
berrikuntzaren euskal agentzia
agencia vasca de la innovación

# Aurkibidea

Editoriala 4-5

2 minututan 6-7

Seihilekoko protagonistak 8-13

## Berrikuntza-sistema 14-21

> Gobernu-organoak
> Berrikuntzako Euskal Sistemaren jarraipena eta ebaluazioa
> Berrikuntza politika publikoetan
> I+G+b Sistemaren nazioartekotzea

5 gako ... 22-23

## Dinamizazioa 24-39

> Ekonomia Ekoberritzailea Dinamika
> Gizarte Efiosasungarria eta Bizi Kalitatea Dinamika
> Enpresak Azeleratzea Dinamika
> Laugarren Sektorea Dinamika
> Berrikuntza-sareak

Hau partekatu nahi dut 34-35

## Sozializazioa 42-53

> Innobasqueko Astearteak
> Global Innovation Day
> Openideiak
> First Lego League Euskadi: berrikuntza-eskola
> Diplomazia berritzailea
> Innocampus
> Bazkideen programa

Innobasque medioetan 54-57

Seihilekoko argitalpenak 58-61

**CADENA SER**-ek diseinatu du seihileko txosten honen azala Innobasqueko bazkide guztientzat.

# Lidergoa eta berrikuntza

Une hauetan biztanleriaren geruza zabalak beren larruazalean “krisi” gaizki deituaren ondorioak pairatzen ari dira, zein gauzatzen baita langabezia luzatuan, soldata-murrizketatan edo berme sozialak auzitan jartzen. Bizi-ikuspegiak okertzen ari dira, eta klase sozial batez hitz egiten da dagoeneko: *prekariogoa*. Ostertz horren eragin emozionala mehatxatzaile ari da gizartean hedatzen  luze eta zabal, inbertsioetan, barne-kontsumoan, ekintzailetzan, eta, nola ez, berrikuntzan dituen eraginekin. Bizkaiko Foru Aldundiaren “Norabidea 2012” txostenekoo datuek argi eta garbi adierazten dute enpresen, bereziki eten jarduera berritzailearen erorikoa.

Inguruabar horietan galdera handiak egiten denbora alferrik gal dezakegu, nola iritsi garen honaino, edo errudunak bila ditzakegu; zalantzarik gabe ataza bidezkoa da  baina errentagarritasun badaezpadakoa duena. Bidea urratzen duen karrika bakarra aitzinean dugun erronkari aurre egitea, eta lehenbailehen egitea da.

Abiapuntua argi eta garbia da, aldatu egin dira oinarriak. Ez da figura erretoriko soil bat, testuinguru errotik bestelako baten hitzez hitzezko itzulpena da, geure burua berrasmatzea eskatzen duena. Gertatzen ari zaigun guztia: langabezia, krisia, salmentak erotzea... arazo handiago baten sintomak baizik ez dira, eta egoera larriago batenak, oraindik aurre egin nahi izan ez dioguna, eta horrek badu zerikusia gauzak ez direla aurrerantzean lehen bezalakoak izango. Bada garaia pentsatzen hasteko nolakoa izango den gure bizitza ongizatearen osteko ingurune batean, gutxienez  Europaren Hegoaldean.

Enpresaren barrutian, eta gutxiagorekin gehiago egitearen fasea agortu eta gero, bestelako era batean berr-ikasi eta ekiteko ordua iritsi da, eskaintza berriak sortuko dituzten lankidetza-eren bitartez eskaera konplexuko eszenatokietako aukerak baliatzeko. Baina geure eskema mentalak egokitu arte, bizitzea egokitu zaigun egoera zehatzean eragiterik ez dugu lortuko. Krisiak, arazo tekniko eta ekonomiko bat bezala planteatzeari utziko diogunean, orduan bukatuko da, merkatuetan gertatzen den zerbait bezala, eta atazak, funtzioak eta eskuduntzak birdefinitzen hasiko garenean, nola sektore publikoan hala pribatuan. Jakitun izanik askoz erresilienteagoak izango garela baldin eta publiko eta pribatu kontzeptua gauzatzea lortzen badugu herrialde-irismenarekin. Orduan bakarrik lortuko dugu erantzukizun berriak eta konpromiso berriak sortzea.

Ondorioz, ikasi egin beharko da gure behar berrietarako garrantzitsua ez dena baztertzen; dagoeneko badugun eta biziraupena segurtatzen digun hori preserbatzen; eta, zalantzarik gabe, geure berrikuntza, estrategia eta gaitasun berriak indartzen, birkonbinazio eta bariazio berriak asmatzeko, erronka eta aukera berriei erantzuna ematen lagunduko dutenak. Baina berrikuntzak, eraginkorra izateko, sinesgarria izateko lidergo konprometitua eskatzen du.

Lidergoaren definizio estimulagarrienetako bat Society for Organizational Learning-ek (SOL) ematen duena da, Innobasque bere



**Guillermo Ulacia**
Innobasqueko Presidentea

baitan duen nazioarteko sareak, eta hala dio: "lidergoa giza komunitate batek bere destinoa eratu eta bere nahi sakonenen arabera errealitatea ernarazteko gaitasuna da".

Definizio hori ezartzea lidergoa aktibo sozial bat bezala pentsatzea da, zeinek hedatzen baititu pertsonak eta haien jokaera, haien harremanen egitura, haien antolakundeak eta erakundeak eta haien nahiak erasaten dituen prozesu kolektibo bat bezala.

Lidergoaz hitz egitea, beraz, ez da aurrean doanaz bakarrik hitz egitea. Jarraitzaileak sortu beharrean, lider handiek lider berriak sortzen dituzte. Horregatik pertsonez ari gara, baina bai eta gogo-berotasuna sortzeko gai diren proiektu onez, eta gainditzea dakarten konpromisoez. Liderrak beharrezkoak dira, baina ezinbestekoa da hiritar aktibo, partaide, lankideen... hau da, eragile bihurtutako pertsonen laguntasuna izatea, zeinek proiektu bati atxikitzean ez baitiote uko egiten beren kritikarako gaitasunari, beren autonomiari, beren ahotsari. Aurre egiten diegun erronketako askok konpromiso handia eskatzen dute, benetan hautabide eraginkorrak bilatu nahi baditugu. Aldaketa demografikotik kontsumo arduratsu eta osasungarriko jarraibide berrietaraino; ongizate-sistema publikoen jasangarritasunetik lana ondasun urri bezala arautzeraino; bizitzan zeharreko hezkuntzatik kohesio sozialeko erronka berrietaraino; mugarik gabeko hazkuntzaren fokatze tradizionaletik lehen gaien urritasuneraino, edo balio ekonomikoa eta balio soziala sortzearen arteko binomioa, aurrerapena eta ez-hazkundea; edo lehiaketa eta lankidetza. Ez dira gure portaeraz at gertatzen diren dinamikak, baizik eta bizitzeko gure moduaren emaitza dira.

Errazagoa da pentsatzea arazo horiek guztiek konponbide tekniko eta/edo operatiboak dituztela. Izatez, egia da hondamendi asko dauzkagula konpontzeko, baina oraindik areago dugu lehentasunak, jarrerak eta egiteko moduak sintonizatu beharra. Horrek eragina du nola pertsonengan hala enpresa, erakunde edo herrialdeetan.

Gaurko garaiotan, Internet garaiotan lankidetza era berriak hedatzen ikasi dugu, eta horrek oso sortzaileak eta berritzaileak izateko aukera eskaintzen digu, sarean lan eginez, baina aldi berean oso alergiko bihurtu gaitu agintearen ikusmolde tradizionalarekiko.

Aro honetan dagoeneko ez du balio obedientzia kudeatzeak, baizik eta gogo-berotasuna kudeatzen ikasi beharra dago. Hori lidergo-modu banatu eta partekatuekin, eta lidergo bideratzailearen era batzuekin bakarrik egin daiteke (hau da, konpromisoak sortzeko, helburu komunak sortzeko gai izan behar duenarekin).

Hala zioen Bernard Bass irakasleak: *"Lidergoa erakunde bat etorkizunera gidatzeko erari atxikita dago, gero eta lasterrago datozenei eta haiek arrakastaz ustiatzeari atxikita. Lidergoak badu zerikusia ikusmoldearekin, eta gainerakoek hura onartzearekin, ahalduntzearekin eta, batez ere, aldaketa baliagarri bat eragitearekin. Lidergoak ez du harremanik atributuekin, portaerekin baizik. Presaka mugitzen ari den mundu batean, lidergoa inoiz baino beharrezkoagoa da gero eta pertsona gehiagorentzat, haien kokagune hierarkikoaz zein-nahi dela ere. Gutxiengo aparteko batek kokaturik beharrezko lidergoa hornitu dezakeelako pertzepzioa gaur egun irrigarria da, eta porroterako errezeta bat".* (Leadership and Performance Beyond Expectation, 1985).

Esan dugun bezala, hiritartasun sendoak behar ditugu, beren partaidetza aktiboki hedatzeko entrenatuak, baina aldi berean, eta batez ere ziurgabetasun- eta aldaketa-testuinguruetan, beharrezkoa da aldaketa horiek katalizatu eta gidatuko dituzten pertsonak izatea. Era berri batez pentsatu eta jokatzeko gai diren pertsonak, aldaketak eraginez, gidatzen dituzten misioan eta baloreetan kontzentratuz, erantzukizunak beren gain hartuz, nahikoa saiamen eta iraupenez zailtasunen aurrean amore ez emateko. Eta kontua ez da aparteko pertsonak izatea, baizik eta gozamenari eta erosotasunari mesfidantza dioten liderrak. Lidergoa, bada, neurri handi batean herrialde baten eta haren enpresen kapital zibikoaren emaitza da, hau da, energia hura zeinarekin burutzen baititugu erantzukizun kolektiboak eta jakin baitakigu haiek transmititzen eta beste batzuekin partekatzen. Lidergoa berrikuntzarako baldintza da.

# 2 minututan



> Abian dira Innobasqueko 4 Zuzendaritza Kontseiluak: Ekoberrikuntza, Gizarte Efiosasungarria, Laugarren Sektorea eta IRTI Kontseilua (Innobasque Roundtable of Industrialists).

> Bigarren seihilekoa kopurutan: 11.160 pertsona mobilizatu, 25 erronka berri Openideiak-en, 1.444 eragin prentsan, 1.000 bertaratu Global Innovation Day-n, 29.430 pertsona sare sozialetan.

> Aurrera goaz pertsona etorkinak integratzen Euskadin. Immigrazioaren aldeko Itun Soziala aurkeztu da.

> Enplegua, partaidetza gizartean eta bizitza independentea, 3 zutabe zahartze aktiborako Europan.

> Euskal ikerkuntza europar I+G-b-eko estrategiarekin lerrokatu da. "Euskal I+G+b-ko Koaderno Estrategikoa Europan" eguneratua aurkeztu da.

> Teknologia garbiak, aukera-iturri. 15 cleantech proiektu berritzaile INNvest sareak analizatuak.



› Gosasun, jo eta aurrera: 55 eragile bizimodu osasungarri baten alde lanean.

› Kronikoen Sareak Buber Sariak 2012 saria jaso du hiritarrentzako zerbitzu-web hoberena izateagatik.

› Adimen Emozionaleko Partzuergoak bere ibilbidea birpasatu du Bartzelonan. AEaren I. Nazio Kongresuko partaidetza.

› Innobasqueren Astearteek euskal berrikuntzaren aldeko bidaia batekin eta lankidetza-berrikuntzako proiektu batekin itxi dute 2012 urtea.







› Partaidetza-arrakasta Global Innovation Day-n, berrikuntza praktikatu eta harekin bizi eta konektatzeko hitzordua.

› Zahartze aktiboa, euskal eskola-ikasleen eta adinekoak arteko topagune FLL Euskadiko 4° edizioan.

› Ekintzailetza sozialak eta berrikuntzak saria izan dute Singapurren. Innobasquek SIP Fellow Award 2012 saria jaso du.

› Lankidetzen bila Innobasque Exchange-n. 20 proiektu berritzaile aurkeztu dira.

› Innobasque sarea ehuten: 43 erakunde berri bazkide

# hiruhilekoko protagonistak

## ZIV elektrizitate adimendunari atxiki zaio

ZIV 1993an sortutako euskal taldeak, 400 lanpostu sortuko ditu sare adimendun izendatutakoentzat zenbakailuak ekoiztera bideratutako sail berri bat garatzeari esker. Enpresa horrek, Zamudioko Teknologia Parkean kokatua, planta berri bat abiarazi du, neurketa-osagai horrek ekoiztera bideratua, eta bertan 2,5 milioi euro inbertitu ditu eta zuzenean 80 pertsonak lan egingo dute bertan. Beste 320 lanpostuak inguruneko enpresetan sortuko dira, izan ere osagai-hornitzaile bezala arituko dira.

Iturria: **El Correo** [2012ko uztailak 1]





## SPRIk Silicon Valley-n lur hartzen du euskal enpresei laguntzeko

San Franciscoko honekin Euskadik dagoeneko baditu hiru enpresa-egoitza "aukeren lurraldean" New Yorkeko eta Filadelfiakoaz gainera,

Kaliforniako euskal bulegok lagundu egingo die enpresaburuei EE.BB.etan oina ezartzen, lege-aholkularitzaren ekarpena eginez, lankidetza nahi duten tokiko enpresaburuengana hurbilduz, Silicon Valleyko inbertitzaile nagusiekin lokarri izanez edo beren patenteen jabetza intelektuala babestuz. Hitz batean, negozio-azeleratzaile bat izango da, ahalik eta ahalegin handiena egingo duena Euskal Herria nabarmendu eta garaile izan dadin.

Iturria: **El Correo** [2012ko uztailak 29]

## Sei Euskal enpresa lerrokaturik zahartzearen erronkaren aurrez aurre

Sektore teknologiko, zientifiko eta sozio-sanitarioko enpresak Zahartzearen Berrikuntzako Poloa Fundatzeko eratzeko elkartu dira, zeinen helburua konponbide berriak sustatzea baita zerbitzu aurreratuak hornitzearen eremuan prebentzioan, laguntza sanitarioan eta adineko pertsonak laguntzen.

Iturria: **Basque Research** [2012ko abuztuak 8]



## "Talentu berritzaileak" donostiar gazte prestatuak sustatzen ditu

"Talentu berritzailea" programak 25 gazte donostiar prestaturen hitzarmena sustatuko du. Donostiako Sustapenak ekimen hori bere Ekonomia Estimuluko bere planaren barruan txertatzen du eta 20 proiektu berritzaile hautatu ditu 9.000 euroko subentziorainoko zenbatekoa izango dute langabezian dagoen 30 urtez azpiko gazte bakoitzeko. 25 hitzarmenak EERR, Ikus-entzunezko, Laguntza-Konponbide eta Surfeko klusterrei eta tokiko I+G+b-ko eragile desberdinei atxikirik egongo dira.

Iturria: **Innovaticias** [2012ko azaroak 26]






## Crowdfunding-a bidea urratzen ari da Euskadin Goteo plataforma sozialaren bitartez

Goteo Euskadi Eusko Jaurlaritzaren euskarria du Irekia eta Euskadi Emprenderen bitartez, ColaBoraBora "prokomunek" irekitako erakundearen bulkadarekin. Joan den irailean aurkeztu zen jendaurrean Innobasquek antolatutako Global Innovation Dayren esparruan, eta bi hilabete horietako ibilaldian crowdfunding-era sartzeko tailer ba baino gehiago egin ditu, eta aholkatu eta lagundu egin du bi proiektu abian jartzen, hiri-baratzeei buruzko bideoblog bat balkoietan (Eraman nazazu baratzera) eta hardware askerako sarrera baten eskuliburu didaktiko batzuk komiki-formatuan, (Tutomics) zeinek plataformaren bitartez behar den gutxieneko kapitala lortu baitu abian jartzeko. Behar den batez besteko finantzazioa 5.000 eurokoa izan ohi da, nahiz eta Estatu Batuetan proiektu bat zortzi milioi dolarretaraino ere iritsi den.

Iturria: **Estrategia Empresarial** [2012ko abenduak 1]

## Hidroambiente eta Gaiker-IK4 erabilera publikoko uraren kalitatea hobetzeko teknologia bat garatzen ari dira

Hidroambiente ingeniaritzak eta Gaiker-IK4 teknologia-zentroak teknologia berri bat garatu dute giza kontsumorako uraren kalitatea hobetzea ahalbidetzen duena, erreaktibo kimikoak erabiltzea saihestuz eta haren instalaziorako behar den gunea murriztuz.

Giza kontsumoko uren kalitatea hobetzeko Hidroambienteren helburua betetzeko, Gaiker-IK4 lankide izan da tratamenduko teknika berritzaileenen ekarpena eginez, uren tratamenduari atxikitako I+G+b-an aditua den teknologia-zentro bezala

Hiru urtez lankidetzan aritu ondoren, FEDERER funtsez finantzatutako ikerkuntza honen emaitzek, 2012aren amaieran burutuko direnek, berretsi egiten dituzte planteatutako helburuen bideragarritasuna. Hartara, frogatuta geratu da Tekno-EKO teknologien eta mintzen bideragarritasuna kalitate handiko ur-hornikuntzen baldintzamenduaren tratamendurako, erreaktibo kimikoak erabili gabe.

Iturria: **El Economista** [2012ko abenduak 10]



## Iberdrolak eta ITGZk 25 milioi baino gehiago inbertituko dituzte teknologia berritan energia-sektorean

Iberdrolak eta Industria Teknologiaren Garapenerako Zentroak (ITGZ) itun bat izenpetu dute eta haren bitartez 25 milioi euro inbertituko dituzte elkarrekin energia-sektorerako teknologia berritan.

Ituna Jaurlaritzako Innvierte Programan txertatuta dago, eta haren helburua arrisku kapital publiko eta pribatuaren bitartez, hazkuntza-ahalmen handiko enpresa berritzaileak eta teknologia-oinarrikoak abiarazi eta sendotzea sustatzea du helburu Ekimen horren bitartez, Iberdrolak inbertitu ahal izango du, beste konpainia pribatu eta funts publiko batzuekin, proiektu ekintzaileetan, zeinek faboratuko baitute ekoizpen-ereduaren aldaketa bat gizarte jasangarriago bat lortzeko.

Iturria: **Europa Press** [2012ko irailak 7]





## Mondragonek gehitu egin du bere presentzia Txinan bi planta berrirekin

Mondragon Korporazioak gehitu egin du bere presentzia Txinan planta berriak inauguratuz. Taldeko bi kooperatiba diren Fagor Ederlan eta Cikautxok guztira 37 milioi euro inbertitu dituzte Kunshango aldean instalatzeko, non dagoeneko holdingak bai baitu industria-poligono garrantzitsu bat. Horrek jauzi berri bat esan nahi du Mondragonen nazioarteko politikan eta Txinan bere estrategiak duen hedapenean, non 18 mendeko enpresa eta 2.000 langile baititu. Haren presidentea den Txema Guisasolak segurtatu du inaugurazio-ekitaldian aurreikuspena taldeak 2012 urtea 250 milioiko salmentekin ixtea dela Txinako merkatuan eta 300 milioiko erosketekin.

Iturria: **Cinco Días** [2012ko irailak 19]

## Tubacex-ek segurtatu egin du bere finantzazioa hamabi erakunderekin egindako itun batez

Tubacex altzairu herdoilgaitzeko soldadura gabeko hodien munduko bigarren fabrikatzaileak segurtatu du etorkizuneko finantzazio-beharrak dituela hamabi banku-erakundeekiko itunarekin 160 milioi euroko zenbateko batekin.

Laudion (Araba) egoitza duen enpresak Balore Merkatuaren Nazio Batzordeari jakinarazi dio itun hori, zeinek aipatzen baitu kreditu-lerroen epe-mugak luzatzea eta inbertsioetarako maileguak birfinantzatzea.

Eragiketa horrek hazi egiten du konpainiaren egonkortasun finantzarioa eta bankuek hartan duten konfiantza "ziurgabetasun makro-ekonomiko handiko eta kredituaren merkatuan likidezia urriko une batean". Merkatuaren egoera gorabehera, enpresak aurreko ekitaldiko emaitzak nabarmen hobetzea aurreikusten du, produktu berrien bere zorroari gehitu dizkiolako, tradizioko esportazioetan merkatua berreskuratu delako eta prezioak hobetu direlako.

Iturria: **Finanzas.com** [2012ko urriak 1]



## Ega Master, 2012ko negozio-eredu hoberenarentzako nazioarteko saria berrikuntzan



Ega Master, erreminta-sektorean aritzen den erakundeari Negozio Eredu Hoberenari Nazioarteko saria eman diote berrikuntza-kategorian, zein hirugarren urte jarraituan deitu baitu Development Systems aholkularitzak Zuzendaritzaren Aurrerapenerako Elkartearekin (ZAE) lankidetzan.

Sariak aitortu egiten ditu emaitzengatik eta merkatura egokitzeagatik kudeaketa-erreferentea duten enpresak, bai eta beren negozio-eredua inplementatzen eraginkortasun ongi lortuarengatik ere bere barne- eta kanpo-bezeroen aurrean.

Iturria: **Europa Press** [2012ko urriak 7]



## Neiker-ek Eneko Atxaren Azurmendi jatetxea barazkiz hornitzen duen instalazioa diseinatzen du

Eneko Atxaren sukaldean baratzeko produktuak oinarrizkoak dira. Kasu horretan Azurmendi jatetxearen beraren gainean kokatutako baratze batetik datoz eta Neiker-Tecnaliak diseinatua da kalitate handieneko barazki autoktonoak lantzeko haren aholkularitzapean. Baratzeak hiru lantze-sistema ditu: airepeko gune bat, lantze hidroponikoko gune bat eta edukiontzietako lantzearena beste bat.

Barazki guztiak ekoizpen integratuko arau zorrotzen mendean ekoizten dira eta horrek izurrien aurka borroka biologikoa erabiltzea eskatzen du, (amona mantan gorriak sartzea zorriei erasotzeko) eta giza kontsumorako kaltegabeak diren landare-aterakinak soroetako gaixotasunei erasotzeko.

Iturria: **Infohoreco** [2012ko abenduak 25]

## BBVAk Foursquare sare soziala darabil bere bezeroekiko harremana indartzeko




Espainiako BBVAren bezeroek dagoeneko badute kontaktu-gune bat bere bankuarekin Foursquare sare sozialetan. Duela hiru hilabete, BBVA era proaktiboan kudeatzen ari da bere bulegoetako orrialde geolokalizatuak sare sozialean, eta horrek aukera ematen die lehen eskutik ezagutzeko erabiltzaileen iritzia bulego bakoitzari buruz eta produktuak eta eskaintzak ematen hasteko mundu fisikoa eta birtuala nahasteko gai direnak. Helburua bezeroarekiko harremana erraztea da dagoen tokian dagoela ere eta ahal den modurik erosoenean.

BBVAren presentzia Foursquaren gainera BBVA Gamerekin zuzeneko harremanean dago, zeinek sararazten baititu gamifikatze-teknikak bezeroek bankuarekin dituzten harremanean.

Iturria: **Estrella Digital** [2012ko azaroak 26]

## ITP enpresak itun berri bat izenpetu du, eta horrek 2.500 milioi fakturatu eta 250 enplegatu sortzeko aukera emango dio

ITP enpresak atzo itun berri bat iragarri zuen Pratt & Whitney taldearekin, segmentu berri batean sartzea ahalbidetuko diona, korridore bakarreko hegazkinetara sartzekoa eta bezero berri bat sendotzekoa. Firmak 2.500 milioi euro baino gehiago fakturatzea espero du amerikar konpainiaren PurePower Geared Turbofan (GTF) motorrean eta, horretarako, 100 milioiko inbertsioa beharko da datozen urteetan. Ignacio Mataix, zuzendari nagusiak azaldu zuenez, itun estrategiko hau izenpetzearekin konpainiak %10 gehitu lezake langileria, "euskal industriaren enpresa erakarlearen izaera betikotzeaz gainera."

Itun horrek aukera ematen dio GTF motorraren garapen-proiektuko bazkide hornitzaile izateko, motorraren bizi-ziklo guztian parte hartuz, fabrikazioa, ingeniaritza eta mantentzea barne direla.

Iturria **DEIA** [2012ko urriak 12]





## Ormazabal-ek 5,5 milioi euro inbertituko ditu I+G+b-ko bere ekipoa handitzen

UDEX (Unidad de Demostración y Experimentación) proiektu berri honen bitartez, Ormazabalek esperimentatze-plataforma bat gehituko du sare elektrikoak aztertu, garatu eta esperimentatzeko. Munduan dagoen mota horretako lehen instalazioa da, zeinek ahalbidetuko baitu "sare erreal" baten funtzionamendu normaleko baldintzak edo sareko akatsak ezartzea 2.5000 megavatioko zirkuitulabur-potentzia batekin.

Zentro berriak komunikazioak analizatzeko balioko du sare elektrikoaren bitartez eta sareko perturbazio posibleekin hornidura elektrikoaren jarraipena eta kalitatea nola bermatu aztertzeko.

Iturria: **Diario Vasco** [2012ko irailak 17]

## Kutxabankek 2 milioiko finantzazio-lerro bat ireki du Arabako gazte enpresaburuentzat

Kutxabankek Arabako gazte enpresaburuentzat bi milioi euroko finantzazio-lerro berezi bat jarriko du haien lehiakortasuna hobetzera bideratua

Ekitaldi hori Ajebask Arabarekin berritutako itun baten osagaia da, zeinek gazte ekintzaileei eta enpresak sortzera ekintza bat baino gehiago barne-hartzen baititu. Hori guztia, Arabako garapen ekonomiko eta sozialari eta gaurkoa bezalako abagune ekonomiko zailean enplegua sortzeari ekarpena egiteko helburuarekin.

Iturria: **Expansión** [2012ko urriak 10]



## Befesak planta berri bat ireki du Bilbon

Befesa enpresa bizkaitarrak, gaur egun industri-hondakinak biziklatzen aritzen den Abengoaren sail bat dena, sufrea balorizatzeko planta bat inauguratu du Bilboko Portuan; bertan 70 milioi euro inbertitu ditu eta 35 langileko plantilla izango du.

Befesako instalazioak 120.000 tona hondar-sufre tratatuko ditu eta haiekin 350.000 tona sufre-azido eta haren aldaera den oleum ekoitziko ditu, zein erabiltzen baita sufre-azidoa ekoizteko edo era erraz eta seguruagoan hura garraiatzeko, solido izan daitekeenez gero.

Gainera, planta berri horrek berreskuratze termikoko prozesu bat du, urtean 90.000 MW elektrizitate sortzeko gai dena, eta haietatik heren bat fabrikak berak kontsumitzeko izango litzateke eta gainerakoa, 60.000 MW, salmentarako.

Iturria: **El Economista** [2012ko urriak 18]







## CAFek bi hitzarmen lortu ditu Brasilen 80 milioikoak

CAFi trenak eta trenbide-hornigaiak hornitzeko bi hitzarmen esleitu dizkiote Brasilen guztira 80 milioi euroko zenbateko batekin.

Trenei dagokienez, firmak bakoitzetik lau kotxeko hamar unitate hornituko ditu, Belo Horizonten zerbitzua emango dutenak, 2014ko Futboleko Mundu Txapelketaren egoitza bezala eta 2016ko Joko Olinpiarretako azpi-egoitza bezala izendatutako hirietako bat .

Era berean, CAF Porto Alegre hiriko hamabost tren berrien "bogien"(errodaduren) horniduraz jabetu da, zeina Trensurb, hiriko tren urbanoen enpresarako lortzen ari baita.

Hitzarmen horiekin, CAFek indartu egingo du bere presentzia Brasilen, eta urrats bat egingo du herrialdeko estatu batean baino gehiagotan hedatzeari dagokionez, izan ere dagoeneko baditu hitzarmenak Sao Palon, Recifen eta Cuibán.

Iturria: **20 minutos** [2012ko azaroak 16]

## Basurturen harrotasuna

Best in Class 2012 Sarien epai-mahaiak Basurtuko ospitaleko Kardiologia, Onkologia eta Erreumatologiako zerbitzuak nabarmendu ditu "Best in Class" sariarekin, Espainiako hoberen bihurtuz.

Lehiaketa garrantzitsu horretan parte hartzeko, ospitale-zentroak -nola publikoak hala pribatuak- borondatezko eran aurkezten dira. Madrileko Juan Carlos Errege Unibertsitateko Kudeaketa Sanitarioko Katedrak eta Gaceta Médica argitalpenak finalistak eta irabazlea hautatzen dituzte. Aurtengo edizioa ez da Basurtuk egindako ahalegina saritu duen bakarra. 2008an urteko ospitale hoberenaren saria irabazi eta finalista izan zen hurrengo hiru edizioetan.

Iturria: **El Correo** [2012ko urriak 16]



# Berrikuntza Sistema

## Gobernu-organoak

### BATZORDE ERAGILEA

Maiatzean egindako Batzar Nagusian Innobasqueko Batzorde Eragilea eratu zen, honako hauek partaide zirela: presidentea, diruzaina eta berrikuntzako barruti estrategikoetako 5 presidentordeak (administrazioa, enpresa, zientzia, teknologia eta gizartea), bai eta 9 pertsona garrantzitsu ere lehentasunez jarduteko barrutietan. Organo hori, Innobasqueko (2012-2015) II. Zikloan zeregin protagonista duena, Batzorde Eragileari laguntza emateko jaio da, operatibotasun handiago bat berme etikoa, kalitatea eta erabakitze-lastertasuna emanez.

2012an zehar Batzorde Eragilea 3 alditan elkartu zen, eta honako hauek izan ziren landutako gai nagusiak:

- Innobasqueri esleitutako izaera estrategikoa 2015 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean
- 4 Zuzendaritza Kontseilua abian jartzea
- Innobasqueren balio-ekarpena, bere ibilbidean garatutako 5 ukiezinak nabarmenduz:
  - Kapital sozial eta harremanezkoa balian jartzea
  - Euskal Berrikuntza Sistemaren ELGE diagnosia
  - Sistemaren maila askotako Gobernantza
  - Euskal Berrikuntza Sistemaren estrategiari laguntza
  - Mobilizaziotik berrikuntzaren sozializaziorantz

[2012ko ekainak 18 , irailak 13 eta azaroak 22]




### ZUZENDARITZA KONTSEILUAK

Innobasqueko Batzorde Eragileak 4 Zuzendaritza Kontseilu abian jartzea onartu zuen 2013an zehar:

- Ekoberrikuntza Kontseilua, Asís Canales lider duena, Iberdrolako Erosketa eta Aseguruen zuzendaria
- Gizarte Efiosasungarriko kontseilua, Azucena Castro lider duena, OWLeko zuzendari nagusia
- 4º Sektoreko Kontseilua, Txema Franco lider duena, Lantegi Batuak-eko zuzendari nagusia
- IRTI kontseilua (Innobasque Roundtable of Industrialists), Alberto García Erauzkin lider duena, Euskalteleko presidentea Erauzkin, presidente de Euskaltel

Orientazio-organoak dira gai sorta berezi batzuk edo izaera estrategikoko proiektuak garatzeko, Batzordeko kideek eskuordetutako pertsonek eta lanaren gaietan adituak diren beste pertsona batzuek eratuak.

# Berrikuntzako Euskal Sistemaren jarraipena eta ebaluazioa

Innobasquek honako jokaera hauek garatu ditu, ZTbP2015eko gobernantza-sisteman hiru mailatan sailkatuak:




## 1 maila: “lidergoa eta orientazio estrategikoa””

- Idazkaritza teknikoko lana Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Batzordearentzat, ZTbP 2015 hedatzeaz arduratzen den sail arteko organoa, guztira bost bilera egin dituena 2012an zehar, azken hirurak bigarren seihilekoan [2012ko uztailak 4 eta 24 eta irailak 25]
- Informazioa bildu eta analizatzea Berrikuntza Funtsa 2008-2012 eta hura ZTBEKaren aurrean aurkezteko betearaztearen mailaz [2012ko uztailak 11]
- Berrikuntzako Funts Estrategikoa 2013-2016ren proposamen bat lantzea haren lerro estrategiko nagusiak, laneko azpi-lerroak, proiektu garrantzitsuenak eta aurrekontuak deskribatuz, Euskal Finantza Kontseiluari aurkeztua [2012ko urriak 23]

## 2 maila: “plangintza eta kudeaketa”

- ZTbP2015eko gobernantza-sistemako prozesuen mapa globalaren esparruan, urteko bigarren seihilekoan talentua atzemateko diseinua eta hedapena planifikatzea hasi zen, zehar-lerro eta maila askotako fokatze batekin, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerkuntza Saila lider zela eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren partaidetzarekin






## 3 maila: "jarraipena eta ebaluazioa"

- Informazioa biltzea ZTbP 2015en agintekoadroko adierazleen inguruan, aipaturiko planaren aurreratze-mailaren ebaluazioprozesurako oinarri-balioa izango dutenak

- Berrikuntzako Urteko Txostena hedatzea, euskal enpresek berrikuntzan egindako inbertsio errealak neurtzea ahalbidetuko duena, bai eta jarduerako sektore desberdinetako hazkuntza ekonomikoari hark egindako ekarpena kalkulatzea ere. Proiektu honetan bigarren seihilekoan egindako aurrerapenak honako hauek izan dira:
  - Proiektuaren Batzorde Teknikoaren aldetik kapitulu berri bat txostenean sartzearen onarpena, zeinek jasoko baitu Euskadiko berrikuntzara "ikerkuntza orientatuak eta garapen teknologikoak" egindako ekarpena. Batzordea euskal unibertsitate-sistemako 3 unibertsitatek eraturik dago (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea), 2 korporazio teknologikok (Tecnalia eta IK4), Confebask, Orkestra, Eustat, Etorbizi eta Kronikgune, bai eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari batzuek ere
  - UPV/ EHUko taldearen aldetik iturri estatistikoen identifikazioa, zeinek ahalbidetuko duten sektore pribatuko inbertsioak jasotzea berrikuntzaren ukiezinetan, I+G; diseinua; antolakuntza-hobekuntza; marketing-berrikuntza: software; prestakuntza eta heziketa eta abarretako kategorietan (jabetza intelektuala, copyright, etab...). Alderdi horri berorri buruz inkesta bat diseinatu da, zeinek emango baitu aukera informazio eguneratua jasotzeko gure enpresen aldetik egindako inbertsioen bolumenaz
  - Proiektuaren aurreratze-kontrastea NESTA, "hazkuntzaren kontabilitatea" eta "berrikuntzako ukiezinen" metodologian aditua den berrikuntzako britainiar agentzia
  - Sinnergiak-en (UPV/EHUeko Euskampus ekimenean integratutako berrikuntza sozialeko zentroa) aldetik Euskal Herrirako berrikuntza sozialeko indize baten definizioa, 4 dimentsio bere baitan hartzen dituen eredu batean oinarritua: berrikuntza sozialeko gaitasunak, soziala deneranzko orientazioa, berrikuntza sozialeko jarduera sortzea eta eragin soziala neurtzea. Gainera, landa-lan bati ere ekin zaio enpresa, teknologia-zentro, unibertsitate eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei zuzendua, zeinek ahalbidetuko baitu berrikuntza sozialak Euskadin duen egoera ezagutzea



# Politika publikoetako berrikuntza

## Enpresa-lehiakortasuneko plana 2010-2013

Enpresa Lehiakortasuneko Plana jarraitu eta ebaluatzeko Proiektuaren Batzordeak (ELP), non parte hartzen baitu Innobasquek, Orkestra, Euskalit eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin batera, 100 eragile baino gehiagok egindako ekarpenetatik abiaturik Planaren lehen Jarraipen Txostena landu du. Txosten horrek analisi konparatibo bat barne-hartzen du, Euskal Herriko testuinguru lehiakorreko nazio- eta erregio-mailakoa, bai eta Planak 2010ean egindako aurreratze-mailaren monitorizazioa eta ebaluazioa ere, haren jardute-ardatz bakoitzean:

1. Ekonomia irekia
2. Ekonomia berritzailea, ekintzailea, eta teknologikoki aurreratua
3. Ekonomia jasangarria
4. Jarduera-lerro horizontalak

Gainera, jarraipenaren tarteko lehen dokumentua ere landu da, zeinek bere baitan jasoak dituen 2011 urteko aurreratze-adierazleak, eta 2012rako kalkulu batzuk eta horretarako ELPren jarduerako ardatz desberdin eta lerroen arduradunen ekarpenak hartu dira kontuan, Bernabe Unda, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburua lider izan delarik.

Partaidetza-prozesu honek aukera eman du Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko (teknikariak, zuzendariak, sailburuordeak eta sailburua, bai eta sozietate publikoak) kontzientzia konstatatu eta sendotzeko ebaluazioari buruz ikaskuntza-prozesu bezala, zeinek errazten baitu haren politikak berrikustea aldaketa sozio-ekonomikoetara egokitzeko, bai eta merkatu globaletako joerekin zerikusia duten aukera berri eta mehatxuetara ere.



## Bizitzan zeharreko ikaskuntzako europar proiektua – LABS2LEARN

Proiektua eratzen duten herrialdeetara bisitak egin eta gero (Frantzia, Errumania eta Lituania) eta abian dauden proiektu bakoitza analizatu eta gero, Proiektuaren lider den Prestakuntza Funtsak definitu eta testatu egin du bere erakundearen baitan hautatutako praktika onetako bat.

Ekimena, "Validation of non-formal and informal learning of non-academic staff working at public education institutions" lituaniar proiektuarekin zerikusia duena, Prestakuntza Funtseko langileriaren (non-academic staff) barrutiko gaitasunak



baliozkotze-prozesua burutzea izan da, zeinen emaitzak aurkeztu baitzaizkio proiektuaren azken txostenean Europa Batzordeari.

### Irekitako lan-lerroak

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2015
- Enpresa Lehiakortasuneko Plana 2010-2013
- Bizitzan zeharreko Ikaskuntzako Europar Proiektua – LABS2LEARN
- Lehendakariaren Kontseilua Aholkularia
- Enplegu Estrategia
- XXI. Mendeko Udalerria
- Immigrazioaren aldeko Ituna
- Landa barrutiko emakumeak
- Berrikuntza eta hiritarren partaidetza tokiko politika publikoetan

## Immigrazioaren aldeko itun soziala

Gemma Zabaleta, Enplegua eta Gizarte Gaietako sailburuaren aldetik Immigrazioaren aldeko Itun Sozialeko azken dokumentuaren aurkezpen publikoa, non definitzen baitira oinarrizko lerroak, zeinek eratzen baitute abiapuntu bat lanabesak, proposamenak eta ekimenak garatzen jarraitzeko itunean begiztatzen diren printzipioak, era errealista eta eraginkorrean, praktikara eramatea ahalbidetzen dutenak. Ekitaldian, adituen batzordeko kideek, itunaren idazkuntzaren arduradunek haren testua irakurri zuten, gainera barruti hartan Euskal Herriko erakundeek beren gain hartu behar zituzten konpromisoen dokumentu bat.

Immigrazioaren aldeko Itun Soziala debate-prozesu baten azken emaitza da, 300 euskal erakunde baino gehiagotakoak diren 400 pertsona baino gehiagok burutua, zeinek parte hartu baitute hiru hiriburuetan garatutako zenbait saiotan, bai eta Berriz, Ermua eta Eibarko udalerrietan ere. [Bilbo, 2012ko azaroak 22]

# Enplegu estrategia. Euskadin enplegua sortzeko ekintzak

Innobasquek, enpleguaren barrutiko eragile desberdinekin batera, proiektu bati ekin dio Euskadin enplegua sortu eta mantentzen lagundu dezaketen ideiak definitu eta proposatzeko asmoarekin.

Taldeak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu Saila, Garapen, Confebask, Orkestra, Novia Salcedo Fundazioa, Taldeka Aholkulariak, Cidec, Euskalit, eta norbanako-mailako pertsonek eratua azken dokumentuan jasotako gaian sakon eztabaidatu dira, zeinetan finkatzen baitira enplegua sortzeko ideiak eta lehentasunak, 4 barruti oso zehatzetan emaitzak zentratuz, nahiz eta izaera oso zabalekoak diren:

- ekintzailetza
- empleguak berreskuratzea eta enpresetan sor dagoen langabezia
- bitartekaritza
- zehar-lerro izaerako ekintzak: gazteak eta ahalmena duten sektoreak

Ondorioen dokumentua Eusko jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko arduradunei helarazi zaie.

# Berrikuntza eta hiritarren partaidetza tokiko politika publikoetan

Innobasqueko Gobernantzako i-Taldea egiten ari den ikerkuntzaren esparruan, UPV/EHUrekin lankidetzan, politika publikoetan hiritarren partaidetzaren operatibotasun, ezargarritasun eta errendimendu, erreal eta eraginkorra hobetzeko helburuarekin, eta haren balio erantsia ustiatzeko, 2012ko azken seihilekoan zehar, landa-lan bat burutu da, eta bertan espainiar lurraldean garatutako partaidetza-prozesu bat baino gehiago aztertu dira. Halaber, proiektuaren azken faseari ere ekin zaio emaitzen azterketa eta azken argitalpena lantzea barne-hartzen dituena (bigarren belaunaldiko praktika onen eskuliburua).







# XXI. Mendeko udalerria

Eudel eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak eskatutako proposamena amaitu eta aurkeztea erakunde arteko topaketarako gune bat eraikitzeko, honetarako aukera emanez:

- Berrikuntzarekin zerikusia duten baloreak eta jarrerak hedatu eta sustatzeko euskal udalen egituran
- Tokiko Berrikuntzako Agenden eragina euskal udalerrien artean indartzeko.
- Balorean jartzea eta Euskadiko udal guztien eskura orain arte lortutako emaitzak
- Euskal udalerri berritzaileen topaketa-foro bat eratzeko, zeinetatik aukera izango den esperientziak trukatu eta barruti horretako azken aurrerapenekin kontaktuan egoteko
- Europar mailan euskal udalen sarea berrikuntzaren barrutian kokatzeko [2012ko azaroak 27]

# Landa barrutiko emakumeak

Landa Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu zelako, joan den urrian, topaketa bat antolatu zen eta bertan landa-barrutiko 150 emakumek baino gehiagok parte hartu zuten.

Nekazaritza eta Abelazkuntzako zuzendaria den Pilar Santamaria, Urduñako alkatea den Carlos Arranzez gainera, jardunaldian Marcela Legardek parte hartu zuen, Antropologian doktorea eta N.B.E Emakumeak-eko Aholkularia, "Erantzunkidetasuna eta zaintza landa-ingurunean genero-berdintasuna lortzeko bide bezala" hitzaldiarekin.

Hitzaldi hura zehar-lerroko ardaztzat harturik, 4 tailer parte-hartzaile egin ziren bertaratutako emakumeekin, honako gai hauei ekinez:

- Zer dira zaintzak?
- Emakumeak eta zaintzak
- Gizonezkoen eta emakumezkoen akordioak zaintzarako
- Zaintzarako baliabideak

Tailerren helburua honako hau zen: denboren banaketa berdinago batek erantzunkidetasuna familiako kide guztiei, eta ingurune hurbilagoari ere mesede egingo dien errealitate izatera irits daitekeelakoa agerian jartzea. Tailer horien emaitza bezala, ekarpen eta gogoeta batzuk jaso ziren Landa Ingurunea erantzunkideago bihurtzeko, nola maila pertsonalean hala lanbidekoan. [Urduña, 2012ko urriak 15]



## European voices for active ageing

"Zahartze Aktiboaren aldeko Europa Ahotsak" proiektuaren azken fasea hasita, Zakartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Europa Urtearen esparruan, zeinen barruan Innobasquek bultzatu baitu Bilboren partaidetza beste europar 5 hirirekin batera: Estrasburgo, Bonn, Praga, Bologna eta Londres. Proiektuak helburu bikoitza zuen: 50 urtez gorako pertsonei gizartean aktiboki inplikatzeko aukera eskaintzea eta europar hiritartasunaren haien zentzua garatzea kultura arteko elkarrizketaren bitartez, eta zahartzearekin zerikusia dute politikei gomendio zehatzak egitea (tokiko, nazioko eta Europako mailan).

Hartara, proiektuaren batzorde zuzendaria, 6 hiri parte-hartzaileetako ordezkariek eratua joan den azaroan bildu zen Munichen 6 world kafeetan lortutako emaitzak aztertzeko helburuarekin, eta emaitza horietan oinarriturik, ondorioen, zuzentarauen eta politiken dokumentua lantzeko Zahartze Aktiboaren barrutian Europa Batzordeari helaraziko zaiona, eta datozen hilabeteetan eskuragarri egongo dena jendaurrean hedatzeko. [Munich, 2012ko azaroak 12-14]

## ALBISTE IZANGO DA

- Urteko Berrikuntza Txostenaren aurkezpena [1° seihilekoa]
- Gogoeta-prozesuko ondorioen aurkezpena landa-ingurunea arduratsuago bihurtzeko [2013ko 1° seihilekoa]
- "Zahartze Aktiboaren aldeko Europa Ahotsak" europar proiektuaren ondorioak hedatzea [2013ko 1° seihilekoa]
- Tokiko politika publikoetako berrikuntza eta partaidetzari buruzko azterlanaren emaitzak aurkeztea [2013ko 1° seihilekoa]

## Europako Batasuneko gomendioen laburpena zahartze aktiboa sustatzeko

Babes Sozial eta Enpleguko batzordeek hitzartutako Printzipio Orientatzaile bakoitzak (*) Europa Urtean zehar sutatutako zahartze aktiboaren hiru dimentsioetako baten aipamena egiten du: enplegua, gizarteko partaidetza eta bizitza independentea.

**Enplegua:** Orientazioak hezkuntza eta prestakuntzaren ildotik doaz, lan-baldintza osasungarriak, adinaren kudeaketa-estrategiak, adineko langileentzako enplegu-zerbitzuak, adinarengatiko diskriminazioaren prebentzioa, zerga-sistemak eta enpleguaren aldeko onura faboragarriak, esperientziaren transferentzia, lanaren kontziliazioa eta osasunaren zaintza.

**Gizarteko partaidetza:** Diru-sarreren segurtasuna, inklusio soziala, senior boluntariotza, bizitzan zeharreko ikaskuntza, erabakiak hartzen parte-hartzea, zaintzaile informalentzako zaintza.

**Bizitza independentea:** Osasuna sustatu eta gaixotasunak prebenitzea, etxebizitzak eta zerbitzuak egokitzea, garraio irisgarri eta eskuragarria, giroa eta adinarekiko ondasun eta zerbitzu atseginak, iraupen luzeko zaintzan autonomia maximizatzea.

2012 (17468/12) Europar Urteari buruzko Kontseiluaren aitortzari atxikitako Printzipio Orientatzaileak ez dira aginduzkoak, eta horregatik aginte nazional, erregional, hiri, enpresa, sindikatu, gizarte zibileko erakunde eta beste batzuen zeregina da haietaz baliatzea haien egoera bereziaren eta erronken arabera.

*(*) 2012ko abenduaren 6an Europako Batasuneko Kontseiluak hartuak*



## EMAITZAK

- Enpresa Lehiakortasun Planaren Jarraipeneko lehen Txostena lantzea
- Immigrazioaren aldeko Itun Sozialaren azken dokumentuaren aurkezpena [2012ko azaroak 22]
- Landa Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzea [2012ko urriak 15]

# I+G+b sistemaren nazioartekotzea

Haren xedea enpresak beren nazioartekotzearen ibilbidean laguntzea da Eteak europar funtsetarako irispidean bermatuz.

## “Europako I+G VII Esparru Programa eta 2020 Ostertza: lankidetza-aukera berriak I+G+b-n” Jardunaldia

Enterprise Europe Network (EEN) sarearen euskal nodoak antolatua, Eusko Jaurlaritza, Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroa (GTIZ) eta Europa Batzordea, jardunaldi honek ikerkuntza-lerroak ezagutarazteko gune bezala balio izan du, zeini Europa Batzordeak esleitu baitizkio I+G-eko nazioarteko lankidetzarako VII. Esparru Programako azken 9.000 milioi euroak. Gainera, topaketan zehar 2020 Ostertza programa berriaz ere informatu zen, zeina 2014an hasiko baita, eta 80.000 milioi euroz hornitua izango baita.

Goizean zehar, 500 pertsona baino gehiago izan ziren saio berriemailean, eta bertan aurkeztu zen “Euskal I+G+b-a Europan Koaderno Estrategikoaren” eguneratzea, eta eduki teknikoa eta enpresek eta ikerkuntzako beste eragile batzuek parte hartzeko oinarriak zehaztu ziren VII. Esparru Programako azken deialdi irekietan.

Arratsaldean lan-gune bat eskaini zen euskal enpresek lehen eskutik ezagutu zezaten, alde biko topaketen bitartez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileak (korporazio teknologikoak, unibertsitateak, IKZak, enpresa- I+G-eko unitateak, etab.) zer ikerkuntza-lerro eta proiektutan lanean ari ziren. Topaketa horiek partaidetza-arrakasta handia izan zuten, 187 bilera egin zirelarik, zeinetan 156 pertsonak parte hartu baitzuten, 55 euskal enpresak eta 80 baino gehiago erakunde ikertzailek eta unibertsitate-departamentuk.

[2012ko uztailak 3]






## “Euskal I+G+b-ko Koaderno Estrategiko” eguneratuaren aurkezpena

lehen aldiz 2006an argitaratua, “Euskal I+G+b-aren Euskal Koadernoa Europan”, 2012an eguneratu da honako helburu hauekin:

- Euskadiren iragana, orainaldia eta geroa ulertzea I+G+b-ko Europa Programetaranzko bere ibilbidean
- euskal erakundeen partaidetzako emaitzak xeheki aurkeztea 2007-2010 aldian, I+G-eko VII Europa Esparru Programak eta Lehiakortasuna eta Berrikuntzako Europar Esparru Programak (CIP) finantzaturiko nazioarteko lankidetza-proiektutan
- partaidetza-helburuen plangintza eguneratzea honako bi programa hauetan 2011-2013 aldirako

Koaderno honek jauzi kualitatibo oso garrantzitsua dakar, zeren eta Esparru Programatan itzulkinak atzematen zentraturiko ikusmoldea gainditzeko asmoa baitu, Europan garatutako I+G+b-ko helburu estrategikoekin Euskal Herrian garatutako ikerkuntza lerrokatzea bilatzen duen beste bat haren ordez ezarriz. Ahalegin horretan eragile guztiak konprometitzen dira, halako moldez non Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemak kokaguneetan gora egingo baitu Ikerkuntzako Europar Gunean dagokiona beteko duen arte, gure industriak indar-gune nabariak dituen teknologia-barrutietan lider izanez, eta jarduera ekonomikoko sektore berriak sartzeko bidea prestatuz, zeinek, datozen urteetan, gure industria-ehuna indartuko baitute. [2012ko uztailak 3]

# ERA-NET

### M-ERA.NET

M-ERA.NETen lehen deialdia abiaraztea, zeinek eskaintzen baitie euskal erakundeei ikerkuntzako nazioarteko proiektuetan parte hartzeko aukera materialen teknologia eta ingeniaritzan eskala makro, mikro eta nanoan. Nabarmentzekoa da deialdi horretan Europako Batasunaz kanpoko herrialde batzuk erantsiko zaizkiola, hala nola Taiwan.

Joan den azaroko 27an aurre-proposamenen entrega itxi zen, 11 eskaera jaso zirelarik Euskal Herriko 15 erakunderen partaidetzarekin. [2012ko irailak 20]

### 8º EuroTransBio Deialdia

8º EuroTransBio Deialdia (ETB) irekita da, europar herrialde eta erregioen arteko I+G+b-ari programak eta laguntzak koordinatzen dizkion ekimena Eteen eta haien bazkideen (teknologia-zentroak, unibertsitateak eta enpresa handiak) artean nazioz gaindiko mailan I+G+b-n lankidetza estimulatzeko xedearekin. Bioteknologiaren eremuan.

Fase bakarra duen deialdiak proposamenak onartze-epea urtarrilaren 31n itxiko du. Aurten Errusiaren partaidetza da nabarmentzekoa, izan ere lehen aldiz batzen zaio ekimenari. [2012ko urriak 4]

### Kick-off meeting ERA-NET Garraioa

ERA.NET proiektuko hirugarren fasearen hasierako bilera egin delarik garraioan, zeinean Euskadi lehen aldiz parte hartu baitzuen. Bileran, EVE eta Innobasquek parte hartu zutelarik, Euskadiren ordezkari gisa, datozen hiru urteetako helburuetan lan egin zen, bai eta 2013an irekiko den lehen deialdian eta bi gai nagusitan zentratuko dena: "vehicle technologies" eta "traveller of the future". [Brusela, 2012ko azaroak 12 eta 13]



### "ERA-NET Deialdiak 2013 Jardunaldia, I+G proiektuak nazioarteko lankidetzan"

Bilboko Iberdrola Dorrean egin zen Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila eta SPRIrekin lankidetzan, jardunaldi horrek 170 erakunde bertaratzea lortu zuen, gehienak enpresak, teknologia-zentroak eta unibertsitateak.

Topaketan, zeinetan ERA-NET lanabesaren eta haren deialdien berri eman baitzen euskal enpresak I+G+b-ko proiektutan partaidetza sustatzea zuen helburu nazioz gaindiko lankidetzan. Ildo horretatik, Valonia Erregioko Kontaktuko Nazio Puntuaren (KNP) partaidetza izan zuen, zeinek aurkeztu baitzituen erregioaren lehentasunak eta euskal enpresekin lankidetzan aritzeko zituzten ahalbideak.

Bai KNPen Centre Spatial de Liège - Université de Liègeko bazkide bezala - proiektu-ideia posible batzuk aurkeztu zituzten, zeinetan euskal enpresekin lankidetzan aritzea interesatuko zitzaiekeen.

Berritasun bezala, jardunaldi berriemailearen ondoren, gune bat bideratu zen erakundeek harremanak ezar zitzaten euskal erakundeekin eta, batez ere, bertan zeuden valoniar erakundeekin. [Bilbo, 2012ko azaroak 20]



## EMAITZAK

- "Euskal I+G+b-aren Koaderno Estrategikoa Europan" eguneratzearen aurkezpena [2012ko uztailak 3]
- "ERA-NET Deialdiak 2013 Jardunaldia, I+G proiektuak nazioarteko lankidetzan" [2012ko azaroak 20]

## ALBISTE IZANGO DA

- Deialdi berriak irekitzea I+G-ko proiektu-proposamenak aurkezteko hemen: MANUNET (fabrikazio aurreratua) eta LEAD ERA (e-Health, energia berriztagarriak, eraikuntza jasangarria, birziklatzea, bioproduktuak eta babes-ehunkiak [2013ko urtarrila]

# 5 gako ....

# BERRIKUNTZA IREKIA ZEURE ERAKUNDEARI ERANSTEKO



**Rogelio Pozo,**
AZTI-Tecnaliako
zuzendari nagusia

## 1

**Zure erakundeko negozioaz gehien dakiten pertsonak ez direla haren parte** konturatzea funtsezkoa da zeure prozesuak eta zeure erakundea beste pertsona eta erakunde batzuen ezagutzara irekitzeko. Ideiarik hoberenak non-nahi daude eta enpresek kanalak ezarri behar dituzte beren negozioari balorearen ekarpena egin diezaioketenak aurkitu eta atzemateko, hasi produktu-ideia berriak aurkitzetik bezeroekin harremanetan jartzeko modu desberdinetaraino. Mundu interkonektatu batean bizi gara eta hori aukera bat da mundu guztiko pertsona eta erakundeetara iristeko.

## 2

**Zenbat eta eskuzabalago izan partekatzen hainbat ezinbestekoago bihurtzen zara.** Egiozu balorearen ekarpena zeure negozioari eta produktuei diseinutik salmenta osteko ideietaraino ideiak eta ezagutza erantsiz zeure balio-kateko eragile desberdinengandik, zeren eta zure produktuaren eta zerbitzuaren zehaztapenak guztien ezagutzaren batura baitira

## 3

**Berrikuntza-prozesuak azeleratzea “time to market” murriztuz inoiz baino funtsezkoagoa da.** Murriztu denbora eta kostuak, atzeman konponbideak eta ideia berritzaileak zeure erakundetik kanpo behar dituzun ezagutza eta baliabide funtsezkoak dituzten aliatuak bilatuz bezeroentzako zure balore-proposamena benetan desberdina eta lehiakideena baino hobea izan dadin.

## 4

**Arakatu beste negozio batzuk eta txertatu zeure prozesuetan beste sektoreetako teknologiak zure sektorean errotiko berrikuntza eragingo dutenak.** Beste balio-kate edo negozio batzuen ezagutza konbinatu edo integratzeak errotiko jauziak egiteko aukerak eskaintzen dizkigu bezeroei egiten dizkiegun balore-proposamenetan, desberdintzen laguntzen digu eta era garrantzitsuan aurrera egiten produktuetan eta negozio-ereduetan.

## 5

**Beti da merkeago eta errentagarriago lankide izatea zeure etsaiarekin haren aurka lehiakide izatea baino.** Dena da egingarria, kontua zeure buruari proposatu eta aukera guztiak pentsatzea da. Zabal itzazu zeure lokarriak, arakatu eta inplementatu ezagutza berria txertatzeko aukera guztiak zeure erakundean, hornitze – edo logistika-kostuak merkatu, aktibo produktiboak espezializatu, nazioarteko merkatu berrietara jo ezazu, etab.

# Dinamizazioa

Sistemako eragile guztien partaidetza eta lankidetza sustatzeko, zehar-lerro izaerako berrikuntza-ekimen eta/edo -proiektuak identifikatzea errazteko eta aldaketa sozio-ekonomikoko prozesuak azeleratzeko gizartean. Gaur egun abian dauden eraldatze-dinamikak honako hauek dira: Eko-berrikuntza: Gizarte Efiosasungarria eta Bizi Kalitatea; Laugarren Sektorea eta Enpresak Azeleratzea.

Halaber, barruti honetan agertoki berriak begiztatzen dira, makro-joera berriak, zeinetan Innobasque Euskal lehiakortasuna hobetuko duten aukeren bila lerrokatzen baita sarean lan eginez, Gipuzkoa Berritzen, Arbela, Esp@ Sarea, Adimen Emozionaleko Partzuergoa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea eta Iñaki Goenaga Teknologia Zentroen Fundazioarekin.

## Ekonomia Ekoberritzailea Dinamika

Euskadin ekonomia ekoberritzailea bultzatzeari ekarpena egiteko helburuarekin. Innobasquek hiru lerro estrategiko definitu ditu:

**1. Proiektu egituratzaileak sustatzea.** Helburua: eragile eta sektore askoko ekimenak identifikatu, diseinatu eta sustatzea ekoberrikuntza barruti berezi batean sartzeko jarduera-arlo bat baino gehiago ezarriz. (adibidez, energia, garraioa eta eraikin jasangarriak hirietan).

**2. Sektore eko-berritzaileak dinamizatzea (EKOmunitateak).** Helburua: eragile eta sektore askoko ekimenak identifikatu, diseinatu eta sustatzea jarduera-arlo jakin batzuk eraldatzeko (EKO-munitateak) ekoberrikuntza-irizpideak sarraraziz: eko-teknologia, prozesu berdeak, enplegu berdea, ingurumenarekiko errespetutsuak diren zerbitzuak, etab.

**3. Eskaria aktibatzea.** Helburua: baldintza egokiak ezartzea sustatu eko-berrikuntzako eskari publiko eta/edo pribatuarentzat esparru egonkorra sortzeko.

Jarduera horren kudeaketa gainera Euskal Herriko Ekoberrikuntzako erakunde nagusiek eratutako Aditu Batzorde baten aholkularitzapean burutzen da.

### SOUTHERN EUROPE'S CLEANTECH HUB

### Eko-berrikuntzako Aditu Batzordea

2012ko bigarren seihilekoan Eko-berrikuntzako Adituen Batzordeak 3 topaketa izan ditu eta haietan honako auziak landu dira:

- Cleantech Groupe-ren aldetik Cleantech Forum Europe 2013ren helburuak eta lan-plana aurkeztea, apirilaren 16tik 18ra Bilbon egingo dena, Southern Europe's Cleantech Hub bazkide estrategiko duela
- Hub-ak Cleantech Forum Europe 2013n garatu beharreko edukiak definitzea, eta naziotik eta nazioartetik bertaratuko direnen hautespen-irizpideak identifikatzea
- Southern Europe's Cleantech Hub-en laneko 3 talde abian jartzearen onarpena; Marketing eta Kokamendua; Dinamizazioa; eta Inbertsioa eta Finantzazioa, kokamendua, dinamizazioa eta inbertsio- sarearekiko ekintzak garatzeko, hurrenez hurren
- Hub-aren definizio estrategikoko lanen hasiera eta haren kokamendu lehiakorrerako balore-proposamenaren aurkezpena

# Kokamendu-ekintza

Marketing eta Kokamenduko Lan Taldearen helburua Southern Europe's Cleantech Hub ekimenaren kokamendu lehiakorra eraikitzeko ekarpena egitea da, teknologia garbien merkatu globalean haren bazkideen presentzia bideratuko duena. 2011ren urritik ekimena lanean ari da eta enpresa-topaketatan parte hartzen haren kokamendua indartu eta sendotzean aurrera egiteko, nola tokiko hala nazioarteko mailan. Ildo horretatik, garrantzizko lehen mugarria IX. Cleantech Forum Europa bereizgarri bat egitea bermatzea da eta Hub-eko bazkideek ezarritako itxaropenak beteko dituena.

• **Cleantech Forum Europe 2013**

Bilbok harrera egingo dio 2013ko apirilean Cleantech Forum Europeren bederatzigarren edizioari, zein baita nazioarteko enpresa-topaketa bat teknologia berrien berrikuntza fokatua, duela zortzi urte hasita Europako hiri nagusietan egiten duena Cleantech Group® nazioarteko konpainia ospetsuak.

Innobasquek eta haren bazkide-sarea aktiboki ari da lehen mailako enpresa-




topaketa hau antolatzen, zeinek balioko baitu negozio-aukerak azeleratzeko teknologia garbietako berritzaileen eta tokitik eta nazioartetik bertaratuko direnen artean. Forumean parte hartzeak bertaratuen esku jarriko du Cleantech-en erreferentziako teknologia-garapen europarrekin konektatzeko aukera, nazioarteko inbertsio-ehun garrantzitsu baterako irispidea izatea, bai eta zubi bat aktibatzea Europa eta Latinoamerikaren artean, Euskal Herriaren eta bertako erakundeen bitartez.

Burututako ekintzak:

- Taldearen lau lan-mahai egitea, edukien diseinu, garapen eta exekuzioan aurrera egiteko, ezarritako lehentasunen arabera, stakeholder garrantzitsuak aktibatzea eta komunikazio-kanpaina diseinatu eta betearaztea
- Cleantech Forum Europe 2013 aurkeztea madrildar komunikabideen aurrean [BBVAren Berrikuntza Zentroa, 2012ko azaroaren 20]
- Kontaktuen hasiera Europaren hegoaldeko cleantech-ekin zerikusia duten beste eragile batzuekin (Rhône-Alpeetako Lehiakortasun-poloa, Espainiako Frantses-Enbaxada, Cambridge Cleantech) eta herrialde latinoamerikarrak (Mexikoko Sinaloa Estatua)

• **Cleantech Openen I. European Investor's Connect** Innobasquek lankidetzan antolatua Pinno, Arabako Teknologia Parkea eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin. Innobasquek, bigarren urte jarraituan, lan egin du izaera europarreko topaketa batean biltzeko cleantech barrutiko start-upak eta korporazio handiak, venture capital, Business angels etab. teknologia garbien proiektu berritzaileak bultzatu eta haien ekosistema sendotzeko. [Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriak 18 eta 19]



## Dinamizazio-ekintzak

Ahalmen handiko cleantech proiektuak identifikatzeko prozesu bat finkatzeko helburuarekin, honako ekintza berezi hauek burutu dira:

- Ezagutza-antena/nodozko sare bat eraikitzen hastea enpresa-proiektu berriak identifikatu eta aberasteko. 48 eragile lehen fasean identifikatuak
- 50 proiektu berritzaile, tokikoak eta estatukoak (%25), identifikatzea energia garbian

# Eko-Berrikuntzako kasuak eta azterlanak

> **"Eko-berrikuntza Hiri Konponbideetara bideratua"** Kasuen Gaikako Azterlanaren barruan, bi kasu berri daude prestatze-bidean, **Eroski "Eko-diseinu efizientea kontsumitzailearengana bideratua"** eta Gasteizko Udala **"Green Capitalaren hiri-eraldaketa"**

## Inbertsio eta Finantzazio Sarea: Cleantech iNNvest

Sareko bazkideen negozio-aukerak inbertsioa eta finantzazioa maximizatzeko misioarekin eratzen da sarea balio erantsi handiko, hazkuntza globaleko ahalmen eta errentagarritasuneko enpresa-proiektu berritzailetan. Hura abian eta funtzionamenduan jartzeko burututako ekintza bereziak honako hauek izan dira:

- Cleantech iNNvest, proiektu berritzailetan inbertitzen duten tokiko 12 bazkidek osatutako sare berriaren praktika onen eta 2013 ekintza-planaren kodea lantzea (industria-korporazioak, inbertsio- eta finantzazio-erakundeak eta erakundeak)
- 15 proiektu sarera ematea haien analisi eta kudeaketarako

## ERAIKUNTZA JASANGARRIA

- Eraikuntza Jasangarriaren Ibilbide Orria jendaurrean kontrastatu eta aurkezte-prozesuaren garapena: Bultzatu 2025 eta dagokion argitalpena [2012ko uztailak 11]




- Enplegu Plan bat lantzea erakintza jasangarriari atxikia lanbide eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin
- Proposamen bat landu eta aurkeztea 2013-2016 Berrikuntza Funtsari
- Proiektuaren 2013 Ekintza Plana lantzea eta EAEko adituekin kontrastatzea Eusko jaurlaritzari diru-laguntzaren eskaera kudeatzeko
- Lan-taldean parte hartzea erosketa publiko berritzaileko prozedura definitzeko ZINZa eraikitzeko (Zahartzearen Ikerkuntzako Nazio Zentroa)

o I+G-ean Berrikuntza Estrategiaren diseinua abian jartzea Eraikuntza Jasangarrian IDOMekiN lankidetzan

o Azterlan bat egitea Hurbiltasuneko Bulegoak identifikatu eta diseinatzeko Gerardo Ruiz de Palomeque estatu-adituarekin lankidetzan

o REVIVE proiektu onartuak aberaste-prozesu bat eratzea

## EMAITZAK

- Marketing eta Kokamendua; Dinamizazioa; eta Inbertsio eta Finantzazioa taldeak sortzea
- 15 proiektu berritzaile Cleantech iNNvest sareak analizatuak
- Eraikuntza Jasangarriko Ibilbide Orriaren Aurkezpena: Bultzatu 2025 [12ko uztailak 11]
- I. European Investor's Connect de Cleantech Open [Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriak 18 eta 19]
- Cleantech Forum Europe 2013ren aurkezpena komunikabideen aurrean [Madril, 2012ko azaroak 20]
- Eraikuntza jasangarriari atxikitako Enplegu Plana lanbiderekin eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin

## ALBISTE IZANGO DA

- Cleantech Forum Europe 2013ren aurkezpenerako enpresa-topaketa Madrilen [Deusto Business School, 2013ko otsailak 28]
- Cleantech Forum Europe 2013 [Bilbo, 2013ko apirilak 16-18]
- Cleantech now!, hartzaile gazteengana bideratutako teknologia garbiak sozializatzeko jardunaldia [Bilbo, 2013ko apirilak 19]

# Gizarte Efiosasungarria eta Bizi Kalitatea Dinamika

Ekintza aldi bereko eta koordinatua 4 jarduera-barrutitan (elikadura eta bizi-ohiturak, zahartze aktibo eta osasungarria, kronikotasuna, eta teknologia sanitarioak), zeinek aktibatzen baitu osasunaren balore-konstelazioaren parterik handiena, eta era garrantzitsuan aurrera egitea ahalbidetzen baitu 3 helburutan:

- gehiago eta hobeto bizi izan
- balio ekonomikoa sortu ingurunean
- sistema sozio-sanitarioaren jasangarritasunari lagundu




## INNOBASQUE-REN EGINKIZUNA

- **Inguruneak sustatu** non erakunde publikoak eta pribatuak, pertsonak eta komunitateak lankide izango diren ekimen berritzaileak definitu, garatu eta ezartzen elkarlanean
- **Lan egin osasunaren** balore-konstelazioa eratzen duten eragile desberdinen artean eta haien bitartez
- **Ikuspegi desberdinak** dituzten eragileen artean lankidetza sustatu, negozio-ideia eta fokatze berriak abian jartzea atzeman eta azeleratzeko

## ELIKADURA ETA BIZI-OHITURAK

Elikadura barrutiari bi ikuspegitatik ekin zaio:
- gizarte osasungarrirako elikadura: **Gosasun**
- herrialde osasungarrirako elikadura: **Katilu**

### Gosasun

Mugimendu sozio-ekonomikoa bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko elikaduran, jarduera fisikoan eta osasun emozionalean.

- "Gosasun zigilua" ematea honako hauei: Barrenetxe, Super Amara, Delta Taldea, Comunícamelo eta On Estrategia, "Zeure bizkar-zorroan ogitarteko bat egunero" ekimenarengatik
- Tailer bat egitea Gosasun-i atxikitako 55 eragileren artean (osasuna sustatzen lanean ari diren erakunde publiko eta pribatuak) praktika onak partekatu eta ekimenak hedatzeko, lankidetza-proiektuen bitartez beste ingurune batzuetara, esaterako eskola-barrutira, zeinean lan egiten baita gaur egun [2012ko abenduak 12]
- Soslai bat sortu Twitter-en (@gosasun), non jarrai baitaiteke Gosasun mugimenduaren jarduera guztia
- Lan-plan bat garatzea Osakidetza, Osteba eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoarekin, alde batetik, sistema sanitario eta beste eragile publiko eta pribatu batzuen aldetik abian jartzen ari diren ekimen guztien ahalmena ustiatzeko, eta bestetik, ebaluazio-kultura barruti horretara hedatzeko, zeinek ahalbidetuko baitu ezarritako neurrien eraginkortasuna egiaztatzea

Ildo horretatik Sanofirekin lanean ari dira nazio-mailan burututako azterlan batetik eratorritako informazioa eta ezagutza ustiatzeko elikaduraz eta arrisku kardio-baskularraz, eta hartara proiektu-adierazleak izan Gosasun mugimenduari ezartzeko aukera emango digutenak.

## Katilu



Innobasquek sortutako ekimena, Hazi, Neiker eta Aztirekin batera, lankidetza-berrikuntza sustatzera bideratutako guneak eta dinamikak sortzeko helburuarekin, garapen jasangarriko fokapen batekin, nekazaritza eta elikadurako sektorean eta landa- eta kostalde-ingurunean, eta erakundeen gaitasun berritzailea sustatzera.

2012 jarduera-planaren esparruan, seihilekoan zehar honako ekimen hauek burutu dira:

- Euskadi Digital Nekazaritza eta landako idazkaritza tekniko bezala, ADAR 21erako proiektuen talde liderraren koordinazioa eta dinamizazioa (Agenda Digital Nekazaritzako eta Landakoa)
  - **Agenda Digital Nekazaritzakoa**: gaitasun digitalen programa abiarazteari bulkada ustiapen-koadernotik abiatuta
  - **Landako Euskadi Sarean**: 4 proiektuen lan-taldeekin topaketak
    - PER. Landa Euskadiren Plataforma
    - Negozio elektronikoa
    - Erreserba-zentrala
    - Idiazabal Unibertsoa

- Proiektu estrategikoen sustatzaile eta arduradun bezala Katiluk 2 lerro garatu ditu:
  - Animalia-elikadura EAEn abere-ekoizpen jasangarri baterako (Eusko Jaurlaritza eta aldundien proposamenez) non burutu den eragileak ezagutu eta ekimenak eta esperientziak identifikatzeko lehen tailerra
  - Elikadura osasungarri eta jasangarriko estrategia, eta berrikuntza-aukerak erlazionatuak, zeinean burutu baita beste herrialde eta erregio batzuetan estrategia definitu eta ezarrien benchmarking bat

- Dagoeneko badiren lankidetzako proiektuak aberaste-barrutian honako hauetan parte hartzen da:
  - **Food Links** elikadura jasangarriko hiri-estrategien diseinurako. Europar proiektu honetan, zeinean Neiker-ek bazkide bezala parte hartzen duen, Katiluk komunitateak dinamizatzeko dinamizazio-metodologiaren ekarpena egiten du
  - **ProIzki 2015** habitatak eta Tokiko Komunitate Intereseko (TKI) Izkiko (Araba) espezieak zaharberritu eta kontserbatzeko ekimen sinergikoen konexioa eta koordinazioa lurralde-mailan. Proiektu-taldea aurkitzen partaidetza
  - **OnEqin** euskal nekazaritzako elikagaien sustapena eta hedapena Euskadiko Nekazaritza-turismo eta Landa-etxeen Sarearen bitartez. Katiluk Nekatur eta Haziren taldeari gogoeta-dinamiken ekarpena egiten dio label produktua eta tokikoa eta hurbilekoaren hedatze-pilotuaz nekazaritza-turismoetan
  - **Inagrosalute Alava**. Katilutik dinamika eta metodologien ekarpenak egiten dira Arabako nekazarien prestakuntza-beharrak identifikatzeko tailerretarako eta proposamenak prestatzeko lankidetzan 2013rako
  - **Basque Cheese Sales**. Idiazabal jatorri-izendapena duen gazta ekoitzi eta merkaturatzen espezializatutako taldeko ekipoa diseinatze- eta prestatze-fasean laguntza eta dinamizazioa
  - **Idiazabal J.I.** 25 urteren ondoren ziklo berri baterako gogoeta estrategikoa diseinatzeko laguntza
  - **PDRS2014-2020**. Landa-garapen jasangarriko programa 2014-2020 Nekazaritza Politika Komunerako
  - **Landa-emakumeak**. Lankidetza prestakuntza-programa batean landa-inguruneko eta nekazaritza-elikaduraren sektoreko enpresaburu talde batentzat
  - **Life-Ordunte** habitatak eta Ordunteko (Bizkaia) Tokiko Komunitate Intereseko espezieak zaharberritu eta kontserbatzeko. Laguntza dinamika parte-hartzaileak diseinatzeko bioaniztasuneko eragileen eta lurraldeko eragileen artean

- Fokapen eta esperientzien argitalpen digitala lantzea, "Ondasun komunak kudeatzerako hurbilpen bat eta erakunde kolektiboak EAEko lehen sektorean" proiektuko bideo dokumentalak, garapen sozio-ekonomikoaren hautabidezko eredu bezala nekazaritzako elikadura eta landa-inguruneko sektorean

- Berrikuntzako gaitasunak garatzeko jardueren plangintza sektoreko eragileengan, zeinak 2013an zehar burutuko diren

- "Katilu kasuaren prestakuntza Innovanet Sarerako

- Kataluniako Generalitat-eko Nekazaritza Saileko Ikerkuntza, Berrikuntza eta Transferentziako Planaren Aditu Batzordean parte hartzea

## KRONIKOTASUNA

Kronikoen Sarearen dinamizazioan eta hedapenean zentraturiko ekimen desberdinak garatu dira:

- Bilbon sareko bazkideen aurrez aurreko bi topaketa antolatu dira komunitate birtual eta erreala bateratzeko asmoarekin
- Informazioaren banaketa Euskadiko osasun-zentroetan, KZ-guneetan, kirol-guneetan, pazienteen elkarteetan etab.
- Osakidetzako eskualde guztietan elkarrizketak eta aurkezpenak 5 eskualde nagusietan pazienteen kopuruari dagokionez eta Gurutzetan, Galdakaon eta Basurtun, 450 pertsona ingurura iritsiz
- 4 barnetegi teknologiko, SPRIren laguntzarekin antolatuak, paziente kronikoen elkarteetara zuzenduak, zeinek izan baitute 42 pertsonaren laguntza
- Kronikoen Sarearen prestakuntza KZ-guneetako 35 ikastarotan, beraietan 171 pertsona izan direlarik



### Kronikoen Sarea

Kronikoen Sareak Buber Sariak 2012 jaso du hiritarrentzako zerbitzuen web hoberena izateagatik, Internet & Euskadi Elkarteak emana

[Donostia, 2012ko azaroak 29]

- Prestakuntza-ikastaroa 2.0 lanabesen ebaluatzaileentzat, Deustuko Unibertsitatea eta Ikerbasquerekin lankidetzan, 15 paziente elkarteetako 21 pertsona bertan zirela
- "Finantzazio-era berriak" gaiari buruzko ikastaroa, pazienteen elkarteak gaitzeko XXI mendeko sistema sanitarioan izan behar duten zeregin berriari begira. 17 elkarte bertaratu dira
- Kronikoen Sarearen presentzia indartzea beste sare sozial batzuetan, batez ere Facebook eta Twitterren, non 400 eta 300 jarraitzaile baino gehiago dituzten hurrenez hurren

## TEKNOLOGIA SANITARIOEN SEKTORE GARAPENA

- Osasun-sektorerako produktuak eta zerbitzuak sortu eta abiarazte prozesuaren definizioa, Bioefekin lankidetzan, sektore hori Euskadin garatzeko inplikatutako eragile-sare bat sortuz, sanitarioa dena eta enpresa hurbiltzea sustatuz, eta pertsonak horri eranstea bilatuz
- Benchmarking-ekintzak:
  - Sektore "tradizionaletako" israeldar enpresen desberdintze-praktiken arrakasta-gakoen analisia
  - Solna (Estokolmo) kasuaren azterlana teknologia sanitario eta ingurune osasungarrietako bikaintasun-polo bezala, zeinek ohitura osasungarriak sustatzeko barrutirako ere balioko baitu
- Osasunean Aditu direnen Panelean parte-hartzea, Ikuspegi Teknologiko Industrialeko Behatokiak (OPTI) antolatua Espainiako Gobernuaren Industria Ministerioak agindutako Berrindustrializatze Estrategia batean Aukerak Identifikatzeari buruzko Prospektiba Azterlan baten esparruan

### EMAITZAK

- Gosasun zigilua Barrenetxe, Super Amara, Grupo Delta, Comunícamelo eta On Estrategiak sustatutako "Zeure bizkar-zorroan ogitarteko bat egunero" ekimenari
- 55 eragile Gosasun mugimenduari atxikiak
- Landa Garapen Jasangarria 2014-2020 Programan parte-hartzea
- 4 barnetegi teknologiko paziente kronikoen elkarteentzat
- Kronikoen Sarearen prestakuntza KZ-guneetako 35 ikastarotan

### ALBISTE IZANGO DA

- Ondasun komunen kudeaketari buruzko azterlana Euskadiko landa-ingurunean
- Ikerkuntza eta nekazaritzako elikagaien industria harremanetan jartzeko Jardunaldiak, transferentzia teknologikoa eta hura produktu eta zerbitzu berritzaile bihurtzea bideratuz

# Enpresak Azeleratzea Dinamika

Dinamika hau espezializazio-lerro bat bezala sortzen da Innobasquek bere jaiotzatik ekintzailetzaren barrutian garatutako jardunetatik abiatuta, hazkuntza handiko enpresen garapena bultzatuz, aberastasuna eta enplegua sortzeari egiten zioten ekarpen garrantzitsuarengatik. Ideia honako hau da: Innobasque proiektua eratzen duen kapital soziala balioan jartzea eragin handiko enpresa-ekimen berriei bulkada emanez.´



## ABIAN DAUDEN PROIEKTUEN EGOERA

### I faseko enpresak: azeleratze-prozesua

- **Hib- S*Concept:** aurrera doa azeleratze-prozesua
- **Virtualware:** Plan estrategikoaren amaiera, zeinek ematen baitie lehentasuna nazioarteko merkatu berriei eta hura produktu-enpresa eraldatzeari (osasun sektore) zerbitzu-enpresa baino areago. Horrek esan nahiko du 2014tik aurrera produktu-salmenta enpresaren diru-sarreren iturri nagusi bihurtuko dela, eta 6z biderkatuko dela fakturazioa 5 urtetan, horrek ekarriko duen nazioarte-proiekzioarekin: Espainia, Europako Batasuna, Erresuma Batua, USA, Latinoamerika.
  Hitzarmen bat egin da MERCK Farmazeutikoarekin osasun-alorreko Virtualware produktuak merkaturatzeko eta beste bat Kanadako ospitale batekin produktu horiek erabiltzeko
- **Gese:** Azeleratzailearen lankidetza-hitzarmena izenpetu ondoren, enpresa merkatu berriak irekitzeko lanean ari da eta inbertitzaile berrien bila. Proiektuan egindako aurrerapenak honako hauek dira:
  - EZE (Energia Zerbitzuen Enpresa) bat abian jarri da %80an bankuak (Triodos Bank) finantzatua (Triodos Bank), eta beste 5 eskaintza gehiago izenpetuak izatearen zain
  - Inbertitzaile berriak: 150.000€ko inbertsio-tiketak salgai jarri dira eta horiek negoziatzen ari dira inbertitzaile-gaiekin
  - Merkatu berriak: negozio-gehikuntza hezkuntza-sektorean 4 bezero berrirekin, eta - 2 sektore berriri atxikitzea: industriala eta autopistak
  - 2013 urterako fakturazio-aurreikuspena: 4z edo 5ez biderkatu 2012ko fakturazioa.

### Kontraste-taldeak baliozkotutako enpresak

- **Minirobotak:** lehen topaketa hezkuntza-sektoreko kontraste-taldearekin
- **Unicorp:** enpresaren xedeari atxikitako irabazi-asmorik gabeko elkarte bat sortu eta gero, topaketa bat burutu da hartako enpresa erakarleekin: MCC, Bridgestone, Petronor eta Tubos Reunidos. Helburua lankidetza-sare bat sortzea da Euskadiko eteen artean haien lehiakortasuna hobetzea ahalbidetuko duena mantentzearen kudeaketa efizientetik abiatuta. Gainera, urratsak egiten ari dira Euskadiko klusterrek proiektuan parte har dezaten

### Prozesuaren hasiera-fasean dauden enpresak

6 enpresa berrirekin kontaktuak Azeleratzailean sartzea aztertzeko: Bidatek, Ikasplay, 6D Interactive, EMS2, Medwhat, eta Zarate Elexpe.

## EMAITZAK

- Gese Enpresen Azeleratzailean sartzea
- Tensión Sarearekin topaketa Azeleratzaileko 2 enpresak lortutako emaitzak aurkezteko: Virtualware eta Gese [2012ko abenduak 20]
- Barneekintzailetzari buruzko azterlana Progenika Biopharma, Ormazabal, Sener, Grupo TTT, Vicomtech, Batz, Ikusi, Lanik eta Abantail-ek landua

## ALBISTE IZANGO DA

- Bidatek kontraste-taldearen sorrera eta lehen topaketa
- Zenbait euskal enpresaren lankidetza-proiektua abiaraztea uraren sektorean

# Laugarren Sektorea Dinamika

Dinamika eraldatzaile horren helburua honako hau da: erronka sozial gaurko eta gerokoei aurre egitea ahalbidetuko duten eredu, balore, ideia, ekimen eta negozio berritzaileak aztertu, bultzatu eta garatzea, eta horrek guztiak mesede egin diezaiola garapen gizartearen sozial, ekonomiko eta ingurumenekoari irekia, solidarioa, berritzailea eta jasangarria izan dadin.

## Zer da laugarren Sektorea

Laugarren Sektorea hibrido bat da sektore publiko, pribatu eta hirugarren sektorearen artean, zeinek aurre egiten baitie erronka sozial konplexuei, negozioen teknika propioak erabiliz xede sozial bati ezarrita. Laugarren Sektoreko erakundeak elementuak partekatzen dituzte sektore pribatuarekin zeren emaitza-kontuarekin funtzionatzen baitute eta jarduera ekonomikoaren bitartez lortzen baitituzte beren baliabideak. Barruti publikoaren antza dute behar sozial bat asetzen laguntzen dutelako eta hirugarren sektorearekin beren xede soziala partekatzen dute.

Ikuspegi horretatik, balore soziala balore lehiakor bat bezala aurkezten da aberastasuna eta enplegua sortzeko gai dena, gizarte barne-hartzaileak sortuz.

Innobasque Laugarren Sektorean ari da lanean egiturazten duten lau ardatzak azpimarratuz:

- Ekintzailetza soziala
- Enpresa-erantzukizuna
- Negozio barne-hartzaileak nazioartekotzea Piramidearen Oinarrian
- Finantza sozialak

## EKINTZAILETZA SOZIALA

Europar proiektuen bi proposamenen partaidetza eta garapena ekintzailetza sozialaren barrutian, Innobasqueko bi erakunde bazkiderekin lankidetzan.

- **SEE 2020** (Social Entrepreneurship in Europe for 2020 Strategy). Proiektu honek, 7º Esparru Programan aurkeztua, honako helburu hauek planteatzen ditu:
  - Ekintzailetza sozialari buruzko ezagutza hobetzea badauden ekintzaile sozialak, ekintzailetza mota horien antolatze-erak eta ezaugarri propioak, giro faboragarriak eta negatiboak identifikatuz
  - Gomendioz hornitzea sektore publikoak eta pribatuak ekintzailetza soziala artatzeari buruz
  - Haren eragina eta ahalmena neurtzea Europan.

  *Proiektuko bazkide partaideak:* MIK, University of Northampton (Erresuma Batua), Paijat-Hameen Koulutuskonserni-Kuntayhtyma (Finlandia), Sinnple, Basel Institute of Commons and Economics (Suitza), Associazione Italiana per la Promozione della Cultura della Cooperazione e del Nonorofit (Italia), Université du Luxembourg (Luxenburgo) eta The Foundation for Social Entrepreneurs (Erresuma Batua).

- **SIC!** (Social Innovation Cities), hau ere 7º Esparru Programan. SIC! Partzuergoaren helburu nagusia eredu bat eraikitzea da berrikuntza soziala maila guztietan bideratuko duena, berrikuntza sozialaren tokiko eta erregioko ekimenen hedatzea eta azeleratzea bermatuko dituena Europa guztian, era sentibera eta eraginkorrean enplegua sortzeari, gaitasunak garatzeari, kohesio sozialari, integratzeari, bai eta beste barruti sozialei ekarpena eginez ere. *Bazkide partaideak:* Midpoint Brabant (Holanda), Deustuko Unibertsitatea, Sozialforschungsstelle (Alemania) eta Zentrum für Soziale Innovation (Austria).



# ENPRESA ERANTZUKIZUN SOZIALA

## Metodologia-esparrua enpresa-erantzukizun soziala Euskadin ezartzeko

EESa ezartzeko metodologia-esparrua amaitu eta argitaratzea, nola erakunde eta antolaera publikoekin hala pribatuekin eta hirugarren sektorekoekin lankidetzan diseinatua, eta EAEko enpresa-ehuna edozein erakunderi zuzendua, zeinek arduratu nahi baitu gizartean eragiten ari den eraginez, haren tamaina eta jarduera-sektorea kontuan hartu gabe.

## Proiektu pilotua erosketa publiko arduratsuari buruz

Innobasqueko EESeko i-Taldeak sustaturik, proiektu pilotu bat jarri da abian erosketa arduratsuko irizpideak euskal administrazio publikoaren aldetik eransten laguntzeko produktuak eskuratzerakoan eta zerbitzuak kontratatzerakoan.

Proiektuaren emaitza bezala, zeinek baitu aurrekontuaren efizientzia maximizatzea helburu, kudeaketan gardentasunez eta etikaz jokatuz, gidaliburu bat landuko da erreferentzia izango dena, kontratazioetan eta hornitzaileekiko harremanetan praktika onak dakartzana.

# PO NAZIOARTEKOTZEA

Barruti horretan bi saioko tailer bat garatu da, Piramidearen Oinarrian (PO) negozio barne-hartzaileak nazioartekotzearen estrategiak diseinatzeko, izan ere berarekin hasi zen 2 euskal enpresaren prestakuntza eta laguntza (HBio eta Urkide Ikastetxea) ondoren laguntzeko PO merkatuetan haien nazioartekotzearen prozesuak negozio barne-hartzaileen ikuspegitik. [Zamudio, 2012ko ekainak 27 eta urriak 3]





# FINANTZA SOZIALAK

## Finantza sozialen i-Taldea eratzea

Finantza sozialen barrutian tarteko diren aktore eta erakunde desberdinen artean aukera eta proiektu berriak trukatzeko leku eta topaleku bihurtzeko helburuaren jaio da i-Talde hau (helburu sozialak dituzten proiektuen finantzazio jasangarria sustatzen duten tresnak).

Urrian abiarazi eta gero, i-Taldeak bilera bat baino gehiago egin ditu eta haietan lan-planeko gidoi bat prestatu da erakunde eta proiektuetarako finantzazio-mekanismo efizienteenak garatzea bideratuko duen ekosistema bat sortzeko abiapuntu bezala.

Talde horrek lanerako dituen erronka garrantzitsuenen artean proiektuen eta proposamenen finantzazioa bideratuko duen kapital-merkatu bat garatu eta egituratzea dago. [Zamudio, 2012ko urriak 11]

## Finantzazio sozialeko tresna-katalogoa

Finantza sozialen barrutian dauden ekimenen katalogo bat lantzea, izan ere tresna horiek helburu sozialak dituzten proiektuen finantzazio jasangarria sustatzen dute. Katalogoan bere baitan dakartzan ekimenak honako hauek dira:

1. ISA (Inbertsio sozialki arduratsua)
2. Banku etikoa
3. Mikrofinantzak
4. Crowdfunding-a
5. Arrisku sozialeko kapitala - Business angels sozialak
6. Eragin-inbertsioak (eragin sozialeko bonuak)
7. Tokiko monetak/sozialak/osagarriak
8. Aurreikuspen sozial borondatezko erakundeak
9. Elkarrenganako bermedun sozietateak
10. Inbertsio-funts sozialki arduratsuak
11. Aurrezki kutxen fundazioak
12. Filantropia

## EMAITZAK

- Finantza sozialen i-Taldea eratzea [2012ko urriak 11]
- Finantzazio sozialeko  tresna-katalogoa

## ALBISTE IZANGO DA

- Euskal enpresen nazioartekotze barne-hartzailea diru-sarrera baxuko herrialdeetan bi proiekturen bitartez Piramidearen Oinarriko Laborategiarekin, eta Change Fusion Europerekin

# Honako hau partekatu nahi dut . . .

# Abentura zirraragarri bat

Ekintzaile izatearen abenturara jotzea batzuetan ekintza inkontzientea izaten da. Seguru asko hori egitea norberak erabakitzen duenean ez du jakiten non ari den sartzen. Baina, esan dezagun hori dela graziaren parte bat. Ahalegin orok badu saria, eta ideia orok borroka du bere baitan. Gurea nola gauzatu zen kontatuko dizuegu.

## IDEIA

Norberak ideia bat duenean egiten duen lehen galdera hau da... Baina idei guztiek balio al dute enpresa bat egiteko? Gogoan dut Alejandrori eta bioi *shout*-a bururatu zitzaigunean (zugandik hurbil dauden beste erabiltzaileei bidal diezaiekezun mezua galdetzeko edo berri emateko), ideia distiratsua iruditu zitzaigun, baina, negozio bihurtzeko bezain ona al zen? Hor sartzen da jokoan sortzaileen enpresa-ikuspena.

Orduan konturatu ginen ideia elikatu egin behar dela, zaindu, janaria eman eta hazarazi. Biribildu eta perfekzionatu produktu bihurtu arte. Zure enpresa-ikuspenaren itxaropenak beteko dituen edo haietara hurbilduko den produktu bat.

## TALDEA

Lan egin beharko duzu, eta asko gainera. Egunak dituen ordu guztiak sartuko dituzu eta egunak 30 izatea nahi izango zenuke. Beraz hobe duzu zeure burua hoberenez inguratzea. Hoberenekin bakarrik harrapatuko duzu gailurra.

Nola lortu hoberenak zeure enpresan hain zuzen ere dirua sobera ez dagoenean? Ideia bat ulertzeko gai badira jakingo duzu hoberenak direla eta erronka bat eskaintzen diezula ulertzen badakite. Gure esperientzia hoberenei ez zaiela dirua bakarrik inporta izaten, erronka inporta zaie eta enpresak gerorako eskaintzen duen ikuspegia. Baina, gainera, enpresako partaidetzak eskaintzea da aukera on bat. Taldearen inplikazioa handiagoa lortuko duzu.

Oinarrizko beste puntu bat lehentasunak ezartzen eta une bakoitzean behar dituzun soslaiak jakitea da. Start-up bat bazara oso argi izan behar duzu zeintzuk izango diren zeure azpiegitura-gastuak eta beharrezko pertsonak urrats bakoitzean. Hazkuntza beti pixkanakakoa izaten da.

## FINANTZAZIOA

Eta galdera potoloa: eta dirua? Nahiz eta egia den Espainian, eta gehiago garai nahasi hauetan, ez dagoela start-up motako enpresatan inbertitzeko gogorik, badira programa batzuk finantzazio publikoa eskuratzera aurkezteko modukoak. Gure kasuan, guk *friends&family* finantzazio-erronda bat egin genuen eta horrek Madrilen etxe-bulego batean instalatu eta lanean hasteko balio izan zigun.

Garbi geneukan lehen finantzazio-erronda lortu behar genituen erronda ugarietako bat zela. Una hartatik aurrera, gure helburua haztea zen, produktua hobetzea eta lehenbailehen bigarren, hirugarren eta laugarren finantzazio-erronda ixteko bezain aski lehiakorrak bihurtzea.

## IDEIA SALDU ETA SALDU

Sinesten al duzu zeure produktuan? Orduan borroka egin eta sal ezazu. Aukerak gutxitan agertzen dira bakarrik. Pentsa ezazu era globalean eta ikerketa egizu zer gertaldi, zer pertsona, zer erakunde diren egokienak zure ideia erosteko. Saia zaitez interesatzen zaizun jendearen radarrean egoten: inbertsiogileak eta enpresa garrantzitsuak. Handira pentsatu. Ez kikildu konkurrentziaren aurrean, zure balorea zeure berrikuntza-gaitasuna eta inplementazio-bizkortasuna dira.

Gogoan dut zer aukera izan zen bost minutuko berriketa labur bat Olli-Pekkarekin



## Fernando Calvo, Spotbros-en fundatzaile-kidea



izatea. Bost minutu bakarrik ematen zizkigun saldu eta geure negozio-ideiaz bera konbentzitzeko. Bost minutu Spotbros, geure lanak bertan behera uzteko modukoa izan zen hura proban jartzeko. Bost minutuak 45 bihurtu ziren eta Nokiako presidente ohia sartzea enpresako bazkide inbertitzaile bezala.

Gutxiren eskura zegoen lorpen bat, baliteke. Baina esperientzia hartatik zerbait ikasi banuen hau izan zen: ezer, ez inor ez dela ezin lortuzkoa. Iraupena behar da eta zorte apur bat. Ez ezer , ez inor, gogoan izan.

### ARNASA HARTU ETA INDARRAK BILDU

Zure borroka. Bai, ekintzailearen bizitza ez da erraza. Ez espero izan lanetik ordu txukun batean irteterik edo egutegiko jaiegunak hartzerik. Baina zeure buruan nagusia zarela ere gogoan izan, gustuko lekuan aldaparik ez dela eta hori zeure ideia duzula. Zeure borroka.

Gogoan dut markatu ninduen film bateko aipamen bat, ekintzaile batzuen testigantzak jasotzen zituen eta zera esaten zuen, nola era guztietara probak egin dituzunean, formula guztiak saiatu dituzunean, ematen egiteko zorian zaudenean, orduan zaudela lortzetik inoiz baino hurbilago. Agoantatu pixka bat gehiago, ze ez baitzara inoiz hurbilago egon arrakasta lortzetik. A hero is no braver than an ordinary man, but he is brave five minutes longer.

Gogoan izatea gustatzen zaidan zerbait da. Uste dut primeran laburtzen duela ekintzailearen espiritual. Azken batean ekintzailea bere bide propioa urratzen duen, besteek jarraituko duten hura da.

# Berrikuntza Sareak

Sareak elkarrekintza-erak dira, konektibotasun-guneak helburu komun batekin jaiotzen direnak, helburu horretarantz doazen neurrian hazten eta garatzen direnak. Innobasque mila erakunde bazkidez eratutako sare bat da, elkarrekin konektatzean beste sare batzuk sortu eta haietan parte hartzen dutenak, efizientzia, koordinazioa sortuz balio-katearen osagaien artean bezeroarentzat balioa sortzeko. Ezagutza bereizgarri bat sortzeko gai diren proiektuen bitartez lortzen dute hori, berrikuntza sortuz, eta horrek erakundeek lehiakortasuna irabaztea eragiten du, eta hedaduraz, atxikirik dauden sistema sozio-ekonomikoak.

**Lerro Irekiak**

- Gipuzkoa Berritzen
- Arbela
- Esp@ Sarea
- Adimen Emozionalaren Partzuergoa
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea
- Iñaki Goenaga Teknologia Zentroen Fundazioa




## GIPUZKOA BERRITZEN

Joan den seihilekoan Gipuzkoako lurraldean berrikuntza sustatzeko pertsona-elkarte bezala eratu eta gero, urrian eta azaroan zehar, Gipuzkoa Berritzenen-ek lan-dinamika bat baino gehiago burutu ditu bere bazkideekin lehentasuneko jarduera-lerroak, ekin eta bultzatu beharreko proiektuak, kudeatze-era egokienak eta erabakiak hartzeko mekanismoak definitzeko, hori guztia elkartea bera eta berrikuntza Gipuzkoan garatzera bideratuta.

Parez pare, Gipuzkoa Berritzenek lanean jarraitu du abian dauden proiektuetan, eta honako hauek dira burututako jarduera batzuk.

- "Etika enpresan" jardunaldia Baketik-en lankidetzarekin antolatua, 50 pertsonaren partaidetzarekin [Donostia, 2012ko urriak 23]
- "Aukeren kudeaketa" txostena lantzea, haren aurkezpenean 40 bat pertsonak parte hartu zutelarik [Donostia, 2012ko azaroak 22]






- Hekimen eratzea, euskarazko komunikabide pribatuen elkartea, sektoreko 50 enpresa inguru atxikiak dituena [Donostia, 2012ko azaroak 21]



Con el fin de impulsar la innovación mediante la alineación de agentes, la Diputación Foral de Gipuzkoa, Innobasque y Gipuzkoa Berritzen, han firmado el convenio marco que regulará las actuaciones de esta última y que refleja el compromiso por la innovación en Gipuzkoa

# ARBELA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Berrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailak sustatutako ekimena, non gaur egun Innobasquek dinamizazio-lanak burutzen baititu, aldaketa-nahia estimulatzen eta gure enpresa-errealitatea eraldatzen laguntzen baitu enpresa berritzaile eta partaidetuko paradigma berri baterantz, non pertsonek beren burua garazten baitute beren ahalmen guztia hedatuz.

Azken 6 hilabete hauetan aurrez aurreko honako topaketa hauek egin dira:

- Esperientzia praktikoen aurkezpena haien protagonisten eskutik: Mecanizados Alberdi, Leroy Merlin, Medop-Medical Óptica eta Nervión Balore Agentzia

- Bizkaiko Foru Aldundiak enpresen kudeaketarako metodologia eta zerbitzuen eskaintza aurkeztea: Premie (kudeaketa hobetzea), Xertatu:adi (EESaren kudeaketa), eta Bilgune (elkarrizketa eta partaidetza-kudeaketako guneak sortzea) [2012ko urriak 30]



- EES Jardunaldia Eteetan, non Innobasquetik landutako EESaren metodologia-esparrua lantzen parte hartu duten bi pertsona izan ziren [2012ko azaroak 23]

- Buletina: “Zer ari da gertatzen arbelan?”: 5na aleren bidalketa sareko 720 bazkideei

# ESP@ SAREA

- Hiru erakunde berri sareari atxikitzea: Confluentia, Noski Consulting Tour eta Notonly Arquitects

- Aenor-ekin ezarritako lankidetza-hitzarmenaren arabera, SPRIren bitartez, haien interesekoak izan daitezkeen proiektuen lizitazioak igortzen zaizkie sareko kideei. Urritik guztira 28 lizitazio bidali dira

- Sareko jarduera batzuk garatzeko finantzazioa lortuta Pointer programaren bitartez




## EMAITZAK

- “Enpresako etika” Jardunaldia [GIPUZKOA BERRITZEN] [2012ko urriak 23]
- “Kudeaketa-aukerak” txostenaren aurkezpen-jardunaldia [GIPUZKOA BERRITZEN] [2012ko azaroak 22]
- EESa Eteetan Jardunaldia [ARBELA] [2012ko azaroak 23]

## ALBISTE IZANGO DA

- 2º Gogoeta-erronda bazkideekin [GIPUZKOA BERRITZEN] [2013ko urtarrilak 24-otsailak 21]
- Esperientzien elkartrukatze-jardunaldia SPRI eta Aenor-ekin [ ESPA SAREA]
- Produktu berrien jardunaldia Kautenik eta Evolo Evolving Mobility erakusketarekin [ARBELA] [2013ko urtarrilak 25]

# ADIMEN EMOZIONALAREN PARTZUERGOA (AEP)

Adimen Emozionalaren partzuergoa, 113 erakunde atxiki eta 340 pertsona konektaturekin, sare bat baino zerbait gehiago den lankidetzako proiektu bat da. Berrikuntza-komunitate bat da erakunde eta profesional desberdinez eratua, askotariko girotan, pertsonen berrikuntza eta gaitasun sozio-emozionalak garatzearen, talde lanaren, pertsonengan oinarritutako kudeaketa-dinamiken eta benetako partaidetzaren ikuspegitik sustatzeko.

| Jarduera-lerroak | Jarduera-lerro honen asmoa |
|---|---|
| L1. AEP erkidegoa | • AEPko pertsonen eta antolaeren ezagutza eta konexioa bideratzea<br>• Innobasqueren estrategia indartzea berrikuntza eta eraldaketa bultzatzen lagunduz<br>• AEParen esparru kontzeptuala bistaratu eta aberastea |
| L2. Ikaskuntza | Gune berriak sortzea ikaskuntzarako, ezagutza-trukerako eta elkarri eragiteko |
| L3. Eraldaketa-proiektuak lankidetzan | Eraldaketa-proiektuen ekipoak aktibatzea lankidetzan proiektu berritzaileak arakatu, diseinatu eta garatzeko |
| L4. Ikerkuntza-unitatea pertsonengan eta lankidetza | AErekin eta barruti sozial, lan-enpresako eta hezkuntzakoekin zer ikusia duten gaietako ikerkuntza |
| L5. Komunikazio sistemikoa | AEParen fluxua eta komunikatzeko kanalak hobetzea |



### 1. L AEP Erkidegoa

- AEP berrikuntza-komunitatea tailerra "Tximeleta AEP 1213 Ekuadorren" non 2012n egindako ekintzen sintesi bat egin baitzen eta 2013rako aurreikusitako jardueren aurrerapen bat, 30 pertsonaren partaidetzarekin [2012ko abenduak 12]

### 3. L Eraldaketa-proiektuak lankidetzan

- Delfín Enpresen Laborategia LED Taldea: Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoarekin eta Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzarekin lankidetzan ari izan ondoren, sor-kidetza-tailer bat burutu da Goiztirirekin [2012ko abenduak 18]
- Aktivate Taldea: Aktivate programako esperientzia pilotuaren ebaluazioa langabezian dauden pertsona talde batek burutua
- Elkano Taldea: "Elkano"programa abiaraztea Instagi Elkarterako [2012ko abenduak 20]
- "Alfabetatze emozionalerantz Aldatzen" Taldea, adimen emozionala eta adimen anitzak ikastetxe batean sartzeko proiektua guraso, irakasle eta orientatzaileekin hasita
- "Berrikuntza-taldetarako metodologia sare eta komunitateetan" taldea sortzea AEPko 20 taldetan 7 urtetan zehar jasotako esperientzia esplizitatzeko, talde berriak garatzen laguntzeko eta beste sare eta komunitateei esperientziaren ekarpena egiteko

Gainera, beste 2 talde definitu dira era parte-hartzailean oinarrizko bi erronkari aurre egiteko:

## EMAITZAK

- › "Elkano" programa abiaraztea Instagi Elkartearentzat [2012ko abenduak 20]
- › Eraldaketa-proiektuen talde berri 1 sortzea lankidetzan eta beste 2 definitzea
- › Adimen Emozionaleko I Nazio Batzarrean parte hartzea [Bartzelona, 2012ko 8,9 eta 10]
- › AEPren presentzia sare sozialetan hazten ari da 4.721 jarraitzailerekin Facebooken eta 701 Linkedinen

## ALBISTE IZANGO DA

- › "Berrikuntza-taldeak, antolaera garatzeko tresnaren" argitalpena
- › Bost tailer ireki abiaraztea AEPa osakide eta Innobasqueko bazkide direnentzat
- › Prestakuntza-programa espezializatuak garatu eta abiaraztea
- › "AEPren Ikerkuntza Unitatea" abiaraztea [2013ko urtarrila]

- CIF taldea, zeinen helburua Partzuergoak hartu behar duen forma juridikoaz lan egiten baita proiektu desberdinak aurrera atera, eta Adimen Emozionaleko prestakuntza aurreratua emateko gaitasuna izan dezan, bai eta sakonera handiagoko lankidetza- eta ikerkuntza-proiektuak garatu ere

- Komunikazio taldea, era errotikoan AEPen barne- eta kanpo-komunikazioa eraldatzeko xedearekin

### 4.L Ikerkuntza-unitatea pertsonengan eta lankidetzan

“AEPren Ikerketa Unitatearen “arkitektura-diseinua EAPeko taldeen kasuen ikerkuntza, ebaluazio eta garapenerako. Talde koordinatzaile batez eta ikertzaile-poltsa batez osatutako unitate bat da.

### 5.L Komunikazio sistemikoa

- Adimen Emozionaleko I. Nazio Batzarrean parte-hartzea, AEP bere ibilbide guztian zehar burututako ekintza guztiak eta identitatea erakutsiz [Bartzelona, 2012ko azaroak 8,9 eta 10]

- “Ohitura Osasungarrien Zirkuitua” Bilboko Hareatza Pasealekuan egindako Mercabilbaok antolatutako gertaldiaren esparruan. Zenbait jarduera eskaini ziren elikadurari, jarduera fisikoari eta ongizaterako heziketa sozio-emozionalari lotutako ohiturekin zerikusia zutenak [Bilbo, 2012ko abenduak 3]
- 2012an burututako proiektuen aurkezpena, “Alfabetatze emozionala Aldatzen”, “Aktivate” eta “Ohitura osasungarriak”-en eskutik, Gosasun II. Tailerraren barruan [2012ko abenduak 12]




## TALENTUA SORTZEA EUSKADIN

- 2012ko azken seihilekoan Iñaki Goenaga Fundazioak Doktoregoari Laguntzeko bere Programarako jasotako 320 eskarien hautespen-prozesua burutu zuen. Azkenik, 20 pertsona izan ziren beka baten onuradun eta zegokien atxikitze-zentroetan hasi zuten beren prestakuuntza: Tecnalia, Azti, Ikerlan, Tekniker, Ceit eta Gaiker [2012ko urria]
- Urteko bigarren patronatua egin zen eta bertan gogoeta estrategiko bat burutu zen sortze-jardueraz
- Innobasquek, Euraxess zerbitzu-zentro bezala,jasotako eta kudeatutako kontsulten estatistikak landu ditu, nola zerbitzu-zentroak hala tokiko puntuek. (Bizkaia: xede eta Donostiako Sustapena). Halaber, proposamen bat landu da jardunaldi bat antolatzeko Atzerritarren Legeaz eta hura prestakuntza handiko langileriaren kontratazioan ezartzeaz

### ALBISTE IZANGO DA

> 2013 Beka eta Laguntzen Programa berrien diseinua

> Jardunaldia: Atzerritarren Legeari eta hura prestakuntza handiko langileriaren kontratazioan ezartzeari buruz [2013ko urtarrila]

# SAREEN MAPA

01/07/12 tik 31/12/12 ra

kanalaren erreprodukzio kopurua 107.984
Seihilekoko erreprodukzioak 43.645

## TOP 3 Seihilekoko bideoak

1. Global Innovation Day 2012 - Santiago Niño Becerra, Catedrático Universidad Ramón Llull
2. Global Innovation Day 2012 - Turno de preguntas "Innovación en nuevos escenarios"
3. Global Innovation Day 2012 - Olga Gómez, Consorcio de Inteligencia Emocional

Berritzaileok 5.312
Erronkak 215
Taldeak 249

29.430
konek



Innobasque-ren lagunak 4.067
Argitalpenak 369
Iruzkinak 73
Elkarbanatuta 491
Atsegiten 1.227

CIE-ren lagunak 4.915
Openideiak-en lagunak 328
Kronikoen Sarearen lagunak 322
FLL Euskadiren lagunak 291

Igotako dokumentuak 294
Ikusitako dokumentuak 238.614
Seihilekoan ikusitako dokumentuak 51.896
Deskargak 4.437

Seihilekoan gehien ikusitako argitalpenak
2.124 Santiago Niño Becerra - Global Innovation Day 2012
1.987 Informe Innobasque 1/2012
1.885 Innobasqueko Txostena 1/2012

pertsona
ktatuta

Followers Innobasque 7.499
Following 1.185
Bidalitako Txioak 1.551
Bertxioak 2.852
Aipamenak 2.040

Followers Openideiak 1.160
Followers Kronikoen Sarea 336
Followers Gosasun 194
Followers InnobasqueNews 136

Innobasque taldearen kideak 5.441
Uztailatik aurrera egindako kide berriak 801
Uztailatik abendura bitarteko eztabaidak 1.212

CIE taldearen kideak 750
Southern Europe´s Cleantech Hub taldearen kideak 59

# Sozializazioa

Berrikuntza sozializatzea euskal gizartean praktika berritzaile hoberena hedatzen jarraitzea da euskal berrikuntzako eragileak burutzen ari diren lana ezagutu eta aitortu dadin, nola barrurantz hala kanporantz.

### Innobasqueko kanalak

- Innobasqueren Astearteak: berrikuntzako protagonistei hileroko deialdia dibulgazio-foro ireki batera Euskal berrikuntza pertsonen, erakundeen eta komunikabideen begiradapean kokatzeko
- Innoberri: Innobasqueren jardueraren berri ematen duen hileroko buletin elektronikoa
- i-Bazkide: Innobasqueren bazkideen eta bazkideentzako albisteen hileroko buletin elektronikoa
- Innobasque 2.0: Youtube, Flickr, Facebook, Linkedin, SlideShare, Issuu eta Deliciouseko web, blog eta Innobasque kanalak berrikuntzako eduki garrantzitsuenak hedatzen eta lotzen dituztenak
- Informazioa nahierara: Informazioa nahierara: dokumentu eta argitalpen garrantzitsuen hautespen pertsonalizatuaren harpidetza ahalbidetzen duen zerbitzua
- Argitalpenak: Innobasqueren lerro editoriala web korporatiboan eskuragarri

## Innobasqueren Astearteak

### Minutu bat berrikuntzarako, lankidetza-berrikuntzako ekimen bat

2011ko azaroan, Innobasquek "Minutu bat berrikuntzarako" ekimena abiarazi zuen, berrikuntzaren kultura sustatzeko ekimen bat eta bertan erakundeei beren gaitasun berritzaileak aktibatzea proposatzen zitzaien eta emaitza zehatzetara bideratu zitzatela zeren ekintza, inplementazioa ezinbestekoa baita berrikuntza gerta dadin.

Premisa bat izan zen abiapuntua: "Irudikatzen al duzu zer gertatuko litzatekeen erakunde, enpresa, antolakunde... guztiek egunero minutu bat eskainiko baliote berrikuntzari?", 79 erakundek parte hartu zuten proiektu horretan.

"Minutu bat berrikuntzarako, lankidetza-berrikuntzako ekimen bat" BTI Biotechnology Institute-ren eskutik egin zen jardunaldian topaketan parte hartu zuten 50 pertsona baino gehiagok ibilaldi bat egin ahal izan zuten ekimenaren fase desberdinetatik, lankidetza-berrikuntzako praktika on batzuetan barrena eta beren erakundean hautatutako konponbide berritzailearen prozesua eta inplementazioaren berri eman zuten, bai eta lortuta emaitzen berri ere.

Ekitaldian honako hauek parte hartu zuten: Eduardo Anitua, BTI Biotechnology Instituteko presidenteak; Marisa Arteagagoitia, Osakidetzako Uribe Eskualdekoa; Isabel Orbañanos eta Félix Sáenz de Ugarte, Urkide Ikastetxeko Berrikuntza Zentrokoak; Idoia Uriarte, Euskaltelen Merkatuko Berrikuntzako zuzendaria; Asier Ruiz Ramírez, 2DZangaren sortzaile-kidea; Patxi Gaztelumendi, EHNE Bizkaiko Komunikazio eta Proiektu Berrien arduraduna; Patricia García, Gasteiz Oneko kudeatzailea; eta Alberto Bokos eta Txema Villate, Innobasqueko Komunikazio eta Sozializazioko zuzendaria eta Innobasqueko zuzendari nagusia, hurrenez hurren. [2012ko abenduak 18]








# Euskadiko berrikuntza haren protagonisten eskutik

Jardunaldia, Bilbo Itsasadarreko Itsas Museoan ospatua, foro izan zen Innobasquerekiko lankidetzan burututako Gidaliburu horretan, urtero bezala, gure herrialdean 2012an zehar garatu diren ekimen berritzaileei ikustaldi bat ematen zaie. Enpresa Estrategiako “Euskal Herriko Berrikuntzaren Gidaliburua 2012”ren aurkezpenerako.

Lerro hori berorri jarraituz, topaketa bat diseinatu zen eta bertan 12 mugarri abiapuntu bezala hartuta, urteko hilabete bakoitzeko bat, balorean jarri ziren berrikuntzako erakunde garrantzitsuenetako batzuk garatzen ari diren proiektuak erakutsi zituzten, eta zeinek gaitasun kontrastatuko lurralde berritzaile bezala egunean-egunean Euskadi aitortzen laguntzen duten.

Topaketan, non 170 pertsona bertaratu ziren, berrikuntzaren 12 protagonistek lehen pertsonan kontatu zituzten murgildurik daudeneko proiektu berritzaileak: Joseba Jaureguizar, Tecnaliako zuzendari nagusia; José Miguel Erdozain, IK4 Research Allianceko zuzendari nagusia; Igor Campillo, Euskampus Fundazioko zuzendari betearazlea; José Luis del Val, Deustuko unibertsitateko Ikerkuntza, Berrikuntza eta Transferentziako errektoreordea; Vicente Atxa, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria; Javier Ormazabal, Velatia eta Tecnaliako presidentea; Txema Franco, Lantegi Batuak-en zuzendari nagusia; Azucena Castro, Owlen zuzendari nagusia; Miguel Encabo, Orona Taldeko Teknologia Berrikuntza eta IKTeko zuzendari korporatiboa; Eduardo Cifrián, Eroski Taldeko I+G-ko zuzendaria; Roberto Martínez de Guereñu, Vitoria-Gasteiz Udaleko Ekonomia eta Enplegu Sustapeneko zuzendaria eta Benicio Aguerrea, EIDE- Euskadiko Diseinatzaileen Elkarteko koordinatzailea. Gainera, Enpresa Estrategiako presidentea den José Ignacio Arrieta; Txema Villate, Innobasqueko zuzendari nagusia eta Manu Salinero, Eusko Jaurlaritzaren lehendakaritzako idazkariaren partaidetzak ere izan ziren. [2012ko azaroaren 27]



# Global Innovation Day

Joan den irailean Bilboko Euskalduna Jauregian GLOBAL INNOVATION DAY-REN 2º edizioa egin zen, berrikuntzarekiko hitzordu bat "ikasten dutenengandik ikasteko" eta bertan 1.000 pertsona baino gehiagoren partaidetza fisikoa izan zen eta beste 213.313k sare sozialen bitartez jarraitu zuten, Bilbon #global2012 hastag-a "trending topic" izan zelarik.

Innobasqueko Batzorde Eragilekoa eta Euskaltekeko presidentea den Alberto García-Erauskinek, Bilboko Udaleko ordezkaria den Andoni Aldekoak eta Beaz-DFBko zuzendari kudeatzailea den Juan Diegok eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzako idazkari nagusia den Manu Salinerok inauguratutako jardunaldia lau gai-bloketan egituratu zen:




**1. B-ren ahotsak:** Berrikuntza beren ezaugarri bihurtzen dutenek emandako hitzaldiak. Santiago Niño-Becerra ekonomialari eta katedradunak eta Monitor Group-eko berrikuntza-aholkularia den Pedro Arboledak krisi ekonomikoa dela eta sortutako agertoki berrietan berrikuntza nola burutu daitekeen azaldu zuten. Erabiltzailearengako orientazioarekin nola berritu gaiaz hitz egiteko Martin Lejarraga arkitektoa, Belen Hermosa diseinatzailea eta Eduardo Alcorta, Fortaleza Kafearen kudeatzailea etorri ziren. Marisa Toro, Google Espainiako komunikazio-zuzendariak: Mikel López Iturriaga "El Comidista" blogaren egilea eta Mikel Lejarza, Antena 3 Filmsen presidenteak edukia errege den komunikazioan ere berrikuntza egin daitekeela erakutsi zuten eta "edukiaren berritzulera" panelean egin zuten hori. Azkenik, Rodolfo Carpintier, Interneten garatutako enpresen alde apustu eginez ia 30 urte daramatzan inbertitzaileak, partaidetza-giroa sortuz, XXI mendeko enpresen ezaugarriak azaldu zituen.

**2. B-ren praktika:** Esperientzia-txokoak, zeinetan bertaratuek aukera izan baitzuten berrikuntza praktikan jartzeko bizimodu osasungarriago bat eramaten ikasiz Bizkaiko Esklerosi Anizkunaren Elkartea, Ibilbideak, Orbea, Wingroup Virtualware, Eroski, Fagor, Kronikoen Sarea, edo Gosasunekin; Bilboko denda berritzaileak nolakoak diren eta zer egiten duten CIB-Bilboko Udalaren eskutik ezagutu; Scooter LEMev Stream euskal moto elektrikoa probatu; Workmunityren bitartez enplegua bilatu, probatu eta Spotbros, bost gazte bizkaitarrek garatutako geolokalizazioan oinarritutako mugikor baten bitartez aldibereko mezularitza-plataforma bat erabili

Gainera, Tomorrow Egunkariak, Deustuko Unibertsitatearen ekimena, panel bat azaldu zuen, non bertaratuek gehien bozkatutako titularra honako hau izan baitzen: "Euskadi da adimen emozionala ikasgai bezala ikastetxeetan sartu duen lehen erkidegoa", bertako emakume batek sortutako albiste hori oso urrun ez dagoen gero batean egia izatea atsegin izango omen zuen.

**3. B-a bizi ezazu:** Berrikuntzaren protagonista izateko tailerrak. Bloke honetan









Goteo Euskadi aurkeztu zen ofizialki, guztien ongia, ezagutza askea eta kode irekia garatzen laguntzen duten ekimenei laguntzeko finantzazio kolektiboko sare sozial bat Iturri Irekiak Fundazioaren ekimen bat da Cola BoraBorarekin batera Irekiaren euskarriarekin.

Gainera, ia 100 bertaratuk ordubeteko "ibilbide emozional" bat egin zuten.

Global Futurizer Bilbao, Mondragon Unibertsitateko LEINN (Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza) ikasle talde baten ekimenak UPV/EHUko, Deustuko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko 150 ikasle batu zituen, eta eta soslai ekintzaileko langabezian zeuden 20 gazte, Lanbiderekin egindako akordio bati esker. Elkarrekin onartu zituzten 9 enpresaren erronkak: MBN Comunicación, Hiriko, Kultiba, Serikat, Biortu, Ideateca, Zerolab, ZAWP eta Mondragon Team Academy.

T-Festa tailerrek 50 pertsona izan zituzten, beren elastiko propioa diseinatu zutenak, euskarri artistiko bat, modakoa batzuentzat edo fetitxe beste batzuentzat.

Aldi berean, Adimen Emozionalaren Partzuergoak tailerrak eskaini zizkien 150 pertsonari eta bertan irakatsi zuten lankidetza-proiektuak nola eraman aurrera arrakastarekin.

**4. B-arekin konektaturik jarrai ezazu:** bertan azaldu ziren egunean zehar garatutako tailerretako ondorioak eta berrikuntza-agenda berehalakoena honako proiektu hauek aurkeztuz: Aktibili, GoteoEuskadi, Hiriko, FLL Euskadi, Cleantech Forum Europe 2013, Lana Kultur Kutxa, Hiriko auto elektrikoa, SURE: merkataritza ekologikoa, TCI kongresua - The Competitive Institute, Woslab, etab.



# Openideiak

Plataforma dinamiko hau Innobasquek erakunde publiko eta pribatu guztien eskura jartzen du berrikuntza irekia sustatzeko erronka mota guztiei aplikatua, zeinetan gizarte eta pertsona bezala garapen ekonomiko sozial eta gizatiarrarekin zerikusia duten ekimenak garatu ditzakegun (ingurumenarekikoak, enpresarekikoak, teknologikoak, sozialak, kulturalak).
www.openideiak.com

## Guztien onerako erronkak

4 erronka berri argitaratu dira:

### > Irakurketa Erraza Euskadin

Irakurketa Erraza (IE) irizpide berezi batzuekin landutako irakurgaiak, ikus-entzunezkoak eta multimediak eskaintzeko modu bat da irakurtzeko eta/edo ulertzeko arazoak dituzten pertsonek irakur ditzaten.

Autonomia Erkidegoan lan horren garapenik ez izateak beharrezko egiten du Irakurketa Errazeko materialak bultzatzea eta haiek ekoizten eta hedatzen laguntzea (euskaraz eta gaztelaniaz), bai eta haiek sustatzen lagunduko dutenak bilatzea, haien abantailak eta ezarpenak sustatu eta gero.

Proiektuaren helburu nagusia ekintza koordinatu bat burutzea da ezagutza, informazio eta kulturara iristeko zailtasunak dituzten gure autonomia-erkidegoko kolektiboak integratu eta onuradun bihurtzeko irakurgai egokituen bitartez.

### > Forondarako hautabidea

Gaur egun basoetan suteak izateko gertakortasun handia dago urteko edozein unetan. Eta horri gehitzen badiogu hautabide bat bilatu behar izatea Forondako Aireportua irekita mantentzeko eguneko 24 orduz, eta Vitoria-Gasteiz Europa Green Capital bezala, BIEXIF (Basoetako Suteak Iraungitzeko Nazioarteko Brigada) proiektua ezartzea proposatzen da, horretarako aireportuko azpiegiturak erabiliz.

### > BOE 2.0 Plataforma

Ekimen horrek web gune bat sortzea proposatzen du bertan hiritarrek parte har dezaten bere etxebizitzak propioak eraikitzeko ideien ekarpena eginez: nolakoa izango den fatxada, etxearen forma, haren banaketa, etab. Hitz batean, web bat, oro har, gure etxebizitzak eta gure hiriak izango duen itxura erabaki ahal izateko.

### > Ashoka: euskal ekintzaile sozialen nominazioak

Urtero Ashoka ekintzaile sozialen sareak, irabazi-asmorik gabeko erakunde globala, deialdi bat abiarazten du urteko ekintzaile sozialak aurkitzeko. Kontua hau da: beren proiektuak abiaraztea lortu duten pertsonak izendatzea, ekintzaile-espiritua, ausardia eta iraumena balioetsiz. Gainera, ideal da pertsona horiek eragin sozialeko arloetan lan egitea, hasi hezkuntza, osasuna eta ingurumenetik baztertze soziala edo eredu ekonomiko berrietarainokoan.

Innobasque lankide izan da ekimen honekin euskal ekintzaile sozialen lana balioan jartzeko. Horregatik, beharrezko baldintzak betetzen dituzten hautagaien proposamena sustatu eta dinamizatu egin du: pertsona berritzailea, sortzailea, ekintzailea, eragin sozialekoa izan eta jende askoren jokatzeko eran eragiteko beharrezko konfiantza sortzen duten balore etikoak dituena; zeren eta Ashokak hautatuko duen ekintzaile sozialak berrikuntza-ahalmen handia izango baitu, ezarritako ereduak hausteko gai diren proposamenak dituena eta sormenaren bitartez konponbideak bilatzeko gai dena, bai eta eragin sozial erreala sortzeko ahalmena duena ere.

Deialdia egundoko oihartzuna izaten ari da.

## Saridun erronkak

1 plataforman erronka propio berri 1 hedatu da eta 20 kanpo-erronka baino gehiago (Toribio Etxebarria Sariak, Buber Sariak...) sare sozialen bitartez:

### > Expobioenergiako Teknologia Berrikuntzari Saria

Sari horien 7º edizioan, antolatzaileek partaidetza gehitu nahi dute proiektu, produktu eta zerbitzu berritzaile guztiei sarrera emanez, haietan lehiaketaren osagai teknologiko eta espezializatua gehituz. Deialdian parte hartzeko baldintza bakarra bioenergiaren eremuan berrikuntza teknologikoen ekarpenak egin izana da.

## Openideiak blogaren
### Lankidetza Kontsumoa sailaren lehen urtea

Ibilbideko lehen urte honetan, ekimen bat baino gehiago ezagutarazi da, eta behinena Udaltruke da, lankidetza-kontsumoko lehen proiektua izateagatik euskal administrazioan

Udaltruke plataforma berritzailea da, ber-erabilera bideratu eta sustatzen duena, Enkarterrialdeak sustatutako proiektu honetan parte hartzen duten 15 udaletako bakoitzak dituen ondasun eta materialen doako trukearen bitartez.



# First Lego League Euskadi: Berrikuntza Eskola

## FLL Euskadi 4º edizioa

Karmengo Ama (Amorebieta), Colegio El Regato (Barakaldo) eta Axular Lizeoko (Donostia) izan ziren First Lego League Euskadi laugarren edizioko irabazleak, torneoko hiru probetan talde osoenak izatagatik: robotaren diseinua eta programazioa, proiektu zientifikoa eta baloreak.

Atze-oihal gisara gaurkotasun handieneko gai bat: zahartzea; erronka handinahi batekin: konponbide berritzaileen ekarpena egitea adinekoek aktibo, interkonektatu eta konprometitu jarrai dezaten.

Egindako ekarpenak izaera sozialarengatik nabarmendu ziren, non teknologia pertsonen zerbitzuan dagoen. Konponbide kontrastatuak dira, landa-landarekin, eta dagoeneko abian jarriak. Karmengo Amaren proiektu irabazlearen kasuan baratze ludiko, publizitate-kanpaina edo bertako hizkuntza gal ez dadin nagusiek gazteei emandako euskara-tailerretan oinarritutako belaunaldien arteko konexio-programarekin. Baina gazteek ere irakats diezaiekete nagusiei, eta hala egin dute El Regatoko ikasleek, zeinek bi hilabete eta erdiz teknologia berrien eskolak eman baitzizkieten Barakaldoko Integrazio Soziokulturaleko Zentroko erabiltzaileei.

FLL Euskadik, non parte hartu baitzuten 33 taldek, 9 eta 16 urte bitarteko 330 eskola-ikaslez eraturik eta 100 boluntario baino gehiagok, honako hauen lankidetza izan zuen: Euskaltel; La Caixa; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitateak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak; UPV/EHUko Zientzia Kulturaren Katedra; Iñaki Goenaga Fundazioa; Ausolan eta Tecnalia eta IK 4 teknologia-korporazioak. [Euskaltel - Derio, 2012ko abenduak 1]





## FLL Euskadi: ezagutza eta gaitasunen konexioa

Innobasquek berrikuntzako Euskal sistemako eragile lankideekin batera, FIYI Euskadiko partaideei zahartzeari buruzko prestakuntza-plan bat eskaini zien, enpresa, hezkuntza eta ezagutzaren transferentziaren arteko konexioa bideratuz teknologia-zentroetatik eta unibertsitatetik gizartera.

Hartara, taldeek bisitak egin zituzten Azti-Tecnalia, Basque Center for Neuroscience “Achúcarro”, Vicometch-IK4 eta Tecnaliara. Barruti sozialean, eskola-ikasleek UPV/EHUko Esperientzia Geletako, Europa guztian aitzindaria den 55 urte baino gehiagokoentzako unibertsitateko ikasleekin topo egin ahal izan zuten.

Irakasleek, bestalde, aurrez aurreko zenbait mintegi izan zituzten robotikaz, Innobasquek bideratutako on-line prestakuntza-plataforma baten osagarriarekin.

## FLL Xpress

Tecnoclub El Burgok bere proiektua hedatzeko jardunaldi bat antolatu zuen eta Urki taldekideak gonbidatu zituzten bertara. Bi taldeek beren proiektu zientifikoen aurkezpena egin zuten; Urkideren kasuan bastoi erako gauzakiak jasotzeko gailu bat, eta “Abuelomóvil-Agure Autoa” zigilua, adineko pertsonei egokia izango zitzaien automobil bat hautatzea errazteko pentsatua. Robot-lehiaketako erronda batzuk ere egin zituzten, eta jokoan jartzen dituzten baloreak erakusten dituzten posterrak era erakutsi zituzten. [El Burgo, 2012ko azaroak 24]

## Camps teknologikoak

Innobasque berriro lankide izan da ekimen berri honetan; FLL Euskadin oinarritua, materialen lagapenarekin eta hedapena egiteko laguntzarekin. Camps teknologikoek 6 egoitza izatera iritsi dira: Bartzelona, Bilbo, Donostia, Vitoria-Gasteiz, Madril eta Iruñea. [2012ko uztaila]



# Diplomazia Berritzailea

Nazioarteko gure kokamenduan errealitate berritzaile bezala aurrera egiteko programa, geure erakundeak beren nazioartekotzean lagundu eta nazioarteko nodo garrantzitsuenekin konektatzeko.




## TOPAKETAK:

- Bentley Unibertsitateko 20 ikasleren bisita interesaturik baitzeuden berrikuntzako Euskal sistemaren funtzionamendua sakontzen [2012ko abuztuak 8]
- Arica-Parinacota txiletar erregioko 8 pertsonako ordezkaritza baten bisita Euskadin eta Veneto, Trentino eta Emilia Romagna italiar erregioetan zehar egindako misio baten parte, Sare Proiektuaren esparruan Txileko eta Europako Batasuneko gobernuen arteko lankidetzan berrikuntzako erregio-estrategiak inplementatzeko. Innobasquera egindako bisitaren helburua berrikuntzako euskal sistema, ZTbP 2015 lantze- eta ezartze-prozesua ezagutzea izan zen eta Innobasqueren eginkizuna berrikuntza-agentzia bezala [2012ko irailak 5]
- Jeremy Schlickenrieder, Britainiar Enbaxadako Zientzia eta Berrikuntzako agregatuaren bisita, Derek Doyle Bilboko kontsulak lagunduta, Innobasqueren jarduerak eta hark Euskal herriaren geroaz duen ikuspena ezagutzeko asmoarekin [2012ko irailak 20]
- Txiletar ordezkaritza baten bisita, 13 pertsonak osatua eta Harry Jürgensen Caesar, Los Lagos Erregioko Erregio Kontseiluko presidentea buru zuela, Berrikuntzako Euskal Sistema, eta I+G+b-rekin zerikusia duten beste gai batzuk eta enpresa-ekintzailetza eta sustapena ezagutzeko asmoarekin [2012ko irailak 27]
- Cuernavacako Udaleko (Morelosko Estatua - Mexiko), ordezkaritza batek Euskadira egindako bisita Jorge Morales Barud alkatea buru zuela eta 7 pertsonaz osatua, Innobasque proiektua ezagutzeko, beste enpresa-proiektu batzuekin eta Bilbo, hiri baten hazkuntza-ereduarekin batera [2012ko urriak 10]
- Flora Montealegre Painter, (BID) Garapeneko Amerika arteko Bankuko Zientzia eta Teknologiako Sailaren buruzagiaren bisita, Gabriel Casaburi erakunde horretako espezialistak lagundurik Innobasquek berrikuntza egiteko duen eredua sakontzeko interesarekin BID bankuko beste hiru ordezkaritzak aldez aurretik egindako beste hiru bisiten ondoren [2012ko urriak 19]



- Angelica Matsuda, Peruko Ekonomia eta Finantzetako Ministerioko Lehiakortasun Arloko zuzendari betearazlearen bisita, Innobasqueren funtzionamendu-printzipioak ezagutzeko interesarekin, zeren eta bere Lehiakortasun Plana diseinatze-lanean ari baita [2012ko urriak 14]

- Bertrand Bouchet, Frantziako Enbaxadako Zientzia eta Teknologiarako kontseilaria Espainian denaren bisita, Vincent Reillon, Zientzia eta Teknologiarako agregatuak lagundurik, interes berezia erakutsi zuten Innobasque eredua ezagutzeko [2012ko urriak 17]



- Kroaziako Ekonomia Ministerioko 12 pertsonako ordezkaritza baten bisita, Darko Lorencin, Ekonomia ministroaren laguntzailea buru zela, berrikuntzarako Euskal estrategiaren diseinua eta inplementazioa eta, bereziki Innobasque ezagutzeko interesarekin [2012ko azaroak 30]

- Nick Greenwood, Britainiar Enbaxadako Ekonomiako aholkulariaren bisita Derek Doyle Bilboko kontsulak lagundurik, Euskal Herriko hazkuntza eta lehiakortasunaz hitz egiteko [2012ko abenduak 5]

# PARTAIDETZA HONAKO HAUETAN:

- Bankinter Berrikuntzarako Fundazioko Akademia programako irakasle-klaustroa, zeinei Innobasque atxikitzen baitzaio Estatuko unibertsitate batzuetan Berrikuntza eta Sistema Publikoko saioak emateko

- Cleantech Open Spain lehiaketako epai-mahaiaren panela, Opinnok antolatua; irabazlea Gomavial enpresa gipuzkoarra izan zen [Iruñea - 2012ko irailak 28]

- Bionetday, Biomimetic networking day kongresuan teknologia garbiei eta eko-berrikuntzari buruzko debate-mahaia, biomimetikak sortzen dituen negozio-aukerak aurkitzeko jardunaldi bat izan zen eko-diseinua, bioteknologia edo aeronautika diziplinatan [Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriak 18]

- 15th Annual TCI Global Conference-ren itxiera-ekitaldia, The Competitive Institute-k eta Orkestrak antolatua [Donostia, 2012ko urriak 19]

- “Master@work: Crossing Sectors-Bridging Gaps” hitzaldia, Global Social Innovation Forum-en barruan, non nazioarte-mailako 300 erakunde, gobernu eta lider arduradunek parte hartu baitzuten. Euskal Herriko barrutian, lankidetza publiko eta pribatutik, garatzen ari den esperientziaren ingurukoa izan zen hitzaldia [Singapur, 2012ko urriak 19]

- Kalitatearen Klub Asturiarraren urteroko sariak emateko irekiera-ekitaldia [2012ko azaroak 8]






> Bankinter Berrikuntzarako Fundazioarekin lankidetza bere Akademia programa emateko Euskal herriko Unibertsitatean (2012-2013 ikasturtea). Programa horren helburua geroko liderrengan jarrera berritzaile bat eta espiritu ekintzaile bat sustatzea da, lider berritzaileak izateko gaitasunak dituzten gazte unibertsitarioak identifikatuz eta indartuz

> "Krisi globalerako hautabideak: ekonomia berde baterantz" Jardunaldia APDk antolatua, Southern Europe's Cleantech Hub-ek ekimena aurkezten zuelarik [Bilbo, 2012ko azaroak 23]

> CONAMA Azoka, Bultzatu 2025en dibulgazioa eta Birgaitzeari buruzko Lan Taldeko arduradunekin bilera [2012ko azaroak 28]

# Innobasquek **SIP Fellow Award 2012** saria jaso du ekintzailetza sozial eta berrikuntzan egindako lanarengatik





Singapurreko Social Innovation Park-ek emandako sari honek Innobasquek berrikuntza sozialaren eremuan egindako lana aitortzen du hiru barruti estrategikotara orientatu delako. Gobernantza parte-hartzailea, 3Eak (zahartzea, hezkuntza eta enplegua), eta gizarte berritzaile baterako baloreak.

Singapurreko bigarren Ministroa eta Legebiltzarkidea arduratu zen Innobasqueri SIP Fellow Award 2012 saria emateaz "eragile berritzaile bezala ideia eta praktika berriak sarrarazi dituelako aldaketa positibo bat eragiteko xedearekin, espiritu aktibo batekin, mundu hobe, barne-hartzaileago eta jasangarriago bat sortzen duten eragin handi bat eta eredu jasangarriak sortzera bideraturik". [Singapur, 2012ko urriak 19]

- Oviedoko Unibertsitateko doktorego-jardunaldiak ikerkuntzen hedapenarekin zerikusia duen komunikazioaren inguruan [2012ko azaroak 29]

- Eraikuntza Jasangarriari buruzko mahaiaren aurkezpena eta moderazioa Itun Berdeko enpresen arteko topaketan [2012ko abenduak 10]

- "Unibertsitateak, berrikuntza sozialaren motorrak" Panela, Oviedoko Unibertsitateak antolatutako G9ko I. Doktorego jardunaldien esparruan burutua [Mieres, 2012ko abenduak 13]

- (INAP) Administrazio Publikoko Nazio Institutuak antolatutako jardunaldia Berrikuntza Sozialaz [Logroño, 2012ko abenduak 13]

- Mahai-ingurua: "Diseinua modaren sisteman: elkardependentzien ebidentzia" Kutxa Kultur Lana - Gazte Diseinatzaileen III. Lehiaketaren barruan [Donostia, 2012ko abenduak 19-21]





# Innocampus

Unibertsitatea eta merkatuaren arteko lankidetza sustatzen duen ekitaldia. Innobasquek planifikaturik ditu lankidetza-akordioak euskal unibertsitate-gunearekin, gradu ondoko ikasleek praktika burutu ditzaten, edo ikerketa bat garatu, Innobasqueko proiektuak sendotuz doazen neurrian.

- Jakitun izanik lankidetza sustatzearen garrantziaz unibertsitate-barrutiaren eta merkatuaren artean, Innobasquen lanean jarraitu da 2012an zehar euskal unibertsitateekin Eraldaketaren mesederako izango diren lankidetza-aukerak identifikatzeko eta elkarrekiko lan-lerroak definitzeko. Zehatz esanik, 2012ko bigarren seihilekoan, zazpi pertsona sartu ziren beren praktikak egiteko Innobasquen Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, UPV/EHU,COMMA taldea eta Ekonomialarien Euskal Elkargotik etorrita.
  Lankidetza horiekin lagundu egin nahi zaio unibertsitateari enpresara hurbiltzen eta aukera eman nahi zaie gazteei lan-munduarekin eta berrikuntzarekin kontaktuan sar daitezen, eta era praktiko eta azeleratuan garatu ditzaten bakoitzak bere ikasketetan lortutako ezagutzak

- Itxiera-hitzaldia Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateko Hirigintza, Eraikuntza eta Zaharberritze Jasangarria Ikastaroko lehen edizioan [2012ko uztailak 19]

- Novia Salcedo Fundazioko Lanaldi ekimenean partaidetza, zeinen bitartez unibertsitate-aurreko 3 ikasle integratu baitziren Innobasqueko pertsona boluntarioen lan-jardunaldi batean, ikasleek ezagutu zezaten nolakoa den berrikuntza-agentzia bateko lan-egun bat. Helburua honako hau zen: era efizienteagoan geroko hautespen akademikoan orientatzen laguntzea [2012ko azaroak 30]



# Bazkideentzako programa

Innobasque osagai sozialeko proiektu bat da, eta haren misioa eta ikusmoldea burutzeak erakunde bazkideen malgukiak aktibatzea inplikatzen du derrigor eta Eraldaketa sozioekonomikorako gaitasunen batura egitea.

Innobasqueren balioa haren bazkide-sarean datza. Haiek laguntzen dute Herrialdea eraldatzearen zeregin garrantzitsuan, beren gaitasun eta trebetasunen, beren baliabideen, beren ideien eta baloreen ekarpena eginez.

## Innobasque Exchange

Bazkidearen eginkizuna eraldaketa-eragile bezala balioan jartzearen helburuarekin jarraituz, 2012ko bigarren seihilekoan Innobasque Exchange abiarazi zen. Innobasqueko bazkideena eta bazkideentzat den ekimen horrek kanal horren, eta haren osakideen lankidetza-ahalmena aktibatzea bilatzen du, moduak eta metodoak arakatzearen bitartez, zeinek egingo baitute partaideek proiektu berritzaileak ezagutu eta aztertzea, beren gaitasunen ahalmena detektatzea, haietan sakontzea eta, azkenik, lankidetzarako bideak eta negozio-aukera berriak bilatzea.

Bi edizio izan dira eta haietan hogei proiektu berritzaile aurkeztu dira, lankidetza-akordio garrantzitsu batzuk dagoeneko gertatu direlarik teknologia-zentro eta itun estrategikoekin beste enpresa batzuekin. [2012ko uztailak 11 eta azaroak 21]





Zeure proiektua aurkeztu nahi baduzu, hona bidal dezakezu: mruiz@innobasque.com

Aurkeztutako proiektuak honako hauek izan dira:

- Alhymotion Hydrogen Refueling Station **(Alhymotion)**
- Auñamendi Eusko Entziklopedia **(Eusko Ikaskuntza)**
- Energia-bankua **(Enerbide)**
- Bioeskola BBK **(Emaus)**
- Birloki system **(Kemuri)**
- Brand Evolution System **(Urbegi Brand Mathematics)**
- Cyrcle **(Simplio)**
- Eldersarea **(Ideable)**
- Globalink **(Elkano Consulting)**
- HBiO, uraren kudeaketa jasangarria **(HBiO)**
- Hermeneus **(Hermeneus)**
- Efizientziaren bidea **(Gese Energia Zerbitzuak)**
- Meetabout **(Techabout)**
- Moway **(Minirobots)**
- Pansano **(Otana)**
- Marrazketa teknikoaren irakaskuntza eta ikaskuntzarako on-line plataforma **(BBY Digital)**
- Naturan oinarritutako konponbide berritzaileak **(Biomimetiks)**
- Spotbros **(Spotbros)**
- The sustainable event **(Ercisa)**
- Xramp, munduko lehen uhin garraiagarria **(Xramp)**

# Innobasque Exchange-ko partaideen iritzi batzuk

"Innobasque Exchange ekimen bikain bat da berrikuntza-ekosistema bat sortzen laguntzen duena".
**Fernando Calvo, Spotbros**

"Esperientzia aberasgarri bat, berari esker enpresak oraindik mugitu egiten direla hauteman dugu, berritzeko, hobetzeko ilusioa dago oraindik, garaiak gorabehera eta ekimen interesgarriak ezagutzeko aukera eman digu eta haietan lankidetzan arituko gara".
**Ane Sistiaga, Elkano Consulting**

"HBiOk, zehazki honako hau lortu zuen: itun-gai estrategikoak bi enpresarekin eta zenbait kontaktu eta lankidetza bezero-gaiekin. Innobasque Exchangerekin hilabeteak iraun dezakeen lan bat hasten da, baina azkenean fruituak ematen dituena".
**Miguel Retolaza, Hbio**

Innobasque Exchangeko gertaldian izatea oso interesgarri gertatu zait, eta interes orokor handiko Euskadiko enpresa-ekimenak ezagutzeko aukera eman dit, eta horietako batzuk nire negozioarekin estuki loturik edo lerrokaturik daude. Gertaldiaren formatua oso abegikorra izan zitzaidan eta era aktiboan parte hartzera gonbidatu zuen".
**Eduardo Elorriaga, CEO Hermeneus**

"Aukera ezin hobea gure jarduera ezagutarazi eta hedatzeko. Biomimetika gorantz datorren diziplina bat da eta, beraz, pertsona gehienentzat ezezaguna dena, horregatik eskertzen diogu Innobasqueri egin zigun gonbidapena. Aukera honek harreman berriak egitea ahalbidetu digu, eta haiei geure lankidetza-proposamenak azaldu ahal izan dizkiegu, etorkizuneko proiektu baterako bihurtuko direla espero dugunak".
**Sergio González, CEO Biomimetiks**

"Akuilu bat ohikoak ez diren giroetan mugitzeko, beste eragile batzuk ezagutu eta intereseko beste dinamika batzuk... hitz batean, lankidetzak bilatu ahal izateko".
**Iñaki Martinez de Luna, Eusko Ikaskuntza**

## EMAITZAK

- 1.444 eragin mediotan bigarren seihilekoan, guztira 3.021 urtean (8,2 eragin / eguneko)
- 2012an zehar metatutako urteko entzuleria 320,6 milioi pertsonakoa da
- Hazten jarraitzen dugu sare sozialetan: Innobasquek 7.500 jarraitzaile ditu twitterren, 2.000 aipamen eta 2.850 birtxio baino gehiagorekin
- Openideiak-ek urtea 5.300 pertsona erregistraturekin bukatu du
- Global Innovation Dayren ospakizuna [2012ko irailak 20]
- SIP Fellow Award 2012 Saria Innobasquek ekintzailetzan eta berrikuntza sozialean egindako lanarengatik [2012ko urriak 19]
- 20 proiektu berritzaileren aurkezpena Innobasque Exchangeko 2 edizioetan [2012ko uztailak 11 eta azaroak 21]

## ALBISTE IZANGO DA

- Abiarazpena: InnobasqueNews, berrikuntzako argitalpen berri nazioarteko barrutirako hilabete biko izaerarekin
- Innobasque Exchangeren hirugarren topaketa [2013ko martxoak 20]
- FLL:
  - FLLren espainiar amaiera [Bartzelona, 2013ko martxoak 16-17]
  - World Festival Sant Louis [EEBB, 2013ko 24-27]
- Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateko Hirigintza, Eraikuntza eta Zaharberritze Jasangarriko Espezializazio Ikastaroko 2º edizioan parte hartzea [2013ko urtarrilak 25]
- Deustuko Unibertsitateko Informazioaren segurtasun-masterreko Berrikuntza eta Kalitateari buruzko moduluan eskolak ematea
- UPV/EHUko Komunikazio Korporatiboko masterrean saioa ematea [2013ko otsailak 26]

# Innobasque medioetan



## Europar Batzordeak Bilbon landutako zahartze aktiboari buruzko ondorioak jasoko ditu

RDi Press - 02/07/2012

Adin guztietako 160 pertsona gizarteko barruti desberdinetatik eta Europako herrialde askotatik etorriak partaide izan ziren Bilbon Zahartze Aktiboa eta Berrikuntza Sozialaren World Kafea jardunaldi bizi batean, World Café Europek Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentziarekin batera antolaturik, 2Europar Ahotsak Zahartze Aktiboaren alde" goiburupean. Ekimen hori Europar Batzordeak finantzatu du eta 2012 Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Urte aldarrikatu du.

## Innobasqueko bazkide-sareko dozena bat proiektu berritzailek lankidetza eta finantzazioa bilatzen dute

El Economista - 10/07/2012

Berrikuntzako Euskal Agentziaren egoitzak abegia egin dio Innobasque Exchange ekimenaren lehen edizioari, bazkideentzat eta bazkideena den proiektu bati eta bertan haietako hamarrek bere proiektu berritzaileak erakutsiko dituzte,zeinentzat lankidetza behar baitute "partenerrak", finantzazioa, lankidetza, hedapena, partaidetza, kontrastea, trukea, sinergiak, eta zerbitzuak bilatzearen bitartez.



## FLL Euskadi: berrikuntza-eskola bat

Txema Villate,
Innobasqueko zuzendari nagusia
CIC Network - 2012ko uztaila

Erreportaje honetan Txema Villatek zera azaltzen du, zientzia-teknologia-gizartea harremana osagai funtsezkoa dela herrialdeak eta erregioak ezagutzaren gizartean integratzeko. Zientzia eta teknologia oinarrizko elementuak dira kulturan eta era erabakigarrian eragin dute Gizateriaren baldintzak hobetzen. Hala ere, gaur egun kultura zientifikoaren ez-ezagutza handia dago orokorrean, bai eta zientziarekiko interes-gabezia ere gizartean. [...] Innobasquek bultzatzen duen First Lego League Euskadi ereduak zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko helburua betetzen du paradigma sortzaile, taldeko, interesgarri eta hunkigarria ere baden batetik.



## Gese Energia Zerbitzuak Innobasqueko enpresa-azeleratzailean sartu da

ESEFiZientzia - 13/07/2012

Gesek Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentziako enpresa-azeleratzaileko zigilua jaso du. Bilbon egoitza duen Gese garapeneko ahalmen handiko enpresa dela bermatzen du zigiluak, hau da, bere fakturazioa hamarrez biderkatzeko gai dela erakundea bost urtetan, nazioartekotzeko, produktu berritzaileen %25 saltzeko eta bere langileak %20an gehitzeko hiru urtetan. Hirugarren enpresa da zigilua hartzen Hib eta Virtualwareren ondotik.





## Bilbok mundu guztiko 400 exekutibo elkartuko ditu teknologia garbiez hitz egiteko

El País - 15/09/2012

Bilbo Cleantech Forum Europeren bederatzigarren edizioaren egoitza izango da, 2013ko apirilaren 16tik 18ra: irismen globaleko topaketa horretan mundu guztiko 400 exekutibo baino gehiago izango dira teknologia garbiekin zerikusia dutenak. Gertaera hori Southern Europe's Cleantech Hub-en Innobasquek bultzatutako eta Euskadin kokatutako garapen-planaren parte da, eta leku horrek bildu eta konektatu egiten ditu elkarren artean elementu bakarrak, zeinek bideratzen baitituzte negozio-aukera berritzaileak sortu eta haztea irismen globalarekin teknologia garbien merkatuan.



## Inork ez gaitu erreskatatuko

Guillermo Ulacia, Innobasqueko presidentea
El Correo - 27/09/2012

Iritzi-artikulu batean Guillermo Ulaciak dio gazteen belaunaldi berriak berrikuntza-sistemari eranstearen aldekoa dela hura azeleratzeko. "'Ikasten dutenengandik ikasi behar dugu' Euskadi lurralde berritzaileago bat egin nahi badugu, et hori beharrezkoa da, zeren hasieran genioen bezala, inork ez baikaitu erreskatatuko. Ereskaterako kapitala etxean daukagu".

## 1.000 pertsona baino gehiagok parte hartu dute berritzaileen hitzordua den Global Innovation Day-n

La Vanguardia.com - 20/09/2012

Global Innovation Dayren bigarren edizioak, irailaren 20an Bilboko Euskalduna Jauregian ospatua eta Innobasquek antolatua 1.000 pertsona baino gehiagoren bertaratzea eta partaidetza izan du. Jardunaldian zehar konstatatu ahal izan da gaurko bezalako egoera nahasi bat gainditzeko berrikuntzari ekin behar zaiola ekintzara bideratuz, aurreztutako ekimenek egin duten bezala aukerak baliatuz, haietako asko txikiak izanik ere irismen globalekoak dira eta beste batzuk dimentsio handiagokoak.




## Kronikoen Sareko erabiltzaileak kanpaina baten protagonista izango dira bazkide berriak atzemateko

Gente - 19/09/2012

Kronikoen Sarearen kanpaina berriko bideo nagusiko protagonistak paziente kronikoen euskal sareko erabiltzaile errealak dira. "Con ánimo. Gogotsu" lelopean bazkide berriak atzeman nahi dira eta dagoeneko badirenak, leialdu. Kanpaina hori ostegunen honetan Bilboko Euskalduna Jauregian aurkeztuko den Global Innovation Day 2012n aurkeztuko da.

kronikoen sarea
La red vasca de pacientes



## Innobasque Urteko Berrikuntzako Txostena prestatzen ari da

Innovaspain.com, 28/09/2012

Innobasquek sustatu eta koordinatu egiten du "Urteko Berrikuntza Txostena" lantzea, Euskadiko berrikuntzaren inbertsioak eta hark hazkuntza ekonomikoa eta produktibitatean duen eragina neurtzen dituena. Azterlan honen egitura eta osaera balidatzeko Batzorde Tekniko bat eratu da Mondragon Unibertsitatea, UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Tecnalia, IK4 Research Alliance, Orkestra, Eustat, Confebask, Etorbizi, Kronikgune eta Eusko Jaurlaritzak osatua. Aurreikusita dago "Urteko Berrikuntza Txostena" 2013ko lehen hiruhilekoan aurkeztea.



## "Euskadi Espainiako Kalifornia izan daiteke duen egokitzeko ahalmenarengatik""

Pedro Arboleda,Group-eko bazkidea
Expansión - 01/10/2012

Pedro Arboleda estatubatuarra Monitor Groupeko bazkidea da, Michael Porter-ek 1983an sortu zuen Massachusetts-en egoitza duen kudeaketako multinazionala. Arboledak Euskadi bisitatu zuen Global Innovation Day-n parte hartzeko eta euskal enpresak adoretu zituen beste atzerritar batzuekin lankidetzan aritzera Euskadiren ahalmen berritzailea nazioartean indartzeko.

## First Lego League Euskadi lehiaketaren laugarren edizioa abian

Europa Press.es - 02/10/2012

Innobasquek laugarren urte jarraituz antolatu du Lego League-ren (FLL Euskadi) euskal edizioa, izan ere bilakaera propioa izan du eredu desberdindu, benetako berrikuntza-eskola bat bihurtu arte. FLL Euskadi (FIRST ´For Inspiration and Recognition of Science and Technology´ Lego League) robotika, zientzia eta teknologiako torneo bat da kirol-gertaldi baten formatua duena 9 eta 16 urte bitarteko estola-ikasleei zuzendua, mundu guztian jokatzen dena, berrikuntza, sormena, talde-lana eta bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatzeko. Partaideek abenduaren 1ean aurrez aurre izango daten erronka zahartzea izango da.



## Gasteizek harrera egingo dio teknologia garbietako inbertitzaile eta enpresen arteko topaketa bati

EFE Verde - 04/10/2012

Vitoria-Gasteizek harrera egingo dio, urrian, Innobasque, Repsol eta Sodenarekin batera, Europako eta EEBBetako arrisku-kapitaleko inbertitzaileen eta Europan Cleantech Open lehiaketaren finalista edo irabazle izan diren teknologia garbi berritzaileenen lehen europar topaketari.





## Berritu gehiago, hobeto, bizkorrago

Guillermo Ulacia, Innobasqueko presidentea

El Correo, 09/10/2012

Lehendakariari egindako gutun batean, Guillermo Ulacia, Innobasqueko Batzorde Betearazlearen izenean, hari zuzentzen zaio honako proposamen hauek egiteko: diagnosi eta konponbide partekatuak, desenplegua enplegatzea, pribatuan eta publikoan berritzea, erantzunkidetzako eredu berriak, enpresa-ehuna biziberritzea eta euskal identitatea abantaila lehiakor bihurtzea.

## Innobasquek berrikuntzarako SIP 2012 nazioarteko saria jaso du

Abc.es - 20/10/2012



Gotzon Bernaola, Innobasqueko Programa-zuzendariak, Jaso du gaur, zeremonia baten baitako ospakizunean, Singapurreko Social Innovation Park-ek (SIP) ematen dien saria "mundu guztiko ekintzailetza sozial eta berrikuntzako lider hautatuei". Sariak aitortu egiten du "atxikita dauden eta lanean ari diren komunitateko sisteman sortzen ari diren aldaketak" eta " eta dakiten ongien jokatuz geroa eraldatzen duten eredu eta lidertzat hartzen ditu". SIP Fellow Awardek "gizarteko aldaketa-eragile frogatuak" bereizten dituzte.

## Innobasqueren hamar ekimen berri

El País, 21/11/2012

Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentziak Innobasque Exchangeren bigarren edizioari harrera egin zion: 1.000 bazkideren eta bazkiderentzako proiektu bat, non haietako hamarrek beren proiektu berritzaileak erakutsi baitzituzten, izan ere haientzako lankidetza-formula desberdinak bilatzen ari dira. Partaideak: Kemuri, Techabout, Hermeneus World, Ercisa, Enerbide, Ideable Solutions, Symplio Lifestile Technologies, Biomimetiks, BBY Digital eta Alhymotion.

## EESa Euskal Herrian, erantzukizuna haren idiosinkrasiaren osagai da

Corresponsables, 04/11/2012

Corresponsables aldizkariak eta Deustuko Unibertsitateak antolatutako gosari batean, zeinean parte hartu duten Metro Bilbao, Velatia, Deusto Business School, San Prudencio Lan Fundazioa, Ihobe, Irizar Taldea, Bizkaiko Aldundia, Sustainable Reference, Ulma Taldea, Fagor, Eroski eta Innobasquek, krisiari irtenbide arduratsua aurkitzea erronka nagusietako bat bezala agertu zelarik.





## EKk I+G+b-ko planak aurkezten dituzten eteen %30 laguntzen dio

Cinco Días, 25/11/2012

Jardunaldi berriemaile baten bitartez Innobasquek, Spri Taldeak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak eta Enterprise European Network (EEN) sareak ezagutarazi egin zituzten 2013rako I+G+b-ko proiektuak nazioartekotzeko deialdi berriak, zeinen bitartez finantzazioa lor baitaiteke nazioz gaindiko I+G proiektuak burutzeko, hau da, Europako Batasuneko beste herrialde eta erregio batzuekiko elkarlanean. ERA-NET proiektua da, Europar Batzordearen ekimen bat europar herrialde eta erregioen artean elkarlana sustatzeko ikerkuntza eta garapenaren gaian, zeinean Euskadi erregio erreferente bihurtu baita.

## "Innobasqueren ziklo berria haren jarduera sendotu eta haztera bideraturik dago"

Txema Villate,
Innobasqueko zuzendari nagusia
Empresa Estrategiaren Berrikuntzako Gidaliburua. 2012ko abendua



Berrikuntzako Gidaliburuaren hasierako iritzi-artikulu batean Ulaciak dio "berrikuntza komunitateko lokarriak indartzen dituen palanka bat dela eta eragile berritzaileen arteko lankidetzan ideiak ernetzen laguntzen duela,enpresa-ekimenak abian jartzen, izan ere horiek dira hainbeste behar dugun enplegua ekarriko dutenak, enpresek behar duten pertsonen talentua eta aukera berrien bitartez beren burua birsortzeko aukera emango dien berrikuntzak aurkitu ditzaten.

## Berrikuntzako praktika hoberenak

El País.com, 27/11/2012

Tecnalia, IK4 Research Alliance, Euskampus Fundazioa, Deustuko Unibertsitatea; Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa, Velatia, Lantegi Batuak, Owl, Grupo Orona, Eroski, Vitoria-Gasteizko Udala y EIDE. Innobasqueko Astearteen 22º edizioak aukera eman zuen Euskal Herriko Berrikuntzaren Gidaliburua aurkezteko eta izenburu hau izan zuen: "Euskadiko berrikuntza haren protagonisten eskutik." Berrikuntzaren inguruan gaur egun Euskadin burutzen ari diren eta Euskadi gaitasun kontrastatuko lurralde berritzaile bezala aitortzen laguntzen duten praktikarik hoberenak hedatu ziren. Partaideak honako hauek izan ziren: Tecnalia, IK4 Research Alliance, Euskampus Fundazioa, Deustuko Unibertsitatea; Mondragon Unibertsitateko Goi Estola Politeknikoa, Velatia, Lantegi Batuak, Owl, Orona Taldea, Eroski, Vitoria-Gasteizko Udala eta EIDE.



## Berrikuntza badabil

Guillermo Ulacia, Innobasqueko presidentea
Empresa Estrategiaren Berrikuntzako Gidaliburua. 2012ko abendua

Berrikuntzako Gidaliburuaren hasierako iritzi-artikulu batean Ulaciak dio "berrikuntza komunitateko lokarriak indartzen dituen palanka bat dela eta eragile berritzaileen arteko lankidetzan ideiak ernetzen laguntzen duela,enpresa-ekimenak abian jartzen, izan ere horiek dira hainbeste behar dugun enplegua ekarriko dutenak, enpresek behar duten pertsonen talentua eta aukera berrien bitartez beren burua birsortzeko aukera emango dien berrikuntzak aurkitu ditzaten.






## Cleantech Forum Europe 2013 Latinoamerikako enpresen zain

Notimex, Mexikoko Albiste Agentzia, 28/11/2012

Cleatench Forum Europe-ren IX edizioa 2013ko apirilean egingo da Bilbon eta energia eta teknologia garbietan interesaturik dauden Latinoamerikako enpresak bertaratzearen zain dago. Cleantech Forum Europe da Europaren hegoaldean lehen aldiz egingo den teknologia garbien foro europar garrantzitsuena, sektore indartsu horretako gune geografikoko nazioarteko merkatuen kokamenduari laguntzeko xedearekin.



## Karmengo Ama, Amorebietakoak, irabazi du First Lego League

Qué Nervión, 03/12/2012

Amorebietako Karmengo Amak irabazi zuen First Lego League Euskadiren laugarren edizioa, zeina baitzen zahartzearen ingurukoa eta zeinean parte hartu baitzuten 33 taldek, 9 eta 16 urte bitarteko 330 eskola-ikaslek osaturik, nerbioz, ezustekoz, musikaz, robotez, dantzaz,zientziaz, berrikuntzaz, mozorroz eta sormen handiz beteriko jardunaldi batean. First Lego League Euskadik zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzen ditu.

# Seihileko argitalpenak




## Euskal I+G+b-a Europan - Koaderno estrategikoa 2011

Egilea: Eusko Jaurlaritza, SPRI, Innobasque
Data: 2012ko uztaila

Oraingo dokumentuak Europako I+G+b-rako 2006an planteatutako helburuen berrikuspena gauzatzeaz gainera, Euskal Herriaren iragana, orainaldia eta, batez ere, geroa ulertzeko beharrezko informazioaren bilduma bat izan nahi du I+G+b-ko europar programetaranzko bere ibilbidean.
Halaber, edizio berri honek gidaliburu praktikoa izan nahi du intereseko informazioarekin, nola europar I+G+b-ko gaietan ezagutzarik ez izan arren halako jardueretan hasi nahi dutenentzat, hala Europan esperientzia duten pertsonentzat, ezagutza zabalagoa izan nahi dutenentzat nolakoa izaten ari den euskal partaidetza europar proiektuetan.




## Minutu bat berrikuntzarako

Egilea: Innobasque
Data: 2012ko abendua

Argitalpen honek bere baitan jaso ditu “Minutu bat berrikuntzarako” ekimenari atxiki zitzaizkion mota guztietako 79 erakundek burututako jokaerak; 2011n Innobasquek abiarazi zuen lankidetza-berrikuntzako ekimen hori berrikuntzaren kultura barreiatzeko asmoarekin, eta bertan 170 erronka identifikatu ziren eta 8.523 ideia saiatu ziren haiek konpontzen.
Argitalpenak erakunde horien lana aitortzeaz gainera, ikusgaitasuna eskaintzen die lankidetza-berrikuntzako praktika onei.
inspirazio eta ikaskuntza izan daitezen beste erakunde batzuentzat.




## Metodologia-esparrua Enpresa Erantzukizun Soziala ezartzeko Euskadin

Egilea: Innobasque
Data: 2012ko abendua

Argitalpen hau erreferentzia-esparru bat da EESa ezartzeko, erakunde eta antolaera publiko eta pribatu eta hirugarren sektorekoekin lankidetzan diseinaturik, zeinak lankide baitira Innobasquerekin barruti horretan (i-Taldea). Gogoeta-ibilbide bat da erantzuna eman behar zaien funtsezko auzik planteatzera zuzendua.Gidaliburu erraz eta baliagarria da jasangarritasunaren bitartez enpresei kokagune lehiakorrean aurrera egiten lagundu nahi diena.




## Leroy Merlin kasua, pertsonengan oinarritutako enpresa-proiektu bat

Egileak: Javier Zarrabeitia
Data:  2012ko urria
Leroy Merlin ADEO, brikolajeko nazioarteko merkatuko lehen talde frantsesa eta bigarren europarrari atxikitako enpresa da. 1989az geroztik Espainian dago eta enpresak lidergo-kokagune bati eutsi dio. Bezeroaren gogobetetasuna bilatzeaz gainera, Taldeko enpresek partekatzen duten filosofia eta balore partekatuen ardatza pertsona enpresaren aberastasun handientzat hartzea da.




## Barneekintzailetza gaiaren azterlana

Egileak: Eneka Albizu, Juan Antonio Azkunaga, Ana Beraza, José María Beraza, Isabel Fernández, Unai Goyogana, Jon Hoyos, Mª Asunción Ibáñez, Jesús Matey, Aitziber Núñez, Unai Núñez, Eneritz Onaindia, Carlos Ochoa, Milagros Pérez, María Saiz,Oskar Villarreal, Koldo Zabalza.
Data: 2012ko abendua
Azterlan honek 9 enpresa azterturen esperientzia praktikoa darabil (TTT Taldea, Vilaumedia, Sener, Polsa-Ormazabal, Ikusi, Abantail, Progenika Biopharma, Batz eta Lanik), dimentsioa eta sektorea desberdinetakoak, barneekintzailetzaren praktika nola bizi izan daten eta bizitzen ari diren.




## Geroaren Egoera 2012 Txostena. Laburpen exekutiboa

Egilea: The Millennium Project
Txosten honek begirada prospektiboa eskaintzen du hamabost erronka globalen inguruan gizateriarentzat, geroko eszenatokiekin kontrastaturiko gaurko datuetatik abiatuta.
Azterlan horrek, berrogei herrialdetako 2,500 akademiko baino gehiagoren partaidetzarekin landuak, zenbait kapitulu berezi ditu bere baitan, eta besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira: Eszenatoki Globalak, Gobernantza eta Geroa, Ekonomia eta Enpresa.




## Global Competitiveness Report 2012-2013

Egilea: Munduko Ekonomia Foroa (MEF)
Txostenak 144 ekonomiatako lehiakortasunaren panorama ebaluatzen du, haien produktibitatearen eta oparotasunaren gakoen ikuspegia emanez. Aurten, txostenak honako hau erakusten du: Suitza dagoela sailkapen orokorraren buruzagitzan laugarren urte jarraituz. Singapurrek jarraitzen du bigarren kokagunean hirugarren kokagunean dagoen Finlandiarekin, 4. dagoen Suedia gaindituz.




## Zientzia eta Teknologiaren Pertzepzio Sozialeko VI. Inkesta

Egilea: FECYT
Inkesta honen helburua espainiar gizarteak zientzia eta teknologia hautemateko duen era neurtzea da. Datuek, lagun zabal eta adierazgarri batetik lortuak (7.784 elkarrizketa) eta Autonomia Erkidego guztietan burutuak, hau islatzen dute: espainiarren %88,6k uste du zientziak abantailen ekarpena egiten duela gizarteko bizi-kalitatea hobetzeko eta %87,1ek uste du garapen ekonomikoari ekarpena egiten diola. Gainera, zientziaren eta zientzia-gizon eta zientzia-emakumeen irudia positiboa da espainiar gizarte gehienarentzat, eta hiritarren %53k uste du Zientzia eta Teknologiaren onurak kalteak baino handiagoak direla, nahiz eta %12,1ek kontrakoa uste duen.



## Euskadiko A.E.ko Txosten Sozioekonomikoa 2012

Egilea: Eustat

Eustat- Estatistikako Euskal Institutuak txosten hau argitaratu du, zeinen helburu nagusia sintesiko obra bat eskaintzea baterako ikuspegi batekin azken urteetako euskal gizartearen garapen sozial eta ekonomikoaren bilakaera eta maila ezagutzea ahalbidetuko duena, konparaketen ekarpenak ere eginez, nola espainiar barrutian, hala europarrean.




## The Global Innovation Index 2012

Egilea: Insead eta Wipo

Txosten honek agerian jartzen du berrikuntzaren oinarrizko eginkizuna hazkuntza ekonomikoaren eta oparotasunaren motor bezala, bai eta berrikuntzaren ikusmolde horizontal zabal bat izateko beharra, nola herrialde garatuei aplikatzen zaiena, hala goranzko ekonomiei, berrikuntzako neurri tradizionalez harago doazen adierazleak bornean sartuz,(ikerkuntzaren maila eta herrialde baten garapena).
Bigarren urte jarraituz, Suitza, Suedia eta Singapurrek hartzen dituzte lehen kokaguneak berrikuntza-emaitzetan.



## Unibertsitatea, unibertsitarioak eta produktibitatea Espainian

Egilea: BBVA

Obra honen helburua unibertsitateetako irakaste- eta ikertze-jarduera ebaluatzea da, izan dituzten eraldaketak eta aurrean dituzten erronkak. Helburu horrekin, espainiar unibertsitatea nazioarteko testuinguruan kokatzen du, haren erakundeen heterogeneotasuna azpimarratzen du eta haren barne-prozesuak analizatzen ditu. Unibertsitarioak lanean sartzea ere aztertzen da, lan-merkatuaren, enpresa-ehunaren eta etengabeko prestakuntzaren garrantzia ebaluatuz giza kapitalaren baliamendurako.




## Capturing opportunity: Cleantech business booms around the world

Egilea: Grant Thornton

Teknologia garbien sektore globala hautabide bideragarri, oparo eta gerora bideratu bezala sortu da. Nahiz eta lehen sektoreko jarduera gorantz zetozen Start-upek elikatu zuten ideiaz, produktuz eta zerbitzu merkaturagarriz, gaur egun industriaren eta zerbitzu publikoetako enpresen parte on batek aukera izugarria ikusten dute sektorean eta hedapen bizkorrean dagoen merkatu horren zati bat nahi dute.




## Industria kultural eta sortzaileak. Ekonomia berriko funtsezko sektore bat (2012)

Egilea: Ideas Fundazioa

Industria kultural eta sortzaileak espainiar eta ekoizpen-eredu berriranzko trantsizioko ekonomiaren lehiakortasunean lehen mailako eginkizuna izatera deituta daude. Ahalmen handia eskaintzen dute berrikuntza-prozesuetako lehergarri gisara, baliabideak, ezagutzak eta talentu sortzailea aktibatuz, izan ere definigarriak baitira jardueraren sektore horretan.




## Health 2020

Egilea: World Health Organization

Ofizialki abiarazi da Health 2020 europar programa. Dokumentu honek, OMEren europar erregio-bulegoak prestatua, Europarako ekintza politikoko orientazio estrategikoak eta lehentasuneko arloak finkatzen ditu, osasun- eta ongizate-gaietan 2020 urtea arte.




## Informazio- eta komunikazio-teknologiak zahartze aktibo baten zerbitzuan.

Egilea: Enpresa eta Gizartea eta Imserso Fundazioa
PTICAE proiektuak, zahartze-prozesuko autonomiarako Informazio eta Komunikazio Teknologiei buruzko Enpresa Aukerak, IMSERSOko CEAPAT Autonomia Pertsonal eta Laguntza Teknikoen Estatu Erreferentziako Zentroak sustatua, enpresa-jokaera nabarmenenak biltzea du helburu zahartze aktiboago baten erronkari erantzun bezala.




## Education at a Glance 2012. OECD Indicators

Egilea: ELGE
Hezkuntzaren panoramari buruzko ELGEren txostenaren 2012 edizioak herrialdeei konparaketa egiteko aukera ematen die hezkuntza-terminotan.
Txostena 4 kapitulutan egituraturik dago: irteera profesionalak eta ikaskuntzaren eragina; hezkuntzan inbertitutako baliabide gizabidezkoak eta finantzarioak; hezkuntzarako irispidea, partaidetza eta progresioa; eta ikaskuntza-giroa eta eskolen antolaketa.




## Regional Innovation Scoreboard 2012

Egilea: Europar Batzordea
Erregio Berrikuntza 2012ko Adierazleen Koadroak lau taldetan sailkatzen ditu europar erregioak berrikuntza-mailaren arabera, Berrikuntzaren aldeko Batasuneko adierazleen antzera: 41 erregio daude lehen taldean, "berrikuntzaren liderrak" direnena, 59 erregio bigarren taldekoak dira, "berrikuntzaren jarraitzaileena", 39 erregio "berritzaile moderatuak" dira, eta 52 gehiagok laugarren taldea osatzen dute, "berritzaile apalena". Talde horietako bakoitza goi, ertain eta baxu azpibanaturik dago.




## Spain 20.20: EKT eta jasangarritasuna

Egilea: Jasangarritasuneko Bikaintasun Kluba
Finantza-ekaitz betean eta zor-krisia triskantzak egiten ari dela, kudeaketan aurreztea betebehar bat da. Eta alor horretan erabakigarriak dira Informazio eta Komunikazioko Teknologiak (IKTak). Ekonomiako zehar-lerroko sektoreetan haiek ezartzeak Espainiarentzat 601.802 milioi euroko aurrezki potentzial garbi metatua izatea ekar lezake, bai eta 218.000 enpleguren sorrera potentziala ere herrialdean 2020 arte.




## Green Power: 2012

Egilea: KPMG
KPMGren urteko txostena energia berriztagarrien merkatu globaleko fusioei eta eskuratzeei buruz VB/Research, energia berriztagarrien sektoreko datuak eta ikerketak hornitzen espezializatutako enpresak sektore horretako 500 goi-gidariren azterlana egin du. Partaideen artean honako hauek zeuden: enpresak, inbertitzaileak, zor-hornitzaileak; erakunde publikoak eta zerbitzu-hornitzaileak.




## Cotec 2012 Txostena: Espainiako Teknologia eta Berrikuntza

Egilea: Cotec
Txosten honek berrikuntzako I+G-ko adierazle nagusien bilakaera jasotzen du, nazio-mailan eta Autonomia Erkidegoen arabera, eta haien nazioarteko konparaketa, haren barruan sartuz, gainera, berrikuntzako espainiar sistemaren bilakaerari buruz ehun bat aditu baino gehiagoren iritzia eta kapitulu berezi bat aurten berrikuntzako giza kapitalari eskainia.
Nola adierazleen emaitzak hala adituen iritziak zera adierazten dute, krisiaren efektuek argi at garbi eragiten ari direla berrikuntzako espainiar sistema hondatzen, eta datozen urteetan ere iraun egingo duela. Halaber, agerian jartzen dute berrikuntza eta I+G-a bultzatzeko premia espainiar ekonomiaren ekoizpen-eredu baten zutabe bezala.

# Innobasqueren balioa ...
# gure bazkideak

2012ko bigarren seihilekoan
43 erakunde gehitu dira, eta horiei
ongi etorri esaten diegu

**ACHUCARRO BASQUE CENTER FOR NEUROSCIENCE FUNDAZIOA**
Ikerbasque y UPV/EHUk sustatutako ikertegia, biologia neuro-glialeko ikerketa oinarrizko eta translazionalean aritzen dena, burmuin-gaixotasunetarako terapia berriak aurkitzeko, neurozientziako eremuan tokiko komunitatearekin lankidetzan eta nazioarteko erakundeekin, geroko neurozientzialariak prestatzeari ekarpena egiteko.
achucarro.org

**AGINTZARI**
Komunitatearen garapenean tarteko den enpresa soziala, esku-hartze sozialaren barrutian diharduena proposamen berritzaileak eta zailtasun-egoerako pertsona eta kolektiboen behar sozialak gainditzera bideratutako kalitateko zerbitzuak abian jartzen lan egiten duena.
agintzari.com

**ALHYMOTION**
Reflectia konpainiaren Start-upa, bioteknologia, bioenergia, energia-efizientzia, energia berriztagarriak eta eko-industriaren alorretan bere jarduera garatzen duena.
reflectia.eu/alhymotion

**ARTAZA TORRE SUSTAPENAK**
Enpresa eraikitzailea eta higiezinen sustapena.

**ATELEI ENGINEERING**
Irispide kontrol eta urruneko monitorizazioan espezializatutako oinarri teknologikodun enpresa. Bere produktu-gama propioaren sortzailea aholkulari bezala ere eskaintzen ditu zerbitzuak, irispide-kontroleko sistemak garatuz eta integratuz instalazio mota guztietarako.
atelei.com

**ATHLON**
Enpresa kooperatiba erreferente dena estatuan osasuna sustatzearen barrutian, aitortua bere izaera berritzailearengatik eta gizartean balioa sortzera bideratua.
athlon.es

**APLIQA AHOLKULARITZA ESTRATEGIKOA**
Aholkularitza-zerbitzuak, laguntza teknikoa eta aholkularitza, Eteei bereziki zuzenduak.
apliqa.es

**BBY DIGITAL 2818**
Marrazketa teknikoa irakatsi eta ikasteko plataforma digitala.
bbydigital.com

**BIDATEK INGENIERIA AMBIENTAL**
Empresa especialista en el sector del agua y con amplia experiencia en la industria alimentaria. Dedicada a la construcción de estaciones depuradoras de aguas residuales.
bidatek.com

**BIDENET**
Marketing eta 2.0 komunikazioko Urbegi Taldeko enpresa, ete eta enpresetara bideratutako on-line marketingeko estrategiak inplementatzen dituena.
bidenet.com

**BIOMIMETIKS**
Biomimetikako ezagutzaren aholkularitza eta transferentzia, Naturan oinarritutako konponbide berritzaileak bezeroei eskaintzen dizkiena.
biomimetiks.com

**BIOBAI**
Tokiko merkataritza txikizkaria sustatzeko tresna bezala gamifikazioa erabiltzen espezializatutako enpresa.
biobai.com

**CONSEJEROS DEL NORTE**
Komunikazio estrategikoko aholkularitza eta lanbide-zerbitzuak bezeroen proiektu korporatiboen arrakastari laguntzeko azken helburuarekin.
consejerosdelnorte.com

**COWORKING UNSINVIVIR CB**
Lankidetza-laneko gunea kostuak aurreztuz eta merkatu-aukerak eta sinergiak sortuko dituen komunitate batean parte hartuz lanean aritzeko diseinatua.
unsinvivir.com

**EMAGINARTE, DISEÑO Y COMUNICACIÓN**
Enpresa aitzindaria honakoetan: multimedia-ezarpenak eta eragin handiko weba, on-line marketing,web kokamendua (SEO / SEM Google), diseinu grafiko integrala (irudi korporatiboa, estilo-liburuak...), domeinuen erregistro eta ostatatzea, sare sozialak ezartzea eta SMO.
emaginarte.es

**EMAUS BILBAO**
Bazterkeria sozialeko egoeran dauden pertsonen inklusioa bideratzen duen erakundea proiektu, programa, ekintza eta itun eta ingurumen-zerbitzuetako jarduerak garatuz eta ekonomia sozial eta solidarioko printzipio eta baloreen arabera.
emausnet.org

**ENAIDEN**
Ingeniaritza-enpresa, diseinu industrial eta produktu-berrikuntzakoa, diseinu-ziklo guztiarena ideia kontzeptuala sortzetik hasi eta industrializazioraino.
enaiden.com

**ENERBIDE ENERGIA**
Energia-efizientzia eta aurrezkian espezializatutako enpresa aholkularitza eta kudeaketako zerbitzuak eskaintzen dituena energia-efizientzia, energia-aurrezki eta energia berriztagarrien barrutian.
enerbide.com

**ENTIENDO 2012**
Aholkularitza espezializatua berrikuntza, nazioartekotzea eta hazkuntza ekonomikoarekin konprometitua.
idientiendo.es

**EUSKAMPUS FUNDAZIOA**
Erakunde honen misioa honako hau da: Euskal Herriko Unibertsitatearen modernizatze-prozesua indartu eta azeleratuko daten jokaerak diseinatu, koordinatu eta gauzatzea Nazioarteko Bikaintasunaren Campus proiektua garatzearen bitartez.
euskampus.ehu.es

**EVOLERS ENTERPRISE**
Zerbitzuak, kudeaketa- eta administrazio-jarduerak, hezkuntza-zerbitzuak, zerbitzu sanitarioak eta entretenimendukoak, ikerkuntza, garapena eta berrikuntza eskaintzea. Jarduera zientifikoak eta teknikoak.
evolers.com

**GASTRONOMIA BASKA**
Catering, ostalaritza, jantokien kudeaketa eta Bilbon gertaldi handiak antolatzeko zerbitzu integralak.
gastronomiabaska.com

**GIPUZKOA BERRITZEN**
Gipuzkoako lurralde historikoan jarduera berritzailearen dinamizaziorako ekimena.
gipuzkoaberritzen.net

**HIRUDART**
3D-n edozein produktu/eszena diseinatzen aritzen den enpresa, irudi edo animazio modura. 3D diseinua du bere negozio-oinarria, eta hori ardatz nagusitzat harturik, 3D diseinua multimedia konponbide desberdinekin lotu da.
hirudart.net

**IDEABLE SOLUTIONS**
BTko produktuen garapena eta merkaturatzea pertsonen bizimodua hobetzeko balio dutenak.
ideable.net

**IKASPLAY**
Ikaskuntza-sistema berrien diseinu-enpresa informazio eta komunikazioko teknologia berrien bitartez, hartara irakaskuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa bideratuz.
ikasplay.com

**IMPETIA**
Energia berriztagarrietan espezializatutako aholkularitza.

**IMPRENTA COMERCIAL SAMPER**
Sektore grafikoaren enpresa, aurre-inprimatze-, offset eta digital inprimatze-sistemekin, koadernatzea eta akabatzea teknologia aurreratuenez hornituak dituena.
samperimpresores.com

**INNOVATION AND DEVELOPMENT - INBIOSIS**
Estrategia eta berrikuntzan espezializatutako aholkularitza. Enpresa-berrikuntzako proiektuak garatzen ditu helburu sozial eta ingurumenezkoekin.

**BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA**
Museoak,hiriaren elementu dinamizatzaile izateaz gainera Bilboko Itsasadarrean eta hartatik bizi izan diren gizonezko eta emakumeen historia, kultura identitatea kontserbatu eta hedatzeko xedea du, itsas tradizioari estuki loturik.
museomaritimobilbao.org

**NORGARA DESARROLLO**
Erakundeen eta pertsonen garapenerako aholkularitza, prestakuntza eta coaching-a.
norgara.com

**NOTONLY ARCHITECTS**
Arkitektura-estudioa, hiri-altzari interaktibo eta modularra sortzen espezialista.
sadaba.net

**OPTIMITIVE**
Software-zerbitzuetan eta haiek garatzen aritzen den enpresa industria-prozesuak optimizatu eta energia aurrezteko.
optimitive.com

**EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZA**
Eusko Jaurlaritzako ekintza koordinatzearen, harreman sozial eta erakundezkoen eta Euskadi atzerrian ordezkatzearen arduraduna; bai eta garapen eta genero-berdintasunerako lankidetza-politikena ere; eta medioen aurreko informazio, teknologia berrien garapena eta ekoizpen multimediarena ere.
euskadi.net

**ROXTEC**
Enpresa espezializatua kable eta hoditeriak barrentzeko erabateko zigilatze-konponbideak garatu, fabrikatu eta merkaturatzen.
roxtec.com

**SPOTBROS TECHNOLOGIES**
Enpresa honek geolokalizazioan oinarritutako aldibereko mezularitza-lanabesa garatzen du.
spotbros.com

**SYMPLIO LIFESTYLE TECHNOLOGIES**
Enpresa honek produktuen esperientziak diseinatzen ditu, mundu fisikoa Internetekoarekin fusionatuz. Helburu sozialak garatzea du helburu, adimenduna eta lankidetzakoak izateko Interneteko informazioa erabiltzen daten produktuak, erabiltzailearen ingurunea gune pertsonal eta emozionalago bihurtuz.
symplio.com

**TICONTRACK SOLUTIONS**
Negozio-zentroak Bilbon. Lan-gelen, lanpostuen, bilera-gelen, ikasgelen alokairua. Telefonoaren harrera eta arreta.
ticontrack.com

**URBANIA ZH GESTIÓN**
Zerbitzu publikoko erakundeei kudeaketa, aholkularitza eta prestakuntzako zerbitzuak ematen aritzen den enpresa, zerbitzu publikoen, batik bat udalenen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko helburuarekin.
urbaniazhgestion.com

**URBEGI BRANDMATHEMATICS**
Urbegi Taldeko enpresa, eLearning prestakuntza-metodologia eta ezagutza banatzen espezializatua.
brand-mathematics.com

**URBEGI PRODUCT RESEARCH**
UBM, EPD eta Bidenet-i beste marka, enpresa eta erakunde batzuei zerbitzu teknologikoak eskaintzen dizkien Urbegi taldeko hiru enpresari kohesioa ematen dien marka.
urbegi.com

**VICRILA GLASS TECHNOLOGY AND INNOVATION CENTER**
Vitech Vicrilaren I+G-ko enpresa-unitatea da, beiraren sektorerako teknologia berrien ikerkuntzan eta garapenean aritzen dena.
vicrila.com

**XRAMPWAVE**
Enpresa honek lehen uhin garraiagarria sortu du freeridea praktikatzeko.

cleantech forum EUROPE

2013ko APIRILAK 16-18 • BILBAO

Apirileko 16tik 18ra

CLEANTECH FORUM EUROPE 2013

Euskadira dator

Energia berriztagarriak

Agua

Viene a Euskadi

Energias renovables

Sare elektriko adimendunak

Gestión de residuos

Redes eléctricas inteligentes

Energia biltegiratzea

Kotxe elektriko eta hibridoak

Haizea eta ingurunea

Sol

Coches eléctricos e hibridos

Aire y Medio Ambiente

Teknologia garbien nazioarteko topaketa

Ecodiseiño

Mahai-inguru eta eztabaidak

Biofuel y Biomateriales

Europako eta Latinoamerikako proiektu berritzaileak

Teknologia garbien eremuko sare eta ekosistemekin harremanak

Hondakin-kudeaketa

Teknologia berritzaileen erakusketak

Ura

Un encuentro internacional de tecnologías limpias

Mesas redondas y debates con expertos

Agricultura

Proyectos innovadores de Europa y Latinoamérica

Contacto con redes y ecosistemas de tecnologías limpias

Exhibición de tecnologías innovadoras

Nekazaritza

Transporte

TECKOLOGIA GARBIAK

TECNOLOGÍAS LIMPIAS

Garraioa

%6,5eko batez besteko urteko hazkundea

Ekodiseinua

Uraren kudeaketa

2020. urterako 3 billoi euroko merkatua

Bioerregai eta biomaterialak

Lau urtetan, 600.000 enpresa berrien sorrera

6,5 % de crecimiento anual medio del sector

Eguzkia

Un mercado que moverá 3 billones de euros en 2020

Control de emisiones

600.000 nuevas empresas en cuatro años

Isurketen kontrola

Materiales avanzados

Material aurreratuak

Gestión del agua

Almacenamiento energético

Energia-eraginkortasuna

Eficiencia energética

Tours

Innovation Area

Hitzaldiak

Showcase

Conferencias

www.innobasque.com

SOUTHERN EUROPE'S CLEANTECH HUB powered by innobasque

cleantech GROUP LLC

**iTEM**, separata bildumagarria berrikuntzaren inguruko azken joera, tresna, estrategia, praktika on eta kontzeptu aurreratuenetara hurbiltzen zaituena. Emanaldi berri honetan diseinugintza industrialari eta hark euskal ekonomian duen eginkizunari ekiten diogu.

**Ignacio Solar**i elkarrizketa
Euskadiko Diseinugileen Elkarteko presidentea (EIDE)

# “Euskal diseinuaren indargune nagusietako bat industria-sektorearekin duen inplikazio estua da”



Euskadiko Diseinugileen Elkartearen hogeita bosgarren urteurrenaren ikuspegitik, haren presidentea den Ignacio Solak elkarrizketa honetan Euskal ekonomiaren arestiko historian diseinuak izan duen eginkizunaz hitz egiten digu (EIDE), bai eta haren indarguneez eta ahulguneez ere, eta geroko joerez eta ikuspegiez ere.

**Zein da diseinuaren eginkizuna gizartearen garapen industrial eta ekonomikoan?**
Diseinuak gizartean duen egiteko nagusia pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzea da. Ongizate hori lortzeko beharrezkoa da erantzuna ematea pertsonei eta beharrei haien adierazpenari eta bilakaerari kontu eginez gizartean. Zerbitzu-agertoki horretan, diseinuak lanabesak hornitzen dizkio enpresari bere erantzuna optimizatzera eta pertsona eta erabiltzaileekin lotura gehiago eta hobeak eragitera zuzenduak, hitz batean, negozio-aukera berriak bilatzera.

**Nola eragin du diseinugintza industrialak Euskal Herriko enpresa-garapenean?**
Diseinuak produktua, zerbitzua edo imajina hobetzen laguntzen duela aspaldi bere gain hartu zuten enpresek -ez dezagun ahaztu diseinua presente dagoela euskarri guztietan, zeinen bitartez enpresa gizartean agertzen baita eta zeinengatik baita atzemana- diseinu-estrategiak hartu zituzten beren gain eta gaur egun erreferente kualifikatuak dira. Diseinuak parte hartu zuen eta parte hartzen ari da neurri handi batean arrakasta horretan.

**Zein da gaur egun diseinugintza industrialaren egoera Euskal Herrian? Zein dira haren indarguneak eta zein indartu beharrekoak?**
Egia da, duela hamarkada batzuk, enpresa ugarik inplementatu dutela diseinua lehiakortasuna eta balio erantsia hornitzera zuzenduriko lanabes bat bezala; adibideak hala nola Irizar, Fagor, Orbea, etab., edo Sellex, Stua edo Akaba bezalako enpresak (azken horiek diseinuko nazio-sari bana irabazi dute) horren adierazgarri argiak dira. Halaber egia da enpresa mordo batek oraindik ez duela bere gain hartu. Zergatikoak ugari eta konplexuak dira, ez ezagutzatik zailtasun estruktural, finantzario eta abarretarainokoak.

> “Diseinuak lanabesak hornitzen dizkio enpresari bere erantzuna optimizatzera eta erabiltzaile eta pertsonekin lokarri gehiago eta hobeak eragitera, hitz batean, negozio-aukera berriak aurkitzera zuzenduak”

Besteak beste, euskal diseinuaren indargune aipagarrienetako bat industria-sektorearekin duen inplikazio estua da, haren fabrikazio-prozesuekin eta partaide deneko industria-proiektuen bideragarritasun-prozesuekin.

Zalantzarik gabe, hobetu egin behar dugu geure komunikazioa, geure burua ezagutarazi behar dugu. Euskal diseinuaren eta haren profesionalen balioaren publizitatea egitea EIDEn deliberatuki burutzen ari garena ataza bat da.

Argitalpen honetako edukiak **“Diseinua Euskadin. EIDEren 25 urte”** liburutik aterata daude.
Eskerrik asko **Euskadiko Diseinugileen Elkarteari (EIDE)** bere lankidetzarengatik.



BEC Bankada-sistema, 2004. Industria-sorkuntzako klap-laborategia Onn Outside-rentzat.

**Zein da euskal diseinuaren kokaera nazioarteko testuinguruan?**

Lehenago azaltzen zen bezala, gaurko unean gehiago baloratzen gaituzte adibide jakin batzuengatik "Euskal diseinuaren" pertzepzio batengatik baino zentzu orokor batena ulerturik edo "herrialde-marka" bezala. Hala eta guztiz ere, agertoki hori aldatzen nazioarteko, Europako edo Asiako enpresek euskal diseinuko enpresak kontratatzeak laguntzen du. Duela urte batzuk, diseinu-zerbitzuko gure enpresa hornitzaile batzuek nazioartekotze-prozesu bat abiarazi zuten argi eta garbi positiboa nabarmendu den eta gure irudiari balio-ekarpena egingo diona.

**Nola parte hartu du diseinugintza industrialak euskal enpresen nazioartekotzean?**

Diseinu-zerbitzuen hornitzaileak diren enpresa asko gai egitea nazio- edo nazioarte-mailako enpresek dituzten beharrei erantzuna emateko nazioarteko merkatuei zuzenduriko produktu edo zerbitzuekin izan daiteke gakoetako bat. Halaber. enpresak seguru egon behar du bere produktuaren diseinuak erantzungo duela merkatu global eta guztiz lehiakor batean, eta puntu horretan zure diseinu-hornitzailearengan konfiantza izatea funtsezkoa da. Lehen aipaturiko enpresen emaitzek abalatu egiten dute ibilbide hori neurri handi batean.

**Zer eginkizun izan du EIDEk prozesu horretan duela hogeita bost urte jaio zenetik?**

EIDE aldizkakotasun halako batekin Euskal Herrian diseinuaz arduratzen diren profesionalen sektorearen erreferentzia bezala mantendu da. Agian lehenago egindako lan horrengatik, duela zenbait urte elkartea fase dinamiko eta ilusionatzaileago batean aurkitzen da. 2014 Diseinuaren Munduko hiribururako Bilboren hautagaitzan gure partaidetzak, zeinean finalista geratu baitzen, eta era batera edo bestera Euskadin egindako diseinua indartzera zuzendutako merkataritza-misio, foro eta gertaldietako partaidetzak EIDE konprometiturik dagoen norabide bat markatzen dute

*"Diseinua Euskadin. EIDEren 25 urte"* argitalpenak elkartea sortu zeneko hogeita bost urteak ospatzen ditu eta 2013ko urtarrilean aurkeztu genuena, enpresarekiko sustapen eta sinergien konpromiso horren esparruan sartzen da diseinuak oro har dituen gaitasunak komunikatzera zuzendurik eta Euskadin egindako diseinuarenak bereziki.

> "Beharrezkoa da diseinua tartean sartzea produktuak sortzearen hasiera-faseetan"

**Zein dira geroko diseinugintza industrialaren joera nagusiak?**

Seguru asko, enpresaren barruan izaera estrategikoko lanabes bezala diseinua kontsideraztearen sendotze bat. beharrezkoa da diseinua tartean sartzea produktuak sortzearen hasiera-faseetan, kolektibo jakin batzuen ohitura, behar eta joerak aztertzen diren une horietan erantzun egokiak eman eta beste negozio-aukera batzuk bilatzeko konponbide berriak ezartzen, "erabiltzailearengan oinarritutako berrikuntza" deitzen dugun horretan. Ildo horretatik, prozesu edo kontzeptuen diseinuaren alderdi batzuk hala nola *design thinking* diseinu-lanabesak eta -teknikak erabiltzearen alde ageri dira berrikuntza-palanka bezala produktu eta zerbitzu berrien balioa sortzeko.

**Zer gomendio emango zenizkieke oraindik bere kulturari erantsi ez dioten enpresei?**

Aurrena jabeturik egon behar dugu beharrezkoa dela enpresa-prestakuntzaren alderi batzuk aldatzea, zein baitaude aurreiritzien oinarrian, diziplina hori ez ezagutzearenean ez bada. Zehaztera joz, diseinuarekin inoiz harremanik izan ez duen enpresa bati behar adinako aholkularitza bat hartzeko eta diseinu-auditoretza bat egin dezala beharrezko informazioa lortzera zuzendua egokitzat jotzen diren diseinu-jarduerak orientatzeko balioko dutenak. Garrantzitsua da honako hau transmititzea: diseinu-zerbitzuak hartzeak konponbideak hornitzen dituela lehiakortasuna hobetzea eta enpresak desberdintzea ahalbidetzen dutenak.

# EIDE 25 urteko diseinua Euskadin

Bere bizitzako hogeita bost urteetan, EIDEk zeregin garrantzitsua izan du Euskadiko diseinugintza industrialaren garapenean, euskal industrian bere burua neurri handiagoan edo txikiagoan txertatu eta erakundeetako plan estrategikoetan kontuan hartu izateko.

"Euskadin, lehen estudioak laurogeigarren urteetan sortu ziren; haietan ekipo-lanaren balorea zen nagusi, enpresarekiko konplizitatearena eta bere produktuak garatzeko prestakuntza teknikoarena"

Beste herrialde eta erkidegoekiko atzerapen pixkaren batekin, duela hogeita bost urte, tokiko Euskal erakundeak berak, industria, unibertsitatea eta profesionalak berak bat zetozen diseinugintza industriala egituratu eta bultzatzearen beharrarekin. Industria-ehunaren parte handi bat suntsitu eta Euskal enpresa askok lehiakortasuna galdu izanak apustu hori bereziki premiazkoa izatea eragiten zuten.

## Diseinugintza industriala ezartzeko lehen urratsak

Lehen neurri bezala, tokiko erakundeek, batez ere Gipuzkoa eta Bizkaiko foru-aldundiek beka-programa bat abiarazi zuten diseinugintza industrialeko europar eskoletan profesionalak prestatzeko, prestakuntza bultzatu zuten, diseinugintza industrialeko lehen azterlanak sortzea bultzatu zuten eta enpresentzako laguntza-programak bermatu zituzten diseinugintza industriala produktu-estrategiari eransteko eta I+G-ri bulkada emateko.

Hala ere, euskal enpresak uzkur ageri ziren diseinugintza industrialaren ahalmen estrategikoa beren gain hartzeko. Laurogeigarren urteetan, etxe-altzarien eta instalazioaren sektoreak, eta oro har, bere hazkuntza-beharrei erantzunak aurkitzeko Katalunian beren begiak jartzen zituen habitatarena salbuetsita, euskal industria-sektore nagusiak barneratzen ari ziren industria-diseinua izan zitekeela lehiakorrak izaten jarraitzeko nazioarteko merkatua eskatzen ari zen inflexio-gunea.

Beren produktuen diseinurako edo beren estrategien definiziorako kanpoko profesionalak kontratatzen hasi ziren lehen enpresak bulego-altzari, etxetresna elektriko, sukaldeko ontziteria, argikuntza eta elektrizitatearenak izan ziren. Beste sektore batzuk, hala nola makina erreminta, esku-erreminta, garraiobide, industria-elektronika eta abar beranduago etorri ziren, sinetsita baitzeuden (haren osagai estetikora murrizturik) ekarpen txikia egiten ziela beren produktuei.

Diseinugintza industrialeko unibertsitate-ikasketak ezartzean eta hori enpresa gehienetan integratzean, Mondragon Talde Kooperatiboa nabarmendu behar da, barne-ekipoak sortuz edo kanpoko profesionalekin lankidetzan, gero eta endogamikotasun gutxiagoko espiritu batekin.

## Bi soslai desberdin

Duela hogeita bost urte Katalunian bultzatzen zenaren aurrean, Euskadin bere gain hartzen hasten ari zen diseinugintza industrialaren joera bereizgarri bat ere nabarmendu zen: diseinugintza industriala eta ingeniaritza

Bragle Xurgagailua, 2007 ADN DESIGN Solac-entzat.



binomioa. Kataluniak Milanen aurkitu zuen bere sektorea eratzeko erreferentea ahalik eta ikuspegi zabalenarekin, diseinua arkitektura, dekorazio-arte, habitat edo arte plastikoekin Lotus. Hala ere, Euskadi Erdiko Europan edo Erresuma Batuan bilatzen zituen erreferentziak, non diseinugintza industrialari ikuspegi teknikoago, baitzitzaion, ingeniaritza-eskoletatik eta produktuaren garapenetik hurbilago zegoen batetik ekiten baitzitzaion

Katalunian, dekorazio-arteen sektorea bereziki garrantzitsua zen eta lehen diseinatzaileek arkitekturarekin eta, oro har, kulturaren munduarekin zuten konplizitateak beren diseinugintza industrialari soslai globalizatzaileago bat ezartzen zioten. Euskadiko industria-ingurunea guztiz bestelakoa zen: kulturarekin adierazpen guztietan inplikatutako burgesia ekintzaile hori ez zen hain garrantzitsua eta, horregatik, diseinuaren ontasunekiko haren sentsibilitatea urria zen.

Bi ingurune horiek, halaber, lanbide-soslai desberdinak definituz joan ziren. Katalunian jadanik berrogeita hamargarren urteetan figura garrantzitsuak sortu ziren hala nola Miguel Milá edo André Ricard, arkitekturatik eta arte-adierazpide nagusietatik hurbil zeuden diseinatzaileak, estudioak beren nortasun eta estiloaren inguruan sortzen zituztenak.

Euskadin, lehen estudioak laurogeigarren urteetan sortu ziren, gerora europar diseinu-eskoletan prestatuko ziren profesionalek eraturik; haiengan nagusi zen ekipo-lana, enpresarekiko konplizitatea eta haren produktuak garatzeko prestakuntza teknikoa. Hamarkada hartan aitzindariak izan ziren Euskadin, hurrengo belaunaldientzat erreferente bihurtu zirenak hala nola Guillermo Capdevila, Michael Weiss, Jon Abad Biota, Iosu Rada, Carlos Lalastra edo Joseba Adrada.




## Diseinuaren sustapena Bizkaian

Diseinua, jarduera ekonomikoari hertsiki loturik egotean, une konplikatu eta ziurgabetasunekoa bizi izan zuen, zeinek mehatxu egin baitzion dena geldiaraztekoa diseinua enpresen faktore estrategiko eta lehiakortasuneko bezala aitortu eta erabiltzeari. Hala ere, halaber berrikuntzari eta sormenari hertsiki lotutako sektore bat ere baden heinean, arrisku-egoerei konponbide berriak eta erantzun eraginkorrak aurkitzeko funtsezko elementuak, egoera hura aukera bat izan daiteke berarentzat. Eskakizun bakarra jarrera deliberatuak eta kementsuak hartzea da

"Kontua da eskura dauden energia guztiak mobilizatzea funtsezko helburu batekin"




aurrerapena eta ongizatea eragingo dituzten aldaketak lortzeko.

Laurogeigarren urteetan, Bizkaiko Foru Aldundiak proposamenak bultzatu eta eraldaketa-ekintzak koordinatu zituen herrialdea modernizatzera zuzenduak. Testuinguru hartan Bizkaiko diseinuaren egoera analizatzeko azterlan bat eginarazi zuen eta haren ondorioek DZ Diseinu Zentroaren jaiotza ahalbidetu zuten, espainiar estatuko diseinuaren sustapenerako lehen zentroetako bat.

DZk diseinua sustatzea bilatu du ehun publikoan diseinuak duen garrantziarekiko hiritarra sentibera izan dadin eta ongizate sozialaren garapenari hark egiten dion ekarpena balora dezan. Mezu horiek eraginkortasunez hedatzea lortzeko, Diseinuz aldizkaria editatu zen, zeinek balio izan baitu plataformatzat lankide eta aditu mota desberdinentzat, bai eta erreminta bezala ere proiektuak eta jarduerak ezagutarazteko.

DZk parte hartu zuen Diseinuaren Sustapeneko Erakundeen Espainiar Federakundea sortzen (FEEPD) eta 2000 urtean Diseinuko Nazio Sariaren aipamen berezia jaso zuen urte horietan guztietan egindako lanaren aitortza bezala. Ondoren, bere helburua zabaltzea eta jarduera berriak definitzea bilatuz, DZ BAI Bizkaiko Berrikuntza Agentzia bihurtu zen eta, Beazekin bat egin ostean eta marka hori hartu eta gero diseinua sustatzearen lana jarraitu zuen, baina ekimen eta erronka berriei aurre eginez.

Beazek bere gain hartu du diseinua sustatzeak berekin daramala eredu eguneratu bat bilatzea, errealitateari egokituagoa, diziplina horren txertatze ekonomiko eta kulturala ahalbidetuko duena. Eskura dauden energia guztiak mobilizatzea da kontua, helburu funtsezko batekin: diseinu-kultura gehitzea.

Premisa horiekin, Bilboren hautagaitza aurkeztu ondoren Diseinuaren Munduko Hiriburu izateko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak hitzarmen bat izenpetu dute eta berarekin abian jarri dute diseinua eta sormena sustatzeko lankidetza-organo bat: Bilbao-Bizkaia Design & Creativity Council (BIDC).

## Gipuzkoako diseinugintza industrialaren bilakaera

Diseinugintza industriala eta produktuak erabiltzeko Pizgarri Programa 1984an sortu zen, gipuzkoar enpresen katalogoa berritu gabe zegoela detektatu ondoren, bertako produktuak zaharturik zeudela eta ia herrialde garatu



Aldirietako trena, 2011. LKS Diara design Euskotren-entzat.

guztietan ezinbesteko elementua zela enpresetako produktu-politika finkatzeko.

Diseinua, produktuan berritzen erabilitako teknika bat gehiago bezala, ez zen oso ezaguna Gipuzkoan eta bertan ari ziren industria-diseinatzaileek eskari-zorro oso txikia zuten orduan zegoen industriarako.

Laurogeigarren urteetan hedatu zen Euskadin diseinugintza industrialaren aurkikuntza produktu berekiak balioa handitzeko tresna baliagarri gisa. Ia aldi berean beste toki-administrazio batzuek txostenak edo liburu zuriak egiteari ekin zioten diseinuaren garapenaz eta sustapen-ekintzez. Azterlan haiek errealitate erabat basamortuzkoa islatzen zuten, diseinugintza industrialaren lanbide-edukia interpretatu ere egin gabe.

Hutsune handiak daude funtsezko ikasgaietan lehiakortasuna lortzeko. Guztiarekin ere, badira bi faktore itxaropentsu Gipuzkoako industria-diseinuarentzat: alde batetik, gipuzkoar industria-ehuna oso egokia da diseinuaren garapen eta eraginkortasunerako; bestetik, 1984tik, Gipuzkoako Foru Aldundiak diseinuari deliberatuki laguntzea erabaki du.

Gaur egun, gaurko dinamika eta kudeaketa-ohiturak kontuan hartuta, produktu-helburuak aldez aurretik definitzea eta industrializazio-ingeniaritza diseinuaren garapena iratotzen ari dira. Enpresek kanpoko profesional-ekipoetara jo beharra dute, zeinek denbora guztian lagunduko dituzten, bermeak nahi badituzte etorkizun handiko proiektu ez itotzeko. Horregatik, diseinu integralaren prozesuak diziplina arteko ekipo baten presentzia eskatzen du, marketineko jarrerak eta jarduerak ulertuko dituena, bai eta konponbide materialak, prozesuak, lanabesak eta kostuak, eta sormenaren ekarpena egingo duena forma, ehundura eta akabatuetan, produktuaren koherentzia ahaztu gabe enpresako gainerako jarduerekiko, zeinek erasaten baitute identitate korporatiboaren mezua.

Eskaintza profesional hori dagoeneko bada Gipuzkoan, baina kultura estrategikoa egokitzea falta da. Gaur egun diseinugintza industrialean egiten diren sarraldiak saiakera hutsak dira forma eta akabera zainduagoekin produktua irudikatzeko ahalbidea egiaztatzeko. Diseinuaren profesional batekin zertxobait konektatuz gero, saiakera horrek badu balioa irismena alderdi estetikoez harago doala finkatzeko; produktuaren morfologia berrietan barrentzen da, zeinek bilatzen baitute arrazionalizazioa, segurtasuna, ergonomia eta erabilera-kalitatea. Desberdintze-helburuak fokatze estrategiko jakin batera bideraturik egon behar du eta diseinua epe luzera, inprobisaziorik gabe programatutako zerbait bezala erantsi behar da.

## Diseinua sendotzea

Urte horietan zehar, profesionalek, erakundeek eta enpresek egundoko ahalegina burutu dute bere zeregin estrategiko eta katalizatzaileaz gero eta jakitunago den sektore bat sendotzeko, pertsonen, hirien, zerbitzuen... eraldaketari loturik. Ahalegin horrek, bere espiritu integratzaile eta zehar-lerroko, tokiko eta globalarekin 2011n Bilboren hautagaitza bultzatu zuen 2014an Diseinuaren Munduko Hiriburu izateko eta bere izendapenarekin batera finalista bezala aitortua izan zen Dublin eta Lurmutur Hiriarekin batera.

> “Profesionalek, erakundeek eta enpresek egundoko ahalegin bat egin dute bere zeregin estrategiko eta katalizatzaileaz gero eta jakitunagoa den sektore bat sendotzeko”

eide

EUSKADIKO DISEINUGILEEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE DISEÑADORES DE EUSKADI

## EIDEn ordezkatutako enpresak

Abad Diseinua eta Arkitektura
ADN DESIGN
AGV Estudioa
Blue Design
Circularcom
Dakit Design
David Abajo & Asociados
Dhemen Design
Dimado Industria Diseinua
Dinamo Industria Diseinua
Due Studio Industria Diseinua
elplanB Diseinu Kabinetea
Enaiden
Evidentis
Gorka Ibargoyen
IRD/Iosu Rada Diseño
Item designworks
Javier Machimbarrena Industrial Art & Design
Jorge Peñagarikano
Klap_industria sorkuntzako laborategia
LKS Diara design
Lonjaus Design
Muka Design Lab
Notonly architects
ProDising
Skytech Design
Sokoa
Sormen Design
Studio Mapping
Tres-D
TXB Produktu-diseinua

# Euskadiko diseinugintza industrialaren erreferente batzuk

## B.lux Taldea

Laurogeigarren urteetan diseinu kontzeptua era oso desberdinetan interpretatzen zen Estatu guztian eta are gehiago, behar bada, Euskadin, non balore tradizionalak oso erroturik baitzeuden. Garai horretan, B.lux-ek lizentziapean argi-diseinuak fabrikatzearen aldeko apustua egin zuen, diseinatzailearen izena eta egilea zutenak.

Enpresa guztiek erronka berari aurre egin beharra zuten: produktu horrentzat zegoen merkatu urriari eta ia banaketa-kanal guztiaren aurkaritza irmoa. Hala ere, enpresa-terminotan, B.lux-en lorpen handiena jarduera baten barruan bilakaera egin izana da, jarduera batean barruan, zeinen *know-how*a ez baitzuen ezagutzen eta hamar urte baino gehiagoz aurreratu izana ahalmen arrazoizkoaren merkatua, Espainian gutxienez. B. lux-en kasuan, diseinua eta banaketa beti izan dira haren negozioaren aldagai kritikoak.

## Burdinola

Burdinolak beti izan du diseinua eta berrikuntzarekiko kezka eta sentsibilitate handia. Sortu zenetik, 1978an, dena garatzen zen "etxean", baina 1987an DZ Diseinu Zentroa sortzeak kanpo-eragile batzuekin harremanetan sartzeko aukera eskaini zion, zeinekin partekatu nahi baitzuen enpresarentzat hain garrantzitsua zen jarduera bat eta zeinekin garatuko baitzituen bere proiektuak, hizkuntza bera hitz eginez, harekin bat egin eta kimika ona lortuz.

Gaur egun Burdinola lider bezala sendotu da nazio-merkatuan eta erreferente da europar merkatuetan. Estetikan bekarrik zentratu beharrean, gaur egun garapenaren fase guztiei ekiteko moduan daude. Burdinolak espezializazioaren alde egin du eta dedikazio eta ezagutza handiagoren alde jo du industrializatze-fasean. Fede osoa du berrikuntzan, haren kudeaketan eta bertan diseinatzaileek duten zereginean etorkizuneko ezinbesteko balore bezala.

## Stua

Stua altzari garaikideak diseinatu, fabrikatu eta banatzen espezializaturik dago egoitza-ingurune eta proiektu-ezarpenetarako. Planteamendu integral batekin haren lana produktu txukun, ezaugarri eta iraunkorrak sortzera bideraturik dago. Era zainduan fabrikatzen ditu, eraikitze- eta zerbitzu-kalitatearekin, eta estetika iraunkorrarekin.

Enpresak, 2008an, Diseinuko Nazio Saria bezalako aitortzak jaso ditu, "produktu soil, araztu eta erabiltzaileen zerbitzurako funtsezkoak direnak sortzeko gai izateagatik" eman zaiona, bai eta "produktu, komunikazio eta aurkezpenean detaileei berak emandako arretarengatik ere".

Stua-n diseinua prozesu global bat bezala ulertzen da, produktuaren kontzeptutik fabrikako materialen fluxuraino. Bereziki, lanbidearen alderdi produktiboa zaio interesgarri eta kezkagarri. Bi elementu horiek, alderdi ekoizleak eta fokatze globalak markatzen dute enpresa horren nortasun saiatua.









## Danobatgroup

Danobatgroup-en, diseinugintza industriala eta makina erreminta elkarrekin eskutik estuki lotuta ibil idira. Laurogeigarren urteen amaiera aldera ez ziren funtzioa bakarrik baloratzen hasi, baizik eta produktuaren irudia: erakargarria izan behar zuen eta desberdintasuna markatu gero eta nazioartekoagoa zen lehiakideekiko.

Makina erremintaren munduan, Danobatgroup aitzindarietako bat izan da diseinugintza industriala bere buruari eransten. Horren froga bikaina dira Bilboko BIEMMHko Industria Diseinuko Sarien edizio batean baino gehiagotan lortutako aitortzak. Gaur egun diseinua arlo bat gehiago da erakundearen barruan, zeinek ahalbidetzen baitu funtsezko kudeaketa-lanabes bat izatea burutzen ari den produktuaren homogeneotze-prozesuan.

Lider da sektore batzuetan hala nola aeronautikoan, eta fresatzea bezalako teknologietan. Haren makinen diseinu abangoardista faktore bereizgarri oso garrantzitsua da bezeroentzat eta merkataritza-sarerako. Hala ere, Danobatgroup-en geroa kanpoko merkatuan bere presentzia gehitzetik igarotzen da eta, horretarako, industria-diseinua funtsezko faktorea da. Gainera erronka berri bati aurre egin beharra du: gero eta gehiago eta hobeto ezagutu gorantz datozen merkatuak eta haien eskakizunetara egokitu.

## Niessen

Niessen-ek lanerako lehen hurbiltze bat kanpoko diseinatzaileekin egin zuen laurogeigarren urteak baino lehen, diseinugintza industrialeko enpresa baten (Design Taldea) laguntzarekin, zeinekin ekin baitzion lankidetza-aldi bati. Lehen urteak krisikoak izan ziren, baina hamarkadaren erdi aldera egoera hobetu egin zen eta ikuspegi onak zituen egoera bat lortu ahal izan zuen.

Garai zailetan normalena izan ohi da inbertitzerik izango ez duten proiektuei aurre ez egitea, edota gauzatzen badira ere eskatzailerik aurkitu ez dutenei. Hala ere, ahalegina egiteko gai denarentzat prestatzeko unea da joera aldatuko denean merkatuan indarrez sartzeko produktu berriekin.

Diseinugintza industrialeko enpresen baliabidearekin burututako produktuen diseinua gutxi ezagutzen zen hamarkadaren hasieran eta ez zen errentagarritzat jotzen. Ustea zen bezero-gaiak ez ziola balorerik ematen diseinuari. Gainera, diseinugintza industriala gauzaki-diseinu bat besterik ez zen. Hala ere, Niessenek funtsezkotzat jotzen du bezeroari ikusaraztea diseinuak egiazki balorea eransten diola produktuari.

## Orbea

Diseinugintza industriala gaur egun era naturalean enpresako bizitzan txertatutako diziplina iruditzen zaigu. Dagoeneko gaindituta daude alderdi estetikoei diseinua lotzen zizkien antzinako ikusmoldeak, baina ez da hainbeste kudeatzaile askok ez zeukatela argi diseinuaren ekarpena beren eskaintzaren balioari. Benetan balio zuena funtzioa zen.

Orbeak kontsumo-produktu bat jartzen du merkatuan, zeinen kontzepzioan diseinu-alderdiak txertatzen baitira. Horregatik, Orbeako produktuaren kontzepzio-ekipoetan diseinatzailea sistematikoki sartzea duela hamabost urte baino lehenago gertatu zen. Orbearen arrakasta-esperientziak merkatuaren eta bezeroen "irakurketa" on baten, produktuaren ezagutza tekniko on baten eta sormen-dosi baten nahastea dira. Beti izan da jakintzagai askoko lan baten emaitza.

Orbean urte ugari samar behar izan dira eta produktu garatu ugari diseinu-gidaliburu batean aurrera egiteko, zeinek bermatuko duen kontsumitzaileak ezagutuko duela marka irakurri baino lehen. Ezaugarri hori, marka handiek bakarrik dutena, diseinuaren estrategia oso irmo eta koherente batekin bakarrik lor daiteke. Erronka hori etorkizuneko erronka ere bada, zeren, zein markak ez du nahi lehen begiratuan ezagutua izatea?






# Ideia batzuk Euskadiko diseinuaz

«Diseinuak ez du sail berekirik, zeren eta sail guztiak baitira haren soro ongarritua. Gastronomiatik zientziara eta ortopediatik arkitekturara, diseinu-prozesuan hasiera beti ideia bat da, diseinuak iradokitzen ideiak eta asmakizunak diren ideiak. Ideiarik gabe es dago diseinurik eta diseinurik gabe ez dago produkturik gai izango denik urte askotako egunetan».

›››› **Anatxu Zabalbeascoa**
Artearen kazetaria eta historialaria

«Euskadiko profesionalen ehuna derrigorrezko erreferentzia da Espainiar estatuan. Gailendu egiten gara, baina taulako gune epelean gaude Europako Batasunean egiten den diseinuarekiko».

›››› **Ion Sojo**
DZ Diseinu Zentroko zuzendari ohia



«Nire iritziz diseinuak premisa bat izan behar du, ez ondorio bat. Diseinua jarrera bat da, garapen-filosofia bat. Diseinatzea es da jatorrizkoa, berritzailea, "chic" dena, bakarra, "ederra" dena, eta abar, produktu bat dena ikusaraztea soilik, harago doa. Zera uste dut gainera, jarrera edo filosofia horrek, "konformagaiztasun produktibo" moduko batean oinarritu behar duela, lan-printzipio bezala, hau da, ez duela ezer ziurtzat eman behar, arketipo guztiak auzitan jarri behar dituela, hartara langa mental guztien gainetik jauzi egin eta erantzun berri eta koherenteak emateko testuinguru orokorren barruan».

›››› **José Ignacio Agirre**
Industria-diseinatzailea



«Diseinuari eta berrikuntzari ez diogu soilik "gertaera teknologiko" bati bezala ekin [behar], gure industria-ingurunean hain sarri aurkeztu nahi izaten den bezala, baizik eta derrigorrezko gogoeta bat bezala enpresa-hiztegian batere ohikoak ez diren alderdietan, zeinak baitira pertzeptiboak, psikologikoak, soziologikoak, estetikoak, etikoak, emozionalak, eta zenbait egilek iradokitzen duten bezala: antropologikoetan».

›››› **Elisabeth Urrutia**
Industria-diseinatzailea

«Eta izatez diseinuak enpresako elementu bat gehiago izan behar du. Diseinua euskarri guztietan dago, zeinen bidez enpresa bezeroengana proiektatzen baita. Horra hor berrikuntzak duen izaera estrategikoa industria-diseinuan».

›››› **Ignacio Sola**
EIDEko presidentea




«Besteentzako zerbitzu bat bezala ulertzen dut neura lana. Oso gaitzi zitzaidan diseinuaren kontzeptua eliteko produktuei bakarrik atxikia. Nik mundu guztiari helarazteko gogo nuen eta, ondorioz, "umiltzat" ere har zitezkeen produktuak burutzeko ere bai. [...] Uste dut ezin zaiola uko egin diseinuaren balio sozialari. Bizi-kalitatearen parekoa da eta bizi-kalitate horrek pertsona guztiengana iritsi behar du.[...] Guk beti erabiltzaileengana bideratutako diseinuan lan egin dugu».

›››› **Brigitte Sauvage**
Industria-diseinatzailea




«Gure enpresaz bakarrik hitz egin dezaket eta Sellex-en funtzionaltasuna bezain garrantzitsua da sormena. Guk ez dugu inoiz ahazten aulki batek, mahai batek, eserleku batek... oinarrizko funtzio bat dutela, produktu horren esentzia dena. Baina dagoeneko badenari desberdina den zerbaiten ekarpena egiten ahalegintzen gara. Garapen berri bakoitzean gure produktua beste bat gehiago izan ez dadin saiatzen gara. Material berriak erabiliz, ideia estetiko berriak garatuz edo funzionaltasun berriak bilatuz izan daiteke hori».

›››› **Miguel Jiménez**
Sellex-eko kudeatzailea

«Orain arte, oinarri berritzaileko teknologia-enpresak sortzera bideraturik egon gara. Garai berriei erantzun bezala, oinarrizkoak iruditzen zaizkigun bi barruti desberdin gehitu nahi izan dizkiegu: enpresa-hazkuntza eta -desberdintzea sektore sortzailea eta diseinua, eta haren nazioartekotzea bultzatuz».

›››› **Imanol Pradales**
Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Ahalduna